



**PLAN NAVARRO
DE ACOGIDA
A PERSONAS MIGRANTES**

**PERTSONA MIGRATZAILEEI
HARRERA EGITEKO
NAFARROAKO PLANA**



**Gobierno
de Navarra**



**Nafarroako
Gobernua**



**AGENDA
2030**

Zuzendaritza eta Koordinazioa:

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia – Karibu Migratzaileei Harrera eta Akonpainamendua egiteko Zerbitzua.

Idazketa eta aholkularitza:

Andalucía Acoge Federazioa eta La Lagunako Unibertsitatearen Fundazio Orokorra

Gobierno de Navarra
Departamento de Políticas
Migratorias y Justicia



Nafarroako Gobernua
Migrazio Politiketako eta
Justiziako Departamentua



AURKEZPENA



Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako 2019-2023 aldirako programa akordioak berariaz jasotzen du desberdintasunaren aurka egiteko eta Nafarroako gizarte anitzaren esparruan bizikidetzazko sustatzeko konpromisoa.

Horretarako, beste hainbat neurriren artean, parte-hartze prozesuak sortzea sustatzen da, Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako lehen 2021-2026 Plan hau egitea ahalbidetu duenaren modukoak.

Gainera, Nafarroako Gobernuak Agenda 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuekin –GJHeekin– lerrokatuta dauden politikak ezartzen ditu. GJHetan biltzen diren ekintzen artean daude migratzaileen egoera hobetzea harrerako komunitateetan eta gertatzen ahal diren kalteberatasunak arindu eta haiei aurre egitea eta, orobat, harrerako komunitateen beharrak kontuan hartzea.

Garrantzitsua da aztertzea zein den egungo egoera, fenomeno honi erantzuteko, izan ere, migrazio prozesuak konplexuak eta dinamikoak dira, eta Estatuan eta Europan dauden lege, arau, plan eta estrategietan aldaketa ugari izaten dira, erkidego mailan eta toki eremuan zuzeneko eragina dutenak.

Horregatik, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Plan bat prestatzen hasi da. Harreraren ikuspegi partekatu batetik abiatuta, plan horrek lehendik dauden jarduketak guztiak antolatu eta egituratuko ditu, eta datozen urteetan ezarri behar direnak zehaztuko ditu.

Nafarroako Gobernuak, duela zenbait hamarkadatik, berariazko baliabide ugari eskaintzen ditu migratzaileen harreratik eratorritako beharrei erantzuteko, eta tokiko erakundeek, gizarte erakundeek eta gizarte zibilak ere arlo horretako jarduketak egiten dituzte. Hala ere, Plan hau prestatzeak eragile guztien arteko lankidetzarako esparru bat ezarri du, ahaleginak batu, sinergiak sortu eta harreraren esparruan egiten diren ekintzei koherentzia emateko.

Plan honi esker, erakunde publikoek, gizarte erakundeek eta gizarte zibilak, harrera hobe eskaintzen ahalko diegu Nafarroara iristen den migratzaile orori.

Eskerrik asko parte hartu duzuen erakunde, elkarte eta pertsona guztiei, baita Andalucía Acoge Federazioari eta La Lagunako Unibertsitateko Canaria General Fundazioari ere, haien ahalegin eta profesionaltasunarengatik, Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako 2021-2026 lehen Plan hau egitea ahalbidetu baituzue.



AURKEZPENA	3
SARRERA	7
I. BLOKEA	12
1.1. TESTUINGURUA.	13
1.2. MIGRATZAILEEN HARRERAREN KONTZEPTUALIZAZIO ETA OINARRI TEORIKOA.	16
1.2.1. Migratzaileei harrera egitearen definizioa.	17
1.2.2. Oinarri teorikoak.	17
1.2.3. Ekintza printzipioak.	18
1.2.4. Genero ikuspegia eta ikuspegi intersektionala	19
1.3. MIGRATZAILEEI HARRERA EGITEKO NAFARROAKO PLANAREN ESKUMEN ETA ARAUGINTZA ESPARRUA, ETA ESPARRU POLITIKOA.	21
1.3.1. Migratzaileei harrera egiteko eskumen esparrua eta antolaketa sistema.	21
1.3.2. Migratzaileen harrerarako Nafarroako araugintza esparrua.	30
1.3.2.1. Migratzaileen eskubideak eta askatasunak.	30
1.3.2.2. Migratzaileen harreraren aintzat hartu beharreko nazioarteko eta Europako araudia.	33
1.3.2.3. Migratzaileen harreraren aintzat hartu beharreko Estatuko eta autonomia erkidegoko araudia.	41
1.4. HARRERA PLANAREN ESPARRU POLITIKO ETA ESTRATEGIKOA	53
1.4.1. Nazioartean	53
1.4.2. Europako eremua	56
1.4.3. Estatu esparrua	59
1.4.4. Autonomia erkidegoen esparrua	61
1.5. PLAN HONEK AGENDA 2030AREN AURREAN DUEN ERANTZUN MAILA.	67
II. MULTZOA	71
2.1. PLAN OSOAREN PRINTZPIO ZUZENTZAILEAK	72
2.2. BEHARREZKO ALDAKETEN DIMENTSIOAK	73
2.3. HELBURU NAGUSIA	76
2.4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK.	77
1. A. Jatorrian prestatzea eta helduek arreta espezifiko ematea.	78
2. A. Esku-hartze espezializatua profil zehatzetan.	78
3. A. Institutuzioak dagoen kultura aniztasunera moldatzea.	78



- 4. A. Komunikazioa sustatzea eta aliantza eraginkorrak garatzea. 79
- 5. A. Indartze komunitarioa eta kulturarteko parte-hartzea. 79
- 6. A Genero berdintasuna sustatzea. 79

2.5. LEHENTASUNEZKO JARDUKETA ILDOAK, HELBURU ESPEZIFIKOAK, NEURRIAK ETA ADIERAZLEAK 80

- 1. LI. Informazio, orientazio eta hizkuntzak ikasteko zerbitzuak, eta zerbitzu orokorretarako sarbidea hobetu eta garatzea. 82
- 2. LI. Ekintza komunitarioa, aliantza estrategikoak eta maila anitzekoak migrazio prozesuak eta horien tokiko inpaktua modu globalean kudeatzeko. 85
- 3. LI. Esparru juridiko, administratibo eta kontzeptual argi eta operatiboa, eskubideen ikuspegi batetik. 89
- 4. LI. Migratzaileei harrera egiteko gaitasun kulturalak eta kulturartekoak garatzeko prestakuntza, gaikuntza eta sentsibilizazio sistema egonkorra sortzea. 92
- 5. LI. Prozesu integral eta jarraituak sortzea familia unitateen inguruan, haurtzaro, nerabezaro eta gaztarotik. 95
- 6. LI. Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen harrera eta inklusio sistema modu koordinatuan ezartzen aurrera egitea. 99
- 7. LI. Ostatu arloko beharrei behar bezala erantzuteko neurriak sustatzea. 102
- 8. LI. Osasunaren ikuspegi prebentibo eta integrala jorratzea ahalbidetzen duten prozesu eta ekintzak garatzea. 106
- 9. LI. Laneratzeko prozesuak indartzea. 110

2.6. GOBERNANTZA 115

2.7 – JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA. 117

- 1. ERANSKINA. GLOSARIOA 118
- 2. ERANSKINA. PRESTAKETAN PARTE HARTU DUTENEN ZERRENDIA. 127
- 3. ERANSKINA. DIAGNOSTIKOAREN ONDORIOAK. 134
 - 3.1. Ondorio nagusia 136
 - 3.2. Gomendioak 137
 - 3.3. Sistematizazio matrizea 138
- 4. ERANSKINA. DOKUMENTAZIO ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA. 144



SARRERA



Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Planaren (2021-2026) esparrua Nafarroako Foru Komunitateak aurrerabide ekonomiko eta sozialaren bidean aurrera egiteko, desberdintasunaren aurka eta gizarteratzearen alde egiteko eta Nafarroako gizartearen pluraltasunaren bizikidetzan duen konpromisoa da, kulturarteko ikuspegiaren alde egiten duen apustua sendotuz.

Migrazio prozesuen tokiko kudeaketak eragiten dituen erronkak eta horien ondorioak konplexuak dira, eta administrazioen maila desberdinek (Europakoak, Estatukoak, Foru Komunitatekoak eta udaletakoak) eta gizarte zibileko instituzio eta erakundeek parte hartzen dute. Nafarroan, migrazioaren erronkari Foru Komunitatearen mailan erantzuna emateko, kulturarteko integrazio edo bizikidetzak planak sortu, onartu eta garatu dira.

Foru Komunitatearen mailako zuzeneko lehen erreferentzia, *Migratzaileen Gizarte Integratziorako Plana*¹ izan zen, migratzaileetan zentratzen zena eta ordura arte berria zen fenomeno baten behar ugariak artatzeko xedea zuena, zeuden erronka ugari eta anitzi konponbide praktikoak emateko asmoz. Ondoren, *Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko eta Integratzeko Ekintza Planak (NMHIE)*² garatu ziren, 2010ean amaitu zirenak. Azkenik, *Bizikidetzarako Nafarroako Estrategiak*³ jarraipena eman zion migrazioaren erronkaren erantzun espezifikoari. Oraingo honetan, babes sozialeko sistemen bidez herritar guztiei eskaintzen zaien normalizazioaren eta erantzun globalaren aldeko apustua egin da, eta Estrategian Foru Komunitateko migrazio prozesuen berezitasunetatik eratorritako alderdi zehatzak azpimarratu dira.

Estatu mailan, Nafarroako errealitatearekin batera eta harekiko lotura estuan, esku-hartze ugari egin dira politika publikoetatik ia lau hamarkadatan zehar. 1994an, *Migratzaileak Gizarteratzeko Plana*⁴ sustatu zen, oso oinarritzko neurriak eta garapen eskasa zituena.

¹ [Migratzaileen Gizarte Integratziorako Plana](#). Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua. Nafarroako Gobernua. Nafarroako Gobernuak 2001eko ekainaren 25ean onetsi zuen dokumentu hau. Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietarako Batzordeak 2002ko urriaren 9an onetsi zuen.

² [Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko eta Integratzeko Ekintza Planak \(NMHIE\) Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak 2005eko urriaren 28an sinatutako lankidetzak hitzarmenaren –migratzaileak hartu eta integratzeko jarduketak eta hezkuntza errefortzukoak garatzekoaren–](#) esparruan garatu ziren. Foru Komunitateko eta Estatuko organo exekutiboek migrazioaren arloan hitzartutako lankidetzak eta koordinazio baliabidea izan zen.

³ Gizarte Politiketako Departamentua, [Bizikidetzarako Nafarroako Estrategia](#). Nafarroako Gobernua, Iruña, 2015, 168. or.

⁴ 1994ko abenduaren 2ko Akordio bidez, Ministro Kontseiluak Migratzaileak Gizarteratzeko Plana onetsi zuen.



2001an, *Atzeritartasunaren eta Immigrazioaren Erregulazio eta Koordinaziorako GRECO Programa Orokorra*⁵ sortu zen. Gizarteratze prozesuen garapenaren ikuspuntutik, aurrerapenak minimoak izan ziren. Aipagarriak dira migratzaileentzako eskubideen babesa bermatzera bideratutako araugintza erreformak. Horietako batzuk positiboak izan dira, esaterako, 4/2000⁶ Legea, ondoren, 8/2000⁷ Legearen arabera zuzendu zena, egoera administratibo irregularrean zeuden migratzaile asko egoera zaillean jarri.

Espainiako populazioaren dibertsifikazio soziokulturalerako prozesuen kudeaketan jauzi kualitatibo handia izan zen 2005ean, erkidego mailako politikak koherentziaz antolatu nahi zituen estrategia bat martxan jarri zenean, horiek gizarte kohesioari lotuz eta Estatu osorako egituratuta. Honako hauek ziren logika horren funtsezko baliabideak: *Pertsona Migratzaileei Harrera egin eta Integratzeko eta Hezkuntza Errefortzurako Laguntza Funtza (MHIHELFI)*⁸, finantza baliabidea zena; eta baliabide kontzeptuala, hots, *Herritartasun eta Integratioko Plan Estrategikoa (HIPE 2007-2010)*⁹ eta horren jarraipena den *Herritartasun eta Integratioko II Plan Estrategikoa (HIPE 2011-2014)*¹⁰. Biak gizarteratzera bideratuta daude, kulturartekotasuna nabarmenduz, eta bigarrenaren ikuspegi zabala nabarmentzen dute, arlo hauek jorratzeagatik: harrera, enplegua eta sustapen ekonomikoa, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak eta gizarteratzea, mugikortasuna eta garapena. Zeharka, esparru hauek ere jorratzen ziren: bizikidetzatza, tratu berdintasuna eta bereizkeriaren aurkako borroka, haurrak, gazteak eta familiak, generoa, partaidetza eta gizalegezko hezkuntza.

Migrazioaren, kultura aniztasunaren kudeaketaren eta kulturarteko ikuspegia txertatzen duen gizarte bizikidetzaren sustapenaren arloan, bi aldi handi bereizten ahal ditugu azken ia lau hamarkada hauetan. Horietako lehenak 1990ko hamarkadatik 2008-2012 aldira arte irauten du. Aldi horretan, erritmo desberdinekin, nabarmen areagotu ziren Europar Batasunaren, Estatuaren, Autonomia Erkidegoen, eta are eskualde eta udal esparruen, ekimenak eta aurrekontu laguntza. Horri guztiari esker, posible izan zen ikuspegi positibo eta aberasgarria sortzea Espainian atzeritarren talde garrantzitsu bat heldu eta finkatzearen fenomenoaren inguruan. Garai horretan, nahiz eta zenbait gertaera tragiko gertatu, hala nola 2000ko otsailean El Ejido izandakoak, Espainiako gizartearen gehiengoak jarrera positiboa du auzotasun berria finkatzearen aurrean. Departamentuak,

⁵2001eko apirilaren 17ko EBAZPENA, Atzeritartasun eta Immigrazioarako Gobernuaren Ordezkaritzarena, [Atzeritartasunaren eta Immigrazioaren Erregulazio eta Koordinaziorako Programa Orokorra](#) onartzen duen 2001eko martxoaren 30eko Ministro Kontseiluaren Erabakia argitaratzea xedatzen duena.

⁶4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa. 2020ko urtarrilaren 12ko 10 zenbakiko EAOi argitaratua.

⁷ 8/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22koa, 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzeritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, aldatzen duena. 2000ko abenduaren 23ko 307 zenbakiko EAOi argitaratua.

⁸ [2011ko martxoaren 23ko Ebazpena](#), Idazkaritza Nagusi Teknikoarena, 2011ko martxoaren 11ko Ministro Kontseiluaren Akordioa argitaratzen duena; horren bidez, 2011ko ekitaldirako formalizatzen dira banaketarako irizpide objektiboak eta Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko eta Integratzeko Laguntza Funtsetik datorren aurrekontu kredituaren ondoriozko banaketa, 66.600.000 euroko zenbatekoarekin, baita hezkuntza errefortzura bideratutakoa ere.

⁹Estatuko Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza. Migratzaileen Integratioko Idazkaritza Nagusia.

¹⁰ [Ibidem 9.](#)



Zuzendaritza Nagusiak, Programak eta zerbitzu espezializatuak sortu ziren. Erronkei erantzun egituratua eta egokia ematen dieten erakunde garrantzitsuak ere sortu edo garatu ziren.

Hala ere, 2012an hasi eta gaur egun arte luzatzen den bigarren aldi honetan, lehenik eta behin, gizarteratzeko eta kultura aniztasunaren kudeaketarako politika publikoetan egindako aurrerapenak suntsitu eta desagertu egin dira. Kulturartekotasunari eta bizikidetzari dagozkien gaietan gertatutakoa are okerragoa da. Une hartako krisialdi sozioekonomikoaren kudeaketan, gai hauek oso modu negatiboan jorratu ziren, bigarren mailako alderdiak balira bezala. Errealitate horren esparruan, Espainian ugaritu egin dira jarrera arrazistak eta xenofoboak, tentsioa handitu egin da "Gu vs. haiek" dikotomia azpimarratzen duen diskurtsoen oinarrian, eta migrazio zikloei loturiko alderdi, gertakari eta jazoera negatiboak buruzko gizarte komunikazioa nabarmendu da. 2018tik aurrera, gutxi gorabehera, ekonomiaren susperraldiak aukera eman zuen berriro mahai gainean jartzeko Espainiako populazioaren dibertsifikazio soziokulturala landu beharreko gaia dela, eta, batez ere, premiazkoa dela zaugarritasun egoerak, askotariko kultura jatorriak eta antzeko alderdiak gurutzatzen direnean.

SARS-CoV-2 birusak eragindako egungo osasun krisialdiak, krisialdi sozial eta ekonomiko ere badenak, eragina izanen du migrazioen tokiko inpaktuan. Baina agerikoa da, adierazle guztien arabera, premiazkoa dela politika publiko sendo bat izatea, ikuspegi zabalak izanen dituen, eraginkortasun eta efizientziaz aurre egiten ahalko diona Europa guztiak, Espainiak eta, jakina, Nafarroak bizi duten dibertsifikazio soziokultureko prozesuak eragindako erronka geldiezinari.

Testuinguru honetan, *Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako lehen Plan (2021-2026)* honek erantzun argia eta sakona eman nahi dio lan agenda partekatua eta partaidetzazkoa sortzeko konpromisoari. Administrazioen eta erakundeen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko gobernantza anizkoitzerantz aurrera eginez, profesionalen ezagutza metatua, garapen sozioekonomikorako funtsezko enpresa sarea eta herritar antolatutak edo banakakoak optimizatzeak. Orain, migratzaileak iristea eta finkatzea aurrerapen faktore bihurtzeko aukera emanen duen erreferentzia esparru batekin, eskubideen ikuspegia zeharka jasotzen duen kudeaketarekin eta Nafarroarentzat ezinbestekoa den egungo eta etorkizuneko ondare berria sortzeko sinesmen sendoa abiapuntu hartuta.

Dokumentu hau formulatu aurreko parte-hartze prozesuari esker, batetik, egungo egoeraren erronkei buruzko diagnostikoa egin ahal izan da, eta, bestetik, non eta nola jardun behar den ardatz duten proposamenak sortu ahal izan dira. Horrekin guztiarekin, egungo egoera hobetzeko funtsezkoak izanen diren helburuak, ardatzak eta lehentasunezko ildoak garatzen dira dokumentu honetan. Hala, Harrera egiteko Plan hau potentzial eraldatzailea duen baliabidea izanen da, Nafarroan finkatuta dauden edo Nafarroatik igarotzen ari diren pertsonen eskubideak errespetatu daitezen, aldi berean, guztion ongia sortzen laguntzen duten bitartean, gizartearen ekitatea eta garapen jasangarria oinarri, ikuspegi ireki eta sistemiko batetik.

Horretarako, *Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Planak (2021-2026)* honako elementu gako hauek planteatzen ditu:



KULTURARTEKOTASUNAREN IKUSPEGIA	INTERSEKZIONALITATEA
Pertsona guztiek dituzten alderdi komunak azpimarratuz eta askotariko kultura jatorria Nafarroako gizartearen ondare sozial eta kulturalera gehitzeko elementu berri gisa hartuz.	Dimentsio anitzeko gizarte ekintza bermatzeko, desberdintasunaren ardatz desberdinak kontuan hartuko dituen eta pertsonen potentzialtasun, behar eta aspirazioei <i>ikuspegi ekosistemiko</i> batetik erantzunen diena.
GENERO IKUSPEGIA	2030 AGENDAREKIKO ETA HORREN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEKIKO KONPROMISOA
Oztopoak desagerrarazteko ezinbesteko elementu gisa, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak murriztea eta egiazko berdintasuna lortzeko beharrezko baldintzak sortzea.	Migrazio fenomenoren irismenaren maila guztiak –irismen globala eta toki irismena– antolatuz eta pertsona guztien aldeko mundu jasangarriagoa lortzeko erronkak onartuta.



I. BLOKEA



1.1. TESTUINGURUA.

Migrazioak fenomeno konplexua dira, egungo gizartean inpaktu handia dutenak. Iturri ugari adierazten duten bezala, are garrantzitsuagoak izanen dira etorkizunean: teknologiaren aurrerapenekin eta jasangarritasun globalaren erronkarekin batera, gizarte modernoaren ezaugarri eraldatzaileenetako bat dira. Horrela, garrantzitsua da migrazioaren fenomenoaren albait irekiera handienarekin jorratzea, elementu askok parte hartzen baitute hori osatzen. Elementu horien artean nabarmentzekoak dira: egoera globalekiko (egoera ekonomikoak, sozialak, kulturalak, ingurumenekoak, instituzionalak, askotariko gatazkak eta abar) lotura estua; eta borondatez edo behartuta lekualdatzen diren pertsonen jatorrizko lurraldeetan, igarotzen diren lurraldeetan eta finkatze lurraldeetan duen tokiko eragina.

Nafarroako Foru Komunitateak eta Espainiak duela zenbait hamarkadatik jorratzen dute alderdi anitzeko fenomeno honen kudeaketa. Garai horretan, egiturazko aldaketa handiak egon dira biztanleen kultura jatorriaren osieran, eta, ondorioz, komunitate nazional asko sortu dira, oso proportzio garrantzitsuekin eta kontinente guztietako jatorri ugariarekin. Nafarroan, argi ikusten da kanpo migrazioak gero eta inpaktu handiagoa duela aldaketa faktore gisa eta eskualdeko errealitate soziodemografikoaren protagonista gisa, ondorio ekonomiko, sozial, kultural eta instituzionalekin.

Errolda iturriek agerian uzten dute Nafarroan jatorri atzeritarreko 106.764 pertsona bizi direla, 2020ko datuekin; horietatik, % 51,4 (54.889) emakumeak ziren eta % 48,6 (51.875), gizonak. Hau da, Nafarroako biztanleen % 16,1 atzeritarrek dira. Hala, Nafarroa erdialdeko posizioetan geratzen da Espainiako eskualdeen artean, kolektibo horrek duen pisuaren arabera. Eta, gainera, beste herrialde batzuetan jaioetako gizonak baino emakume gehiago dauden autonomia erkidegoen artean geratzen da, % 94,5eko erlazio edo sex-ratioarekin¹¹ (Katalunian eta, batez ere, Murtzian bakarrik gertatzen da kontrakoa). Ikuspegi historikotik, 2002. urteaz geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria hazkundearen hiru laurdenak kanpoko migrazio ekarpenari zor zaizkio (70.074 pertsona), Espainiako beste eskualde batzuetatik izandako lekualdatzeek eta Nafarroako udalerrien artean izandako herritarren joan-etorriek eragindakoen oso gainetik.

Migratzaileen harrera izan da Nafarroan azken hamarkadetan izan den gertakariarik esanguratsuena. Prozesu jarraitua izan da, XX. mendeko azken bosturtekoan hasi zena. Izan ere, 1996 eta 2002

¹¹ Gizon eta emakume kopuruaren arteko harremana, bi sexuen arteko koefizientearen bidez.



bitartean, atzerriko biztanleria ia 6 aldiz biderkatu zen, eta, gero, hirukoiztu egin da data horretatik 2020ra bitartean. Hazkunde hori handiagoa da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino (% 6,94 eta % 5,35 urtean 2002 eta 2020 bitartean, hurrenez hurren). Bi etapa nagusi nabarmen bereizten dira, geldialdi eta jaitsiera progresiboa izan baitzen 2012 eta 2016 artean, krisialdi ekonomikoaren azken tartean. Azken lau urteetan, beste herrialde batzuetan jaioetako populazioaren hazkundearen eta eskualdeetan duen inpaktuaren aurreko erritmoa berreskuratu da, 2020. urtearen hasieran lehen aldiz 100.000 biztanleko muga gaindituz; orduan, beste autonomia erkidego batzuetatik zetozen biztanleen proportzioa gainditu zen, bai gizonen kasuan eta bai emakumeen kasuan.

Oraindik ikusteko daude SARS-CoV-2 birusaren pandemiak benetan eragindako ondorioak. Hala ere, badirudi Europako herrialde eta eskualdeek, gizarte erantzun sendoagoa eskaintzen duten sistema publikoak izanik, ez dutela galera esanguratsurik hauteman atzerritik etorritako populazioan. Bestalde, zabaltzen ari diren txertaketa prozesuek pandemian gehien sufritu duten migrazio ibilbideak kasu batzuetan berriro aktibatzea ekartzen ahal dute.

Lehen nabarmendu dugun moduan, Nafarroan erroldatuta dauden atzerritarren artean, emakume gehiago dago: 2015az geroztik, sex-ratio deritzona emakumeen aldekoa da, eta 2002an % 123,7 izatetik 2020an % 94,5 izatera igaro da. Atzerritarren immigrazioa gero eta hein handiagoan emakumez osatuta egoteko prozesu gorakor hori sakondu egin da Foru Komunitatean (2020an sex-ratioa % 98 zen). Migrazioen profilean egiturazkoagoak diren aldaketa horiek azaltzen dituzten arrazioen artean honako hauek egon ohi dira: emakumeen intzidentzia handiagoa duten zenbait jario mantentzea —ia beti, jatorriko motibazioak eta helmugako faktoreak bateratzen dituen lan arloko osagai garrantzitsu batek markatzen ditu—, hasieran instalatutako pertsonen egonkortasuna lortutakoan familiak birtaldekatzea, eta, are gehiago, mugikortasun horretan familia oso gehiago sartzea; eta horiek zenbait inplikazio dituzte desplazatzen diren pertsonak hartzen dituzten herrialdeetako biztanleria osieran.

Jatorri atzerritarreko biztanleria Nafarroara iristea, bertatik igarotzea eta bertan finkatzea alderdi anitzeko fenomeno da, ezin esanguratsua lurraldearen orainerako eta etorkizunerako; eta, esan bezala, egitura ekonomiko, sozial, kultural eta instituzionaletan eragiten du. Badago errealitate horri erantzuteko ondare positibo bat, eta hor daude administrazioak, erakundeak, hirugarren sektorea, herritar autoktonoak eta migratzaileen sarea bera. Horri esker, elkarrekin lan egin ahal izan dute, kultura jatorri desberdineko pertsonen eta familien erantzun eraginkorra emateko, Foru Komunitate osoan zehar banatuta. Une bakoitzean bizi itxaropen onenak eskaintzen dituzten lurraldeetara jo dute, eta Iruñeko metropoli eremua osatzen duen hiri ingurunean kontzentratu da haien kokalekuaren zatirik handiena. Hortik, presentzia handia ikusten da Foru Komunitatearen hegoaldean, bai aukera ekonomikoak direla-eta, eta bai Nafarroako errealitate sozialera bizkorrago gizarteratzeko aukera dela-eta.

Nafarroan, migratzaileen harrera eskubideen ikuspegitik garatu behar da, eta kontuan hartu behar da, adibidez, biztanleria berri horrek bizitasun handia ekartzen duela maila soziodemografikora, lehendik Nafarroan bizi den biztanleriak baino gaztetasun adierazle hobeak dituztela oinarri hartuta. Gainera, lan merkatuaren eskakizunetara egokitzeko gaitasun handia agertzen dute; hain zuzen ere, lan



merkatuak eskualdearen garapen prozesuari eusten dioten lan profilak edo aukerak eskatzen ditu. Migrazioek zehaztutako errealitate horri behar bezala erantzun behar zaio, oso heterogeneoa eta dinamikoa baita, eta une historiko desberdinetan iristen diren emakumeak, gizonak, gazteak eta haurrak baititu protagonista, kultura baliabide desberdinak dituztenak eta migrazio proiektu desberdinak dituztenak, kasu batzuetan egoera traumatikoek markatuta.

Elementu horiek kontuan hartu behar dira biztanle berrien harrerari loturiko planifikazio estrategikoan, azken batean, kulturartekotasunaren ikuspegia duten bizikidetzako testuinguru egokiak sortzeko, eta, bereziki, pertsonen arteko harremana berdintasun printzipioan eta aniztasuna aktiboki errespetatzearen printzipioan oinarrituta egon dadin lortzeko apustua egiteko. Ildo horretan, migrazio mugikortasuna joera gorakorra delako ideia nabarmendu behar da, premia global baten emaitza dena, eta Foru Komunitatera biztanleak ekartzen jarraituko duena. Hortaz, giza dibertsifikazio honen kudeaketa positibo, baketsu eta berritzailea gakoa izanen da *guztien ongia* nabarmenduko duen garapen ideia baterako, Nafarroako Foru Komunitatean dauden gizarte eragileen ardurakidetzatik abiatuta.¹²

¹²Informazio gehiago dokumentu honetan: [Nafarroan harrera inklusiboa sustatzen. Egoerari, erronkei eta aukerei buruzko parte-hartze diagnostikoa.](#)



1.2. MIGRATZAILEEN HARRERAREN KONTZEPTUALIZAZIO ETA OINARRI TEORIKOA.

16

Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako 2021-2026 lehen Plana diseinatzeko oinarrian egonen den erreferentzia esparru komun bat mugatu eta partekatzeko bide honetan, lehen urratsa **eskubideen ikuspegia aplikatzea** da. Hortaz, gobernuak dira migratzaileen eskubideak ezagutzeko, errespetatzeko, babesteko eta betearazteko betebeharra dutenak.

Bestalde, migratzaileei harrera egitea jorratzen da Agenda 2030ak proposatzen dituen Garapen Jasangarrirako Helburuetan¹³ (aurrerantzean, "GJHak") aurrera egiteko, eta prozesu horrek oso lotura estua du helburuekin: 3 (Osasuna eta Ongizatea), 4 (Kalitatezko Hezkuntza), 5 (Genero Berdintasuna), 8 (*Taxuzko lana eta hazkunde ekonomikoa*), 10 (*Desberdintasunak murriztea*), 11 (*Hiri eta komunitate jasangarriak*), 16 (*Bakea, justizia eta instituzio sendoak*) eta 17 (*Helburuak lortzeko aliantzak*).

Zehazki, 10. GJHak, *Desberdintasunak murriztea*, 10.7 jomugan, ezartzen du garrantzitsua dela "pertsonen migrazioa eta mugikortasuna erraztea, modu ordenatuan, seguruan, erregularrean eta arduratsuan, baita migrazio politika planifikatuak eta ongi kudeatuak aplikatuz ere". Hala, 10.2 jomuga, 2030eko ikuspegiari jarraiki, "pertsona guztien gizarteratzea, ekonomia eta politika bultzatzea eta sustatzea da, edozein dela ere haien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo beste edozein inguruabar".

Proposatzen den erreferentzia esparruak honako elementu nagusi hauek ditu: migratzaileei harrera egiteari buruzko definizio zabal eta egungoa, genero ikuspegia jasotzen duena kategorian analitiko nagusitzat; oinarri teorikoa, ebidentzia zientifikoarekin; eta ekintza bideratuko duten printzipioak. Gainera, erreferentziatzeko esparru juridiko bat ere badu.

Migratzaileen harrerari buruzko esparru kontzeptual hori erreferentziatzeko euskarria izanen da Nafarroako Foru Erkidegoaren eremuan xede horrekin egiten den esku-hartze sozial orotan. Horretarako, Nafarroako Gobernutik egindako jarduketa egokien jarraipena, ebaluazioa eta sistematizazioa egingen da.

¹³ Garapen Jasangarrirako Helburuak Nazio Batuen Garapen Jasangarriari buruzko Gailurrean onetsi ziren 2015eko irailaren 25ean.



1.2.1. Migratzaileei harrera egitearen definizioa.

Migrazio prozesua kontuan hartuta, eta Plan hau prestatzeko egin den prozesua oinarri hartuta, **harreraren** definiziotzat honako hau hartzen da: *"lurraldera iristen diren pertsonen beharrak estaltzeko¹⁴ eta horien aspirazioak jasotzeko beharrezkoak diren elementuak eskaintzen dituen prozesua. Diziplina anitzeko esku-hartze sozial eta psikosoziala garatzea dakar¹⁵, harrera egiten zaion eta kulturartekotasunaren ikuspegi batetik diseinatutako baliabide eta baliabide espezifikoak behar dituen pertsonaren erabateko inklusiora bideratuta, genero ikuspegia duen metodologia aplikatuz eta jada lurraldeko biztanle guztientzako dauden zerbitzuak egokitzea barne hartuz¹⁶".* Harrera egiteko prozesu hau garatzean, beharrezkoak dira administrazio publikoen lidergoa eta ardura, baita horien eta eragile esanguratsuen arteko koordinazioa ere, hala nola gizarte erakundeekiko, enpresa pribatuekiko eta herritarrek sortzen edo sustatzen dituzten ekimen ez-formalekiko koordinazioa.

17

1.2.2. Oinarri teorikoak.

Harreraren xede eta helburuak **kulturartekotasunaren ikuspegia** garatzearen barruan kokatzen dira, aniztasuna kudeatzeko gero eta zabaldago eta onartuago dagoen eredu gisa, testuinguru geografiko, sozial eta politiko bera duten kultura jatorri desberdineko pertsonen eta taldeen arteko komunikazio, truke eta aberaste harreman positiboa sortzean oinarrituta, erreferentzia esparru komun berri bat osatuz. Horretarako, honako hauek jotzen dira funtsezko elementutzat:

-  **Berdintasun erreal eta eraginkorra eskubide, betebehar eta aukerei dagokienez.** Onartzen da berdintasunaren erantzukizuna ez dela soilik lurralde jakin batera iristen den gutxiengoarena, erreferentziatzeko gizarte osoarena baizik. Beraz, berariazko ekintza, programa edo zerbitzuak jartzen dira abian, gizarte zibilaren eta auzokide berrien partaidetzarekin.
-  **Aniztasuna aintzatestea,** harrerak lurraldeko egiturazko aniztasuna (jatorria eta hizkuntzak, erlijioak, aukera sexualak, adinak eta abar) barneratu, ikusgai jarri eta nabarmentzen baitu, aitortu eta baloratu beharreko errealitate gisa, Europako nahiz nazioarteko giza eskubideak babesteko dauden mekanismoei jarraikiz betiere.
-  **Elkarreragin positiboa berdintasun baldintzetan eta harrera prozesuaren hasieratik,** horrek kidetze sentimendua eta gizarte kohesioa sendotzen baititu. Harrera programa, proiektu edo

¹⁴ Beharrak, Maslow erreferentziazat hartuta (1943).

¹⁵ Inklusioa, Europar Batasunak emandako definizioa onartzen da.



ekintzetan elkarreraginean jardutea eta parte hartzea da etorkizuneko gizarteak sortzeko oinarria.

- 🌈 **Genero ikuspegia**, ikuspegi intersekzional batetik jorratuta, emakumezko migratzaileei eragiten dieten bazterketa sistema gurutzatuak identifikatuz, eta horiek baliabide eta aukerak eskuratzeko orduan aurre egin beharreko berezitasunak aintzat hartuta.

Kulturartekotasunaren ikuspegia migratzaileen inklusio partekatuari begira harrera prozesuak garatzeko testuingururik onena planteatzen duen ikuspegia da, elkarbizitzan oinarritutako sozialitate esparru bat finkatzeko oinarriak ezarriz. Migratzaileak iristen direnetik asertiboak diren harremanak ezartzen direnean, ongietorriaren garrantzia nabarmenduz, harrera normalizatzeko bidea egiten da, edozein gizarteren funtsezko balio gisa.

18

1.2.3. Ekintza printzipioak.

Harrera prozesuak garatzen direnean, zenbait gizarte eragilek egiten dute lan, administrazio eta instituzio publiko eta pribatuetatik hasi eta orotariko entitate eta erakundeetaraino, bereziki, elkartegintza izaera dutenen kasuan, enpresa sektorea barne hartuz. Gizarte ekintza egoki eta orekatua egonen bada, beharrezkoa da printzipio batzuk partekatu, onartu eta aplikatzea. Horiek, praktikan interpretazio malgua behar duten arren, irizpide komunak errespetatzen saiatu behar dute. Hauek dira:

- 🌈 Administrazio publikoen **betebeharrak**, ezarritako esparru juridiko eta arauemaileei eta nazioarteko akordio eta konpromisoei jarraituz dieten gizarte politika sortu eta garatzeko migratzaileei harrera egitearen inguruan.
- 🌈 Erakunde pribatu, instituzio, erakunde eta gizarte zibilaren **ardura**, harrera eskubideen ikuspegitik eta esparru teoriko partekatu batetik jorratzeko.
- 🌈 **Zeharkakotasuna**, harrera prozesuak lankidetzazko eta elkarlanean lana eskatzen duen heinean; horretarako, kudeaketa integratua egin behar da, inklusiorako ibilbidea arrakastatsua izan dadin.
- 🌈 **Koordinazioa**, administrazio publikoen eta erakunde pribatuen ekimenak kudeatzea, eta sare informalekiko harreman eta koordinazioa, ahalbidetuko dituen egitura bat ezartzeko.
- 🌈 **Lurraldetasuna eta bereiztea**, harrerak lurralde osoari eragiten diolako; beraz, beharrezkoa da aukera eta baliabide egokiak egotea populazioaren ezaugarrietarako, tokiko administrazioen kudeaketa gaitasunerako, erakunde pribatuetarako eta lehendik dauden herritar saretarako.
- 🌈 **Eraginkortasuna**, beharrezkoa baita beharrak eta zerbitzuak aztertzea, bikoiztasunak saihestuz eta dauden baliabideak optimizatzen saiatuz.



- 🌈 **Malgutasuna**, migrazio fenomenoaren errealitatea eta adierazpena dinamiko eta aldakorrek direlako; hori dela eta, harrera prozesuak egokitu egin behar dira une bakoitzeko baldintzetara.
- 🌈 **Espezializazioa eta eskumenak**, kontuan hartuta beharrezkoa dela berariazko prestakuntza izatea eta pertsona eta taldeen gaitasunak garatzea, migratzaileei harrera egiteko prozesuetan lan egiten dutenean, haien ezagutzak eguneratuz eta gaitasun berriak garatuz.
- 🌈 **Parte-hartzea eta ardurakidetzatza**, harrera ibilbideak sustatzean herritarren parte-hartzea egon behar baita, bai iritsi berriena, bai bertakoena eta bai egoiliar luzaroan izan direnena.
- 🌈 **Genero ikuspegia** ardatz analitiko nagusi gisa, emakumeen behar praktiko eta interes estrategikoei erantzunen dieten harrera prozesuak aurrera eramateko aukera emanen duena, migrazio prozesuan jasaten dituzten bereizkeria ugariak kontuan hartuta.
- 🌈 Administrazio publikoen **aurrekontu eta baliabide bermea**, beren ardura eta eskumen mailaren arabera; hain zuzen ere, harrera prozesuak behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren baliabideak hornitu behar dituzte. Halaber, ekimen pribatuak elementu garrantzitsu eta osagarria izanen dira, lurralderako erronka handiaren aurrean eta onura komunak lortuko direla kontuan hartuta.
- 🌈 **Ebaluazioa**, funtsezkoa baita harrera prozesuetan garatutako gizarte ekintzak baliabide metodologiko egokiak izatea, eta, gainera, etengabeko ebaluaziorako baliabideak izatea, gauzaturiko esku-hartze sozialeko prozesua eta eragina baloratzeko eta genero ikuspegitik aztertzeko.

1.2.4. Genero ikuspegia eta ikuspegi intersektionala

Migratzaile guztiek esperientzia bera dutelako usteak, kontuan hartu gabe zein generorekin sozializatu diren (emakume gisa ala, aitzitik, gizon gisa), ikuspegi politiko batetik, ikusezin bihurtzen ditu emakumeek eta neskek jasaten dituzten desberdintasunak, baita genero identitate desberdinak dituzten beste pertsona batzuk jasaten dituztenak ere.

Beharrezkoa eta premiazkoa da onartzea migrazio prozesuak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eragiten dituzten botere harremanen esparruan gertatzen direla. Harreman horiek dinamikoak dira eta aldatu egiten ahal dira denboran zehar eta testuinguruaren arabera. Generoa beste nortasun eta botere dinamika batzuekin ere gurutzatzen da, hala nola klase sozialarekin, etniarekin, nazionalitatearekin, sexu orientazioarekin, egoera administratiboarekin eta abarrekin. Kasu horretan, genero harremanak zenbait mailatan eratzen eta aldatzen dira migrazio prozesuan zehar.



Generoak migrazioaren esperientziaren alderdi guztietan eragiten du, bai emakumeen kasuan eta bai gizonen kasuan. Generoak eragina du migratzeko arrazoietan, nork migratuko duen erabakian, migratzeko erabiltzen diren sare sozialetan, migrazio esperientzietan, helmugako herrialdean integratzeko eta laneratzeko prozesuetan, eta jatorrizko herrialdearekiko harremanetan.

Emakumezko migratzaileak diskriminazio, esplotazio eta indarkeria arrisku handiagoen eraginpean daude. Migrazioak emakumeengan eta neskengan dituen inpaktu negatibo horiek migrazio zikloaren fase guztietan gertatzen dira: hasi aurretik, familia eta komunitate testuinguruan; migrazio prozesu osoan zehar; eta helmugara iristean.

Halaber, emakume askorentzat, migrazioak aukera berriak eskaintzen ahal ditu, hala nola: beren heziketarekin jarraitzeko aukera; laneratzeko aukera; autonomia eta independentzia ekonomiko handiagoa izateko aukera; beren bizitzen eta gorputzen gainean erabakimen eta kontrol handiagoa izateko aukera; eta abar. Migrazioari esker, zenbait neska eta emakumek beren etxe edo komunitateetako indarkeria eta bereizkeriatik ere ihes egiten ahal dute.

Migrazio politikak genero analisia jaso behar dute kategoria analitiko zentral eta dinamiko gisa, eta ikuspegi intersektionala aplikatu behar dute politikak diseinatzeko orduan, erantzunak moldatuko badituzte eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunak murriztuko badituzte; halaber, emakumezko migratzaileen behar praktikoei eta interes estrategikoei erantzun behar diete, Nafarroako migratzaile guztien eskubideak sustatuz, babestuz eta bermatuz.



1.3. MIGRATZAILEEI HARRERA EGITEKO NAFARROAKO PLANAREN ESKUMEN ETA ARAUGINTZA ESPARRUA, ETA ESPARRU POLITIKOA.

Nafarroako Foru Komunitateak ahalegin nabarmena egin du, bi hamarkadaz baino gehiagoz, migratzaileei harrera egiteko, eta administrazio publikoetatik egindako gizarte ekintzaren tradizio handia dago.

Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Plan hau Nafarroako Gobernuaren beraren eskumen esparruan zentratzen da; beraz, esparru juridiko honen eta esparru politikoaren araugintza eremua erkidego mailakoa izanen da. Baina, migratzaileei eta errefuxiatuei harrera egitean, nazioarteko, Europako, Estatuko eta tokiko eskumenak ere badaudenez, atal honetan aintzat hartu behar dira lurralde maila horietako arauak, planak eta estrategiak.

Ildo horretan, lehen apartatu honetan, *Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Plan* honen eskumen esparrua jasotzen da, Foru Komunitatean migratzaileen harreraren esparruan esku hartzen duten administrazioen eskumenari buruzko alderdi nagusiekin. Jarraian, harrera horretaz arduratzen den erkidegoko administrazioaren antolaketa sistema zehazten da. Bigarren apartatuak, berriz, nazioarteko, Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko araudia jasotzen du. Araudi hori kontuan hartu behar da migrazioen kudeaketan, oro har, eta, bereziki, Nafarroan migratzaileei egiten zaien harreran.

Azkenik, hirugarren apartatuan Harrera Plan hau txertatzen den esparru politiko eta estrategikoa islatzen da. Ildo horretan, araugintza esparruarekin gertatzen den bezala, Plan honi loturiko erkidego mailako beste plan eta estrategia batzuk aipatzeaz gainera, beste baliabide batzuk ere aipatzen dira, mundu, Europa eta Estatu mailan lotesleak direnak eta kontuan hartu behar direnak.

1.3.1. Migratzaileei harrera egiteko eskumen esparrua eta antolaketa sistema.



Migratzaileen harreraren parte hartzen duten gainerako administrazioak alde batera utzi gabe (Estatua eta toki entitateak), esparru hori Foru Komunitatearen erantzukizun eremua da, gizarte laguntzaren arloan duen eskumen eskusiboaren arabera, Espainiako Konstituzioaren (aurrerantzean, "EK" edo "Konstituzioa") 148.1.20 artikuluekin eta **Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren** (aurrerantzean NFEBHLO) 44.17 artikuluari jarraikiz.

Gainera, harrera plan honetan osasun laguntzaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren eta abarren arloan jasotako jarduera ildoekin duen lotura dela eta, nabarmentzekoa da **NFEBHLOren 44. artikulua** Nafarroari eskumen eskusiboa egozten diola, besteak beste, honako alor hauei: lurraldearen antolamendua, hirigintza eta etxebizitzan; kirola eta aisiaren erabilera egokia sustatzean; garapen komunitarioan; berdintasun politikan; eta haur, gazte eta hirugarren adinekoren politikan.

Halaber, hezkuntzaren arloan, lege horren beraren 47. artikulua honako hau adierazten du: "Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketa eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, honakoak deusetan ukatu gabe: gai honi buruzko manu konstituzionaletan eta horiek garatzen dituzten lege organikoetan ezarritakoa (...)".

Horri **NFEBHLOren 53. artikulua** gehitu behar zaio. Horren lehen apartatua honako hau zehazten da: "Barne osasunaren eta higienaren arloetan, gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak dagozkio Nafarroari eta, gainera, Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea".

Hortaz, argi dago migratzaileen harreraren gakoak diren zenbait alderdi, hala nola hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak eta abar, Foru Komunitatearen eskumen esparruaren barruan garatzen direla.

Antolaketa sistemari dagokionez, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen **urriaren 30eko 266/2019 Foru Dekretuaren 1.a artikuluari** jarraikiz, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuari egozten zaio Nafarroako Gobernuak immigrazioaren arloan zehaztutako politika garatu eta koordinatzeko, migratzaileak integratzeko eta aniztasun etniko eta kulturala kudeatzeko arloetan Foru Komunitateko Administrazioari esleitutako eskumenak erabiltzea.

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren barruan, aipatutako **226/2019 Foru Dekretuaren 8. artikuluari** jarraikiz, eta **otsailaren 10eko 9/2021 Foru Dekretuak** onetsitako egiturazko aldaketaren ondoren, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia izanen da, besteak beste, arauak honako arlo hauetan aurreikusten dituen funtzioak beteko dituen:

-  Migratzaileei Nafarroan harrera egitea eta horiek integratzea.
-  Kulturarteko bizikidetza hobetzea Nafarroan.
-  Arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzea.
-  Nafarroan izaten diren migrazioak aztertzea.



- Migrazioei buruzko politiken koordinazioa eta ebaluazioa Nafarroako Gobernuan.
- Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean aritzea atzerrian bizi diren nafarrentzako ekintzetan.
- Migrazioarekin eta asiloarekin lotuta dauden Estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekin koordinatzea arlo hauetan: harrera, lagun egitea, kulturarteko bizikidetzeta eta arrazismoaren aurkako borroka.
- Europan migratzaileentzako eta errefuxiatuentzako jarduera humanitarioak egiten duten erakundeei laguntza ematea.
- Migrazio prozesuekin eta bere eskumenen esparruan ezarri beharreko politika publikoekin loturiko beste edozein jarduera.

Aipatutako eskumen eta funtzioetan jarduteko, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia honako zerbitzu hauetan egituratzen da:

a) Karibu-Migratzaileei Harrera eta Lagun Egiteko Zerbitzua.

b) Ayllu-Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Zerbitzua.

Karibu-Migratzaileei Harrera eta Lagun Egiteko Zerbitzuak 226/2019 Foru Dekretuan ezarritako eskudantziak erabiliko ditu Nafarroako migratzaileei harrera egiteko prozesuen arloan eta laguntza bidezko integrazio prozesuen arloan. Karibu zerbitzua Harrera Atalean eta Lagun Egiteko eta Kulturen arteko Bitartekaritzarako Atalean egituratzen da.

Harrera Atalak, 226/2019 Foru Dekretuaren 12. artikuluaaren arabera, jada aipatutako erreformak emandako bertsioan, honako funtzio hauek ditu egotzita:

- Nafarroan migratzaileei harrera egiteko plana diseinatzea, planifikatzea, abian jartzea, horren jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- Nafarroan errefuxiatuei harrera egiteko protokolo integralaren jarraipena egitea eta hura hobetzea.
- Nazioarteko babesa (hau da, asiloa eta babesa) eskatzen duten pertsonak hartzeko eta integratzeko programak diseinatzea, planifikatzea eta abian jartzea.
- Atzeritarren arloan aholku emateko zerbitzua kudeatzea, izapidetzea eta horren jarraipena eta kontrola egitea.
- Migratzaileei harrera hobea egiteko behar diren ekintzak koordinatzea tokiko erakundeekin eta Foru Komunitateko Administrazioaren beste departamentu batzuekin.



- 🌈 Gizarte erakunderekin lankidetzan aritzea migratzaileei harrera hobe egiteko, ekintza koordinatuen bidez.
- 🌈 Administrazio publikoetako etxebizitza zerbitzuekin eta gizarte zerbitzuen arloan eskumenak dituen Departamentuarekin koordinatzea migratzaileei etxebizitza izateko eskubidea eskuratzen laguntzen dieten neurriak.
- 🌈 Beste autonomia erkidego batzuekin eta Estatuko Administrazio Orokorrarekin koordinazio lanak egitea harrera arloan.
- 🌈 Bere eskumeneko dirulaguntza deialdiak kudeatzea, izapidetzea eta haien jarraipena eta kontrola egitea.
- 🌈 Migratzaileei harrera hobe egiteko beste edozein jarduketa.
- 🌈 Bere helburuak egoki betetzeko, indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkieten beste batzuk, edo bere jarduketa eremuan agintzen zaizkionak.

Bestalde, *Lagun Egiteko eta Kulturen arteko Bitartekaritzarako Atalak 226/2019 Dekretuan* aipatutako erreforma egin ondotik 13. artikuluan zehaztutako funtzioetan jardunen du:

- 🌈 Kulturarteko bitartekaritzarako zerbitzuaren kontratua kudeatzea eta izapidetzea, eta horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- 🌈 Nafarroan familia laguntzarik ez duten migratzaile gazteri arreta emateko plana diseinatzea, planifikatzea, abian jartzea, horren jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- 🌈 Babesgabetasun egoeran dauden adingabe atzerritarren harrera koordinatzea eta horren jarraipena ematea, adingabeen esparruan eskumenak dituen Departamentuarekin elkarlanean.
- 🌈 Migratzaileentzako harrera etxeetarako hitzarmena kudeatzea eta izapidetzea eta horren jarraipena eta kontrola egitea.
- 🌈 Migratzaile zaurgarrien mentoretzan eta lagun-egitean oinarritutako programak koordinatzea eta horien jarraipena egitea.
- 🌈 Enplegu zerbitzuekin koordinatzea Nafarroan dauden migratzaileen enplegarritasuna hobetzeko.
- 🌈 Toki entitateen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren gainerako departamentuen lana koordinatzea migratzaileei eskaintzen zaizkien laguntzako eta bitartekaritzako prozesuak hobetzeko, instituzioen arteko elkarlanaren bidez.



- Bere eskumeneko dirulaguntza deialdiak kudeatzea, izapidetzea eta haien jarraipena eta kontrola egitea.
- Migratzaileei lagun-egite hobea egiteko beste edozein jarduketa.
- Bere helburuak egoki betetzeko, indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkioten beste batzuk, edo bere jarduketa eremuan agintzen zaizkionak.

Bestalde, *Ayllu-Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Zerbitzuak 226/2019 Foru Dekretuan* ezarritako eskudantziak erabiliko ditu honako arlo hauetan: Nafarroan dagoen aniztasun etniko eta kulturala kudeatzea, kulturarteko bizikidetzaren hobetzeko; arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzea; eta migrazioak eta migratzaileen eskubideak ikertzea, Nafarroako Gobernuak arlo horretan egiten dituen jarduketa politikak hobetzeko. Zehazki, **226/2019 Foru Dekretuaren** 14. artikuluan aipatutako erreforma egin ondotik zehaztutako funtzioak honako hauek dira:

- Nafarroako Kulturen arteko Bizikidetzaren Estrategia diseinatzea, planifikatzea, abian jartzea, horren jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Plana diseinatzea, planifikatzea, abian jartzea, horren jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- Kulturarteko bizikidetzarekin lotutako jarduerak kulturarteko bitartekotzarako zerbitzuarekin koordinatzea.
- Kultura aniztasunaren eta dibertsitatearen balio positiboak nabarmentzeko ekimenak bultzatzea, tokiko erakundeekin eta elkarteekin elkarlanean.
- Kulturarteko bizikidetzaren, gizarte aniztasuna eta migrazioak balioesteko eta horien gainean sensibilizatzeko ekintzak diseinatzea eta abian jartzea.
- Kulturarteko bizikidetzaren hobetzeko eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko neurriak koordinatzea, neurri horiek Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuetan garatzen direnean.
- Bere eskumeneko arloetako neurriak koordinatzea beste autonomia erkidego batzuekin eta Estatuko Administrazio Orokorrekin.
- Nafarroako Migratzaileen Foroa sortzea, antolatzea eta dinamizatzea.
- Bere eskumeneko dirulaguntza deialdiak kudeatzea, izapidetzea eta haien jarraipena eta kontrola egitea.
- Kulturarteko bizikidetzaren eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borroka hobetzeko beste edozein ekintza.



- Bere helburuak egoki betetzeko, indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkioten beste batzuk, edo bere jarduketa eremuan agintzen zaizkionak.

Migratzaileei harrera egiteari dagokionez Nafarroak duen eskumena eta Foru Administrazioaren esparruan hori gauzatzeko antolaketa egitura deskribatu ondoren, gogorarazi egin behar da Estatuari eta tokiko erakundeei dagokien zatia. Ildo horretan, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, Espainiako Konstituzioaren 149.2 artikulua Estatuari egozten diola immigrazioari, atzerritartasunari, asilo eskubideari eta herritartasunari buruzko eskumen eskusiboa.

Migrazio politikaren arloan, **urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren** 2. bis artikuluan, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzkoan, izandako erreformen ondoren (aurrerantzean, "ALO" edo "atzerritartasun legea" deituko zaio lege-erreferentzia horri), Konstituzioaren aipatu 149.1.2. artikuluan jasotako manua garatzen da. Hala, adierazten da Estatuari dagokiola "immigratio politika zehaztu, planifikatu, arautu eta garatzea, autonomia erkidegoek eta tokiko erakundeek beren gain hartzen ahal dituzten eskumenak alde batera utzi gabe".

Bada, arlo horiekin loturiko Estatuko eskumenak zenbait Ministerioren artean banatu izan dira: Barne Arazoetako Ministerioa; Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioa; Lan eta Ekonomia Sozial Ministerioa; Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioa. Hain zuzen, azken hori arduratzen da atzerritartasunari, immigrazioari eta emigrazioari buruzko Gobernuaren politika egiteaz eta garatzeaz, baita Migrazioen Estatu Idazkaritzaren (MEI) bidezko gizarteratze politikez ere.

Zehazki, migratzaileen integrazioarako politika MEIren mendeko Inklusio eta Arreta Humanitarioko Zuzendaritza Nagusiak gauzatzen du, honako helburu honekin: "atzerritarren erabateko integrazioa sustatzea Espainiako gizartean, askotariko identitate eta kulturarteko bizikidetzaren esparruan, Konstituzioarekiko eta legearekiko errespetuaz bestelako mugarik gabe". Zuzendaritza Nagusiak esleituta dituen funtzioen artean honako hauek jasotzen ditugu, Harrera Planarekin lotuta egoteagatik:

- "Migratzaileei arreta humanitarioa eskaintzeko programak eta salbuespenezko egoeretan presaz esku hartzeko programak planifikatu, garatu eta kudeatzea, autonomia erkidegoekin, tokiko erakundeekin eta erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan, hala badagokio.
- Ministerioko beste Departamentu batzuekin, autonomia erkidegoekin, tokiko erakundeekin eta erakunde publiko zein pribatuekin jarduketak hitzartzea migratzaileak, asilo-eskatzaileak, errefuxiatuak eta nazioarteko babesa jasotzen duten beste pertsona batzuk, aberri gabeak eta aldi baterako babesa duten pertsonak gizarteratzea sustatzeko".

Eskumen esparru horretan, eta gizarte kohesioa sendotzeko helburu nagusiarekin, Inklusio Ministerioaren orri ofizialean adierazten den moduan, *Herritartasun eta Integrazio Plan Estrategiko* (aurrerantzean, "HIPE") berri bat prestatzeko ari dira lanean. Planak, herritar guztiei zuzenduta dagoenak, aurreko Planen (*HIPE 2007-2010* eta *HIPE 2011-2014*) arrastoari eta printzipio zuzentzaileei jarraitzen die: berdintasuna, herritartasuna, kulturartekotasuna eta inklusioa bat datoz Harrera Plan



honetan jasotakoekin. HIPE berria migratzaileen eta Nazioarteko Babesaren eskatzaile eta onuradunen integrazioa sustatzeko programa esparrua izanen da.

Aipatutako Ministerio eta Idazkaritzekin batera, arlo honetan Estatu mailan garrantzitsua den beste organoetako bat MEIri atxikitako **Ministerio arteko Atzerriartasun Batzordea**¹⁷ da. Horren funtzioa "atzerriartasunaren, migrazioaren eta asiloaren tratamenduan eragina duten ministerio departamentuen proposamenak eta jarduketak aztertu, eztabaidatu eta horien berri ematea" da. Baita hartutako erabakiak eta Europar Batasunean nahiz nazioarteko beste erakunde batzuetan hasitako jarduketaren garapena ezagutzea eta horiek gurean duten eragina eta aplikazioa ebaluatzea ere.

27

Ministerioen arteko Atzerriartasun Batzordearekin batera, **Immigrazioko Hiruko Lan Batzordea** dago, hori ere MEIri atxikia. Batzorde hori Estatuko Administrazio Orokorren eta Estatuan ordezkariak handiena duten sindikatu eta enpresa erakundearen arteko etengabeko elkarriketarako organoa da, migrazio fluxuen kudeaketaren arloan.

Halaber, **Immigrazio Politikaren Kontseilu Gorena** dago. Horrek ALOren 68. artikuluan jasotako manuari erantzuten dio, Kontseilu hori eratzeari dagokionez, migratzaileak gizarteratzeko eta laneratzeko eskumenak dituzten administrazio publikoen jarduketak behar bezala koordinatzen direla ziurtatzeko, hau da: Estatuko Administrazio Orokorren, autonomia erkidegoetako administrazioen eta tokiko erakundearen jarduketak.

Immigrazio Politikaren Kontseilu Gorenak, batetik, ordezkariak du atzerriartasunaren, migrazioaren eta asiloaren trataeran eskumenak dituzten eta Atzerriartasunari buruzko Ministerio arteko Batzordea osatzen duten ministerio departamentuetan. Bestalde, autonomia erkidegoek ere parte hartuko dute, dagozkien Kontseilaritzen bitartez. Hirugarrenik, tokiko administrazioak ere Estatu mailan ezarpen handiena duten tokiko erakundearen elkarrekin ordezkariak du.

Azkenik, parte-hartze organikoari dagokionez, Estatuko instituzio nagusia **Migratzaileen Gizarte Integrazioarako Foroa** da, **ALoren 70. artikulua** arautzen duena. Migratzaileen integrazioaren arloko kontsulta, informazio eta aholkularitzarako organo gorena da Foro hori. Foroan parte hartzen dute administrazio publikoetako, migratzaileen elkarrekin eta migrazio arloan interesa eta ezarpena duten beste erakunde batzuetako ordezkariak, horien artean, ordezkariak handiena duten sindikatu eta enpresa erakundeak ere barne hartuz.

Bestalde, jada adierazi dugun bezala, Nafarroako migratzaileei egiten zaien harreraren, Foru Gobernuaz eta Estatuko Administrazio Orokorraz gain, tokiko erakundeek ere parte hartzen dute, eta horiek, besteak beste, Foru Administrazioarekin batera, harrera horri lotutako zenbait eskumenetan dihardute, hala nola gizarte zerbitzuetan, etxebizitzan eta enplegu politika aktiboetan.

¹⁷ 645/2002 Errege Dekretua, uztailaren 5koa, Ministerio arteko Atzerriartasun Batzordearen osaketa eta funtzionamendua arautzen duen abenduaren 1eko 1946/2000 Errege Dekretua aldatzen duena. 167. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2002ko uztailaren 13an.



Ildo horretan, gogoan izan behar da Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen **apirilaren 2ko 7/1985 Legearen** 25. artikulua arabera, Udalerriak, betiere, bere eskumen gisa, Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako legediaren arabera, besteak beste, honako arlo hauetan jardunen duela toki esparruan migratzaileen harreran:

-  Gizarte premia duten egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta.
-  Derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzen parte hartzea.
-  Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko ekintzak, baita genero indarkeriaren aurkakoak ere.
-  Hirigintza: planeamendua, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintzako diziplina. (...) Babes publikoko etxebizitzaren sustapena eta kudeaketa, finantza jasangarritasunerako irizpideekin.
-  Kirolaren eta kirol instalazioen nahiz aisialdirako instalazioen sustapena.
-  Kulturaren eta kultura ekipamenduen sustapena.

Horri gehitu behar zaio udalek "integrazio txostena" egiteko eskumena dutela, "errotze txostena" ere deitzen zaiona, baita etxebizitza egokitzeko eskumena ere familia birtaldekatzeko eskabideetan.

Beraz, deskribatutako eskumen banaketak esan nahi du autonomia erkidegoetako eta tokiko administrazioek inklusio eta harrera prozesuak beren gain hartzen dituztela, eta, aldi berean, arlo horretako politikak sustatzen dituztela, betiere Espainiako estatu osorako zehaztutako eskema orokorraren barruan, bai atzerriartasunari buruzko araudian, bai beste arau espezifiko batzuetan, hala nola hezkuntzan edo osasunean.

Apartatu honetan, berariaz komeni da nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen harrera aipatzea, Harrera Plan honetan ere jorratzen dena, haren erantzukizuna duten Administrazioei dagokienez.

Ildo horretan, Espainian nazioarteko babesaren harira erreferentziazkoa den araudia hartu behar dugu abiapuntu: **urriaren 30eko 12/2009 Legea**, asilo eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen duena. Horri, Europa mailan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko **"2013/33/EB Zuzentaraua** gehitu behar zaio, nazioarteko babesaren eskatzaileei harrera egiteko araudiak onesten dituen". Berrito joko dugu Zuzentarau horretara Europako araugintza esparruari buruzko apartatuan, Asilorako Europako Sistema Komun (aurrerantzean AESK) deritzonaren barruan.

Administrazio eskudunari dagokionez, gaur egun, Espainian, errefuxiatuei harrera egiteko sistemaren kudeaketa Estatuaren eskumenekoa da eta Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren, Migrazioen Estatuko Idazkaritzaren, Inklusio eta Arreta Humanitarioaren Idazkaritza Nagusiaren eta Nazioarteko Babeseko Programen Zuzendariordetza Nagusiaren bitartez jarduten da.



Aurrekoa alde batera utzi gabe, Foru Komunitateak jarduketa garrantzitsuak egin ditu errefuxiatuen harreran. Horren adierazgarri da Nafarroan errefuxiatuak hartzeko 2018ko Protokolo Integrala (gaur egun, eguneratze prozesuan dena). Protokolo horrek "talde eragile"¹⁸ bat sortu du, errefuxiatuak hartzeko prozesuak hobetzeko, eta arlo horretan inplikazioa duten administrazio eta gizarte eragileak koordinatzeko.

Gainera, garrantzitsua da kontuan izatea Gobernu Zentralak, 2020ko udaberrian, Nazioarteko Babesaren eskatzaile edo onuradunen Harrera eta Integraziorako Programa Soziala deszentralizatuko zuela iragarri zuela 2020ko udaberrian. Beraz, posible da laster autonomia eskumena izatera igarotzea. Edozelan ere, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak (JAN), 2021eko ekainaren 24ko 378. epaian, ezarri zuela asiloaren eskumena eta, batez ere, lehen harreraren eskumena, Estatuarena dela. Hala, bada, JANen erabakiak partzialki baino ez du onartzen Kataluniako Generalitatak sustatutako administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Integrazio eta Laguntza Humanitarioko Zuzendaritza Nagusiak 2019ko apirilaren 1ean emandako ebazpenaren aurkakoa. Ebazpen horren bidez, dirulaguntzetarako deialdia egin zen Nazioarteko Babesaren Arloan eta Ceutako eta Melillako Migratzaileen Aldi Baterako Egonaldirako Zentroetako Laguntza Soziosanitariorako, lehen harrerari loturiko ekintzak indargabetu gabe utziz.

Plan hau prestatzen den datan ez denez ezagutzen sententzia horren inpaktua zein den, ziurgabetasun une batean gaude aipatu Harrera Programaren deszentralizazio aurreikuspenari dagokionez; halaber, gai honen egoerari buruzko desinformazioa ere egon da.

¹⁸Eskubide Sozialetako Departamentuaren gidaritzapean, honako hauek hartu dute parte Protokoloa prestatzen: Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusiak, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak hartu eta integratzeko programa kudeatzeko Nafarroan kreditatuta dauden erakundeek, Nafarroako Udak eta Kontzejuen Federazioak (NUKF), errefuxiatuen presentzia duten udalek, "Harrera Hiria" herritar plataformen ordezkariak eta protokoloaren xede den gaiari loturiko erakundeek, baita errefuxiatu batek ere.



1.3.2. Migratzaileen harrerarako Nafarroako araugintza esparrua.

Harrera Plan hau egin aurreko diagnostikoan egiaztatu zen bezala, ez dago migratzaileen harreratzat ulertu behar denari buruzko definizio juridiko garbirik, erreferentzia gisa balio duenik. Hain zuzen ere, ez da halako definiziorik aurkitzen Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan bertan, ezta **apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuan**¹⁹ ere.

Hala ere, bada migrazioen kudeaketari eta migratzaile eta errefuxiatuen harrerari buruzko erreferentzia esparru juridiko bat, Plan honetan zehaztu den bezala. Plan horrek, aldi berean, haren araugintza oinarri gisa balio du, eta jarraian azalduko dugu.

30

1.3.2.1. Migratzaileen eskubideak eta askatasunak.

Migratzaileen harrera, Plan honetan ulertzen den bezala, zuzenean dago erlazionatuta pertsona horien oinarritzko eskubideekin, hala nola hezkuntzarekin, osasunarekin, etxebizitzarekin eta abarrekin. Aurrekoari lotuta, Harrera Plan hau giza eskubideetan oinarritutako erkidego mailako migrazio politikaren zati da. Horregatik guztiagatik, egokia da Plan honen araugintza esparruaren hasieran, atzerritarrek Espainian dituzten funtsezko eskubide eta askatasunen araubide juridikoko funtsezko elementuak azaltzea.

Abiapuntua Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (aurrerantzean, "GEAU") izanen da, honako hau adierazten duena:

"Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute". (1 art.)

Pertsona orok ditu Adierazpen honetan aldarrikatutako eskubide eta askatasunak, inolako bereizketarik gabe arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste edozein, jatorri nazionala edo soziala, posizio ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza [...] dela-eta. (2 art.)

Pertsona orok du libreki zirkulatzeko eta bere egoitza Estatu bateko lurraldean aukeratzeko eskubidea. Pertsona orok du edozein herrialdetik irteteko eskubidea, baita norberaren herrialdetik ere, eta norberaren herrialdera itzultzekoa. (13 art.)

¹⁹ Apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, 4/2000 Lege Organikoa onartzen duena, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa, 2/2009 Lege Organiko bidez erreformatu eta gero. 2011ko apirilaren 30eko 103. EAOn argitaratua.



Horri dagokionez, eta Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoa aipatuz, gogoratu behar da giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea pertsona guztiei aplikatzen zaiela, inguruabar guztietan. Hau da, migratzaile guztiak, horien egoera administratiboa edozein dela ere, beste edozein pertsonaren giza eskubide berberen titularrak dira. Beraz, Estatuak migratzaileekiko betebeharrak dituzte, eta horien giza eskubideak errespetatu, babestu eta bete behar dituzte. Azken betebeharrak horretarako, hots, giza eskubideak errespetatzeko, neurri positiboak hartu behar dira eskubide horiek errealitate izan daitezen. Migratzaileen kasuan horrek esan nahi du, adibidez, osasun arreta, hezkuntza edo gizarte zerbitzuak eskuratzeko aukera bermatu behar zaiela. Hor kokatzen da Harrera Plan hau eta horretan jasotzen diren jarduketak.

Beraz, GEAU da atzerritarren funtsezko eskubide eta askatasunen arloko lege eta jarduketa politikoko guztiak doitu beharreko erreferentzia esparrua. Aipatu behar da Espainiak berretsi egin dituela Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Ituna, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena eta, European, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena ere.

Giza Eskubideen Nazioarteko Itun horietan parte hartzen duten estatuak, Espainiak bezala, bertan aldarrikatutako eskubideak erabili ahal izatea bermatzeko konpromisoa hartzen dute, inolako bereizkeriarik gabe arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste edozein, jatorri nazional edo sozial, egoera ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza direla-eta. Gogoan izan behar da nazioarteko baliabide horiek berdintasun printzipioa, bizitzarako eskubidea, asilorako eskubidea, adierazpen askatasuna eta kontzientzia askatasuna jasotzen dituztela, baina baita hezkuntzarako, etxebizitzarako, eta osasuna eta kultura eskuratzeko eskubideak ere, besteak beste.

Esan bezala, Harrera Plan honen xedea migratzaileen eskubide jakin batzuk (hezkuntza, gizarte zerbitzuak, etxebizitza, osasuna eta abar) bermatzeko neurriak hartzea da. Garrantzitsua iruditzen zaigu Espainian bizi diren atzerritarren oinarritzko eskubide eta askatasunen esparru orokorrean sakontzea, duten egoera administratiboa edozein dela ere.

Bada, panorama hori Konstituzioak eskaintzen du, horren harira Konstituzio Auzitegiaren (aurrerantzean "KA") doktrina konstituzionalean eta ALOan azaldutakoarekin.

Ilido horretan, EKaren 13.1. artikulua honako hau esaten du: "Atzeritarrek titulu²⁰ honetan bermatzen diren askatasun publikoak izanen dituzte Espainian, tratatuetan eta legean ezartzen diren moduan."

Beraz, Espainiako atzeritarrek gure ordenamendu juridikoan dituzten oinarritzko eskubide eta askatasunen analisia zenbait mailatan egin behar da. Lehenik eta behin, gure Konstituzioan jasotakoetatik abiatu behar dugu (13.1, 10.1 eta 2 artikulua, eta zehazki eskubide eta askatasun horiek ematen dituzten artikuluen hitzez hitzeko edukia). Atzeritartasunaren Legea eta nazioarteko

²⁰ "Oinarritzko eskubideak eta betebeharrak" deritzon I. tituluari buruz ari da.



tratatueta ere jo behar dugu (Konstituzioaren 13. artikulua horrek berak igorrita) baita, azkenik, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara ere.

Gogoratu behar da KAK interpretazio bat egin zuela azaroaren 23ko 107/1984 Epaian, Espainian atzeritarrek dituzten eskubideen titulartasunari eta erabilerari buruz. Horren arabera, hiru eskubide kategoria daudela baieztatzen ahal da: espainiarrei eta atzeritarrei dagozkien eskubideak (haien erregulazioak berdina izan behar du bi kasuetan); beste eskubide batzuk, berriz, itunetan eta legeetan xedatutakoaren arabera izanen dituzte, ala ez, atzeritarrek eta desberdinak izaten ahal dira Espainiako pertsonen eta atzeritarren erregulazioan; eta atzeritarrek inolaz ere ez dituzten eskubideak daude.

32

Eskubideen lehen kategoriaren edukia azaroaren 23ko 115/1987 Konstituzio Auzitegiaren epaiak jorratzen du, eta hor sartzen dira "giza duintasuna bermatzeko ezinbestekoak direnak", besteak beste, bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako, intimitaterako, askatasun ideologikorako eta abarrerako eskubidea. Kategoria honetan tutoretza judizial eraginkorra ere sartzen da (EKren 24.1 art.), baita norbanakoaren askatasuna ere (EKren 11. art.).

Bigarren kategoria horretan sartzen diren eskubideak, aipatutako **azaroaren 23ko KAE 107/1984ren** arabera, "itunetan eta legeetan xedatutakoaren arabera izanen dituzte, ala ez, atzeritarrek, eta onargarria izanen da espainiarrekiko tratu desberdintasunak egotea eskubide horietan jarduteko orduan". Eskubide horiek atzeritartasun legearen I. tituluan (atzeritarren eskubide eta askatasunak) jasotakoak dira.

Zehazki, lege horren 3.1 artikuluan arau orokor bat ezartzen da; horren arabera, "atzeritarrek Konstituzioaren I. tituluan aitortutako eskubide eta askatasunak izanen dituzte Espainian, Lege honetan eta eskubide horietako bakoitza arautzen duten legeetan ezarritako baldintzetan". Horretan, oinarritzko eskubide eta askatasunen erabilera modulatzeko da. Hori bai, atzeritarrek Espainiako lurraldean duen egoera administratiboa erregularra ala irregularra ote den hartzen da abiapuntutzat, eskubide eta askatasunak erabat erabili ahal izateko. Eta halaxe azaltzen da Hitzaurrean: "Espainian legearen dauden atzeritarren eskubide eta berme guztiak betetzen direla ziurtatzen da". Aurrekoaren ondorioz, egoera irregularrean dauden atzeritarrek hezkuntzarako eta osasunerako eskubidea dute (mugekin), baita oinarritzko gizarte zerbitzuetarako, elkartzeko, manifestatzeko, elkartzeko, sindikatatzeko eta greba egiteko eskubidea ere.

Hirugarren eskubide kategorian, hau da, espainiarrei soilik egozten zaizkien eskubideen kasuan, bi azpikategoria bereizi behar dira. Alde batetik, EKren 23. artikuluan eskubide politikoei dagokienez ezarritakoa dago, hala nola bozkatzeko eskubidea eta funtzio eta kargu publikoak eskuratzekoa. Horiei dagokienez, 13.2. artikulua, hitzez hitz, Espainiako pertsonen "bakarrik" esleitzen dizkie, eta, hala, atzerriko nazionalitateko pertsonen mugatuta geratzen zaie. Nabarmendu behar da eskubide hori geroago hobeki zehaztu dela, kasu jakin batzuetan atzeritarrek udal hauteskundeetan bozkatzen ahalko baitute.

Bestalde, EKak Espainiako herritarrei esleitzen dizkien eskubideak daude, baina botere legegileak atzerriko nazionalitatea duten pertsonetara ere zabaltzeko oztoporik gabe. Atzeritarrei dagokienez,



eskubide ez-konstituzionalak dira, eta 13.1 artikuluan ez da gutxieneko gunerik ezartzen; halaber, lege edo itunetan Espainiako nahiz atzerriko pertsonentzat modu berean edo desberdinean araututa egoten ahal dira. Horien artean daude gizarte eskubideak: osasunerako eskubidea, gizarte babeserako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea eta abar. Espainiako herritarrentzako eskubide subjektibo legitimoak izan gabe ere, atzeritarrei zabaltzen ahal zaizkie itunen edo legearen bidez, eskubide horietan jardutea pertsona guztientzako berdin edo desberdin arautuz.

Atal hau amaitu aurretik, azpimarratu behar da EKren 13.1 artikulua atzeritartasunari buruzko legedian garatu dela, baina legedi horrek, nahiz eta atzeritar guztientzat aplikagarria dela adierazi, ez duela agortzen atzeritarren araubide juridikoaren araudi osoa gure ordenamenduan, lege hau ez baitaie aplikatzen hirugarren herrialdeetako pertsona nazional jakin batzuei, jatorriaren arabera edo Espainian egiten dituzten jardueren arabera. Hori gertatzen da nazioarteko babesaren eskatzaile edo onuradunei aplikagarri zaien aipatu araudiarekin, edota Europar Batasuneko herritarren eta horien senideen araubidea arautzen duenarekin.

Aipatu behar da, halaber, Harrera Planarekin lotura handiena duten eskubide zehatzei dagokienez (osasuna, hezkuntza eta abar), Plana egin aurreko diagnostikoan, eskubide horiek migratzaileei aitortzearen azterketa ageri dela, bai estatuko legedi aplikagarrian (atzeritartasuna eta dagokion legedi sektoriala), bai foru araudian. Horregatik, bikoizketak saiheste aldera, diagnostikoan gai honen inguruan egindako analisi xehakatur hartuko dugu erreferentziazat, errepikatzea komeni dela jotzen diren kasuak alde batera utzi gabe.

Horri dagokionez, azpimarratu behar da analisi horretatik ondorioztatzen dela Nafarroak urrats garrantzitsuak eman dituela migratzaile eta errefuxiatuei eskubideak aitortzeko ikuspegia gauzatzen, egoitza materialean eta pertsonak Foru Komunitatean modu eraginkor eta egonkorrean egoteko duen borondatean oinarrituta, eta bertan parte hartu nahi duenari, egoera administratiboa erabakigarria izan gabe. Hori guztia, atzeritartasunari buruzko legediak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak ezarritako mugak alde batera utzi gabe. Eskubideen ikuspegi horren adibide dira osasun laguntza eta errenta bermatua, Nafarroan egoera irregularrean dauden pertsonen printzipioz horiek eskuratzeko eskubidea baitute.

1.3.2.2. Migratzaileen harrerari aintzat hartu beharreko nazioarteko eta Europako araudia.

Estatuko eta erkidegoko mailaz gainera, migratzaile eta errefuxiatuen harrerari dagokion orotan, nazioarteko araudiak ere esku hartzen du, batez ere giza eskubideei eta Europako araudiari dagokienez.

Nazioartean, aipagarriak dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta jada aipatu ditugun giza eskubideen arloko nazioarteko itun nagusiak: Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Ituna; eta, azkenik, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena. Europa mailan, nabarmentzekoa da Giza Eskubideen



Europako Hitzarmena. Gainera, aipatzekoak dira Nazio Batuen Asanblada Orokorraren zenbait Ebazpen, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen (aurrerantz, LANE) Hitzarmenak, esanguratsuak baitira migratzaileen eta errefuxiatuen Nafarroako harrerarako.

LANEren esparruan, nabarmentzekoa da 97. *Hitzarmena, langile migratzaileei buruzkoa (berrikusia), 1949koa*, Espainiak 1967ko martxoaren 21ean berretsi zuena. Hori lan arrazoiengatik emigratzen duten langileei aplikatzen zaie, eta emakumeen eta gizonen migrazioak gertatzen diren baldintzak arautzeko zenbait xedapen ditu, hainbat alderditan tratatu berdintasuna bermatzeko.

Bestetik, LANEren 143. *Hitzarmena ere badugu, langile migratzaileei buruzkoa (xedapen osagarriak), 1975koa*. Horrek enpleguan langile migratzaile guztien oinarritzko giza eskubideak errespetatzeko betebeharrak ezartzen ditu, baita migrazio klandestinoak eta migratzaileen lege kanpoko erabilera hauteman eta desagerrarazteko beharrezko neurriak hartzeko betebeharrak ere. Halaber, hitzarmen horren artikuluetan, "harrera" terminoaren definizioa jasotzen du. Dena den, Espainiak ez du oraindik hitzarmen hori berretsi eta, horregatik, Espainiarentzako ez da loteslea.

Bi hitzarmen horiekin batera, aipatzekoak dira *Langile migratzaileei buruzko gomendioa (berrikusia), 1949koa (86. zk.-a)* eta *Langile migratzaileei buruzko gomendioa, 1975koa (151. zk.-a)*. Horiek ere LANErenak dira eta izaera loteslerik gabeko jarraibideak dira.

Nazio Batuen esparruan, bi baliabide nabarmentzen dira. Batetik, *bizi diren herrialdeko nazionalak ez diren pertsonen giza eskubideei buruzko adierazpena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1985eko abenduaren 13ko 40/144 Ebazpenean hartutakoa*, loteslea ez dena. Bestetik, *Langile migratzaile guztien eta horien senideei eskubideak babesteari buruzko nazioarteko konbentzioa, Batzar Nagusiak 1990eko abenduaren 18ko 45/158 Ebazpenean onartua*, Espainiak oraindik berretsi ez duena.

Europako eskualde eremuan, *Giza eskubideen Europako Batzarraz gainera, nabarmentzekoa da Langile Migratzaileen Estatutu Juridikoari buruzko Europako Hitzarmena, Estrasburgon egin zena 1977ko azaroaren 24an²¹* eta Espainian 1983az geroztik indarrean dagoena.

Edozelan ere, Hitzarmena lan baimena eta lanpostua dutenei bakarrik aplikatzen zaie. Horregatik, Harrera Plan honetan jasotzen diren egoeretako asko Hitzarmenaren eremutik kanpo geratzen dira. Hori alde batera utzi gabe, 10. artikuluan "harrera" terminoari ematen zaion definizioa erreferentziatuz erabiltzen ahal da. Zehazki, definizio horrek, langile migratzaileek eta beren familiek iristean eskubidea duten beste elementu batzuen artean, honako hauek jasotzen ditu:

-  Informazio eta gomendio egoki guztiak, baita beren ezarpen eta onarpenerako beharrezkoa den laguntza guztia ere.
-  Harrera estatuaren gizarte zerbitzuen eta erabilera publikoko erakundeen laguntza eta arreta.

²¹ Berrespen baliabidea, 1980ko apirilaren 29koa, Langile Migratzailearen Estatutu Juridikoari buruzko Europako Hitzarmenarena, 1977ko azaroaren 24an Estrasburgon egin. 1983ko ekainaren 18ko 145. EAOn argitaratua.



- 🌍 Jatorrizko estatuko kontsultxeetako agintariek emandako laguntza.
- 🌍 Enplegu zerbitzuen arreta eta laguntza.
- 🌍 Bere aitorenari dagokion gurtza egiteko askatasuna. Estatu Alderdi bakoitzak, eskura dituen baliabideen artean, gurtza egiteko aukera emanen die.

Halaber, aipatzen da Estatu Alderdi Kontratatzaile bakoitza, egoerak hala eskatzen duenean, gizarte zerbitzu bereziak bermatzen ahaleginduko dela, langile migratzaileen eta beren familien harrera errazteko eta koordinatzeko. Harrerari buruzko artikuluan jasotakoaz gainera, Hitzarmenak beste alderdi batzuk ere jasotzen ditu, hala nola etxebizitza eta osasun laguntza eskuratzea.

35

Europar Batasunaren eremura igaroz, gogoan izan behar da funtsezko helburuetako bat Europa mailako immigrazio politika globala izatea dela. Europar Batasuneko erakundeek arlo horretan duten eskumenaren oinarri juridikoa Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 79. eta 80. artikulua (aurrerantzean, EBFT) dira.

Migratzaileen harrerarekin duen loturarengatik, nabarmentzekoa da Tratatuaren 79. artikulua 4. apartatua. Horren arabera, integrazio politikak Estatuaren eskumen eksklusiboa dira eta ez da jasotzen Estatuaren lege eta araudiak harmonizatzea EBko herrialdeen artean gai honetan.

Baina, "2007an Lisboako Ituna"²² onetsi ondoren, Europar Batasunak Estatuak abian jartzen dituzten integrazio politikak sustatu eta aldeztu ahal ditu, batez ere, finantza baliabideen bidez. Zehazki, Estatuaren integrazio politikak aldezteko finantzaketa baliabide bereziak "Asilo, Migrazio eta Integrazio Funtsean –AMIFean–" eta "Europako Gizarte Funtsean –EGF–" oinarritzen ziren. 2021az geroztik, urte anitzeko finantza esparru –UAFE– berrian, finantzaketa baliabide horiek AMIF eta EGF+ funtsetan kokatzen dira.

Bestalde, gogoan izan behar da Batasunak ahalmena duela hirugarren herrialdeetako herritarrak Estatu kide batean sartu eta legezko egoitza izateko baldintzak ezartzeko, baita familiak birtaldekatzeari dagokionez ere. Horrek eragina du egoitza edo lan baimenak eskuratzeko eta berritzeko baldintzak zehaztean. Migratzaileen inklusiorako funtsezko elementua izaki, eta Espainian atzerriartasun legedian araututa dago, erkidegoko araudiari jarraikiz.

Illo horretan, Estatuaren eta EBko erakundearen artean immigrazio esparruan azalduko eskumen banaketa aintzat hartuta, maila komunitarioan indarrean dauden lege baliabideetako batzuk azalduko ditugu, jorratzen duten gaiarengatik, migratzaileen Nafarroako harreraren inpaktu handiena izaten ahal dutenak. Errepikatu behar da migrazio arloko Europako legedia Espainian aplikatzeko dela, bai Estatu mailan eta bai erkidego mailan. Aurrekoari jarraikiz, **NFEBHLOK** berak, 68.4 artikuluan, honako hau adierazten du: "Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumenen esparruan, Europar

²² Lisboako Ituna, Europar Batasunaren Tratatu eta Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu aldatzekoa (2007/C 306/01). Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala (2007/12/17).



Batasuneko Zuzenbidea aplikatu, betearazi eta garatzen du", eta horixe gertatzen da harreraren kasuan. Honako lege baliabide komunitario hauek nabarmentzen dira:

-  **Kontseiluaren 2000/43/EE Zuzentaraua**, ekainaren 29koa, arraza edo etnia arrazoiengatik bereizkeriaren aurkako borrokari buruzkoa.
-  **"Kontseiluaren 2009/50/CE Zuzentaraua**, maiatzaren 25ekoa, hirugarren herrialdeetako nazionalen sarrera eta egoitza baldintzei buruzkoa, prestakuntza handiko enplegu xedeetarako.
-  **"Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/98/EB Zuzentaraua**, 2011ko abenduaren 13koa, baimen bakar bat eskatzeko prozedura bakar bat ezartzen duena, zeinak hirugarren herrialdeetako nazionalak baimena ematen dien estatu kide bateko lurraldean egoteko eta lan egiteko, eta estatu kide batean legalki bizi diren hirugarren herrialdeetako langileentzat eskubide komun batzuk ezartzen dituen".
-  **"Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/36/EB Zuzentaraua**, 2014ko otsailaren 26koa, "hirugarren herrialdeetako nazionalen sarrera eta egonaldi baldintzak arautzen dituen, sasoikako langile gisa lan egiteko".
-  Europar Batasunean iraupen luzeko egoiliarak diren hirugarren herrialdeetako nazionalen estatutua 2003ko azaroaren 25eko **Kontseiluaren 2003/109/EE Zuzentaruak** arautzen du. 2011n aldatu egin zen, bere aplikazio eremua errefuxiatuei eta nazioarteko babesaren beste onuradun batzuei ere hedatzeko.²³
-  **Kontseiluaren 2003/86/EK Zuzentaraua**, 2003ko irailaren 22koa, familiak birtaldekatzeko eskubideari buruzkoa".
-  **"Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko apirilaren 5eko 2011/36/EB Zuzentaraua**, gizakien salerosketaren prebentzioari eta borrokari eta biktimen babesari buruzkoa (...)"
-  **Kontseiluaren 2004/81/EK Zuzentaraua**, 2004ko apirilaren 29koa", agintari eskudunekin lankidetzan aritzen diren eta gizakien salerosketaren edo legez kanpoko trafikoaren biktima diren pertsonen egoitza baimena ematea aurreikusten duena.
-  **"Itzulerako zuzentaru" gisa ezagutzen dena "(2008/115/EK) Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena**, 2008ko abenduaren 16koa", "egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako nazionalak itzultzeko estatu kideetako arau eta prozedura komunak" jasotzen dituen.

²³ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/51/EB Zuzentaraua, 2011ko maiatzaren 11koa, Kontseiluaren 2003/109/EK Zuzentaruak aldatzen duena, horren aplikazio eremua nazioarteko babesaren onuradunei ere hedatzeko.



🌍 "2009/52/CE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko ekainaren 18koa, egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako pertsonen enplegua ematen dietenei aplikatu beharreko zehapen eta neurriei buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen" ²⁴.

Bestalde, nabarmentzekoa da, atzerritarren integrazioaren eremuan Europar Batasunaren legea eskumena mugatua denez, eremu honetan azpimarratzen ahal diren baliabide esanguratsuenak ez direla hainbeste legeak, politikoak baizik. Hau da, Estatu kideen arteko adostasunetik sortutako testuak, Europako herritarrekiko tratatu berdintasuna bermatzeko eta diskriminazioaren aurka egiteko helburua dutenak. Testu horiekin batera, ondorengo Zuzentzarauak onetsi dira, eta "Europako integrazio politika" deritzoguna osatzen dute.

37

Aurrekoa kontuan hartuta, eta apartatu hau arau esparruari buruzkoa denez, hemen politika horren mugarri garrantzitsuenetarikoa batzuk baino ez ditugu aipatuko, eta esparru politikoari eta estrategikoari buruzko apartatua gauzatu diren itun, plan eta estrategia nagusietan sakonduko dugu.

Aurrekoaren harira, lehenik eta behin, 2003an Tesalonikan izandako Europako Kontseilua nabarmentzea komeni da. Horretan, Europar Batasuneko Estatu eta Gobernu burutzek adostu zuten garrantzitsua dela migratzaileak Batasunaren esparruan integrazteari buruzko lankidetzako, esperientzia trukatzeko eta informazioa trukatzeko programak egitea, elkarrengandik ikasteko. Akordio horren ondorioz, Europako Batzordeak, 2004ko azaroan, **Politikak prestatzeko arduradunentzako eta profesionalentzako integrazioari buruzko eskuliburua** aurkeztu zuen. Horren helburua "integrazioari buruzko Europako esparru koherente bat sortzea sustatzea da, esperientziak eta informazioa trukatzea erraztuz". Eskuliburuaren azken edizioa 2010. urtekoa da eta, besteak beste, jardunbide egokien eta gomendioen multzo bat jasotzen du honako gai hauei buruz: European informazioa eta jardunbide egokiak trukatzea; hedabideak eta integrazioa; migratzaileen gaikuntza eta sentsibilizazioa; elkarriketarako plataformak; nazionalitatea eskuratzea eta herritartasun aktiboan jardutea; gazte migratzaileak, hezkuntza eta lan merkatua.

Harreraren eremuan, Eskuliburuak ondorioztatzen du Europar Batasuneko estatu kideetako administrazioen harrera programek "hiru osagai nagusi izaten dituztela: hizkuntza irakastea, gizarte orientazioko ikastaroak eta lanbide heziketa" ²⁵.

Bestalde, Europako Kontseiluak Europar Batasunean askatasun, segurtasun eta justiziarako gune bat sortzeko buruz hartutako hurrengo programek eragin handia izan dute European migrazioaren arloko politikaren aplikazioan. Ordena kronologikoan, Tampere (1999), Haga (2004) eta Stockholm (2009) programak dira.

²⁴ Onartutako Zuzentzarauen zerrenda osoa honako esteka hauetan kontsultatzen ahal da: https://www.europarl.europa.eu/ftu/pdf/es/FTU_4.2.3.pdf eta EBko legedi-bilatzailerik ofiziala [hemen](#)

²⁵ 10/2010 Legea, maiatzaren 7koa, immigratuen eta Kataluniara itzultutako pertsonen harrerari buruzkoa. Kataluniako Generalitatearen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (5629. zk.-a) 2010eko maiatzaren 14an eta EAOn (139. zk.-a) 2010eko ekainaren 8an.



Zehazki, Europako Kontseiluak Hagako programan askatasun, segurtasun eta justiziarako gune bat indartzeko ezarritako lehentasunei jarraikiz, Kontseiluak, 2004ko azaroan, "Funtsezko Printzipio Komunak" –aurrerantzean, FPKak– onetsi zituen, Europako esparru komuna sortzeko hirugarren herrialdeetako herritarrak integartzeko. Horiek 10 urtez EBn integartzeko eremuan lankidetzat politikorako esparrua osatu dute. Horiek guztiak garrantzitsuak diren arren aintzat hartu beharreko aurrekari gisa, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- 🌍 "Herrialde batek aurrera eramatea erabakitzen duen ekintza orok genero ikuspegia izan beharko du, eta gazteriaren egoera zehatza aintzat hartu beharko du".
- 🌍 "Integrazioa migratzaileak eta Europako herrialdeetako biztanleak elkarri doitzeko bi norabideko prozesu dinamikoa da".
- 🌍 "Enplegua eta harrera gizartearen hizkuntza, historia eta erakundeak oinarrian ezagutzea ezinbestekoak dira integrazioarako". Hortaz, migratzaileei oinarritzko ezagutza hori eskuratzeko gaikuntza eskaintzea ezinbestekoa da integrazioa arrakastatsua izanen bada.
- 🌍 "Migratzaileak erakundeetara eta ondasun eta zerbitzu publiko nahiz pribatuetara sartzea, herritar nazionalen baldintza beretan eta bereizkeriarik gabe, ezinbesteko baldintza da behar bezala integratzea lortzeko".

Bestalde, jada aipatu dugun Lisboako Itunak, 2007koak, immigrazio politika komuna garatzeko oinarriak zehazten ditu, migrazio fluxuak behar bezala kudeatzea bermatzeko helburuarekin. Asmo handiko helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da, Europa mailan, Estatu kide guztietako asilo eta immigrazio politikak homogeneizatzea bideratutako neurriak hartzea. Baina politika honen helburua ezin da mugatu migratzaileen sarrera fluxuen kudeaketa administratibo hutsa egitera. Politika erkide horrek bidezko tratua bermatu behar die Europa solidarioaren esparruan legeztatu kideetan bizi diren hirugarren herrialdeetako pertsona nazionalak, baita legeztatu kanpoko immigrazioari eta gizakien salerosketari aurre egiteko prebentzioa eta borroka ere. Azpimarratu behar da, hala ere, diagnostikoan adierazi bezala, Lisboako Itunak esparru juridikoa eskaintzen duela 2007an, hirugarren herrialdeetako pertsona nazionalen integrazioaren kontzeptua Europako erakundeek lantzen ahal izan dezaten, baina kontzeptu hori ez dago berariaz lotuta harreraren ideiarekin.

Esparru horretan, eta aurrekariak abiapuntu hartuta (aipatutako Tampereko eta Hagako Programak), Europako Kontseiluak "Stockholmeko Programa" deritzona onartu zuen 2009ko abenduan. Programa horrek Europar Batasunaren –EBren– lehentasunak ezartzen ditu askatasun, segurtasun eta justiziarako guneari dagokionez 2010-2014 aldian zehar. Programa berriak bost lehentasun ezartzen ditu, eta horien artean, "Eskubideen Europa" delakoa nabarmendu behar da. Aniztasuna errespetatzen duen gunea izan behar da Eskubideen Europa, pertsona talde zaurgarrienak babestu (haurrak, gutxiengo etnikoak, indarkeriaren biktimak eta abar) eta arrazismoari eta xenofobiari aurre egiteaz gain. Eta "Elkartasunaren Europa" deritzonaren esparruan, orduan indarrean zen Immigrazioari eta Asiloari buruzko Europako Hitzarmena oinarri hartuta, EBk migrazio politika sakon eta malgua garatu behar du. Horrek EBko herrialdeen eta migratzaileen beharrak jorratu behar ditu.



Ildo horretan, nabarmentzekoa da EBk Estatu guztiak animatzen dituela migratzaileen eskubideak bermatzen dituzten integrazio politika biziak martxan jar ditzaten.

Aurrerago, 2011ko uztailan, Batzordeak **Hirugarren Herrialdeetako Nazionalak Integratzeko Europako Agenda** onetsi zuen, immigrazioak Europara ekartzen dituen abantaila ekonomiko, sozial eta kulturalak areagotzera bideratuta. Agendak azpimarratzen du migratzaileek erabat parte hartu behar dutela bizitza kolektiboaren alderdi guztietan, eta tokiko agintariek ezinbesteko zeregina dutela.

2014. urtean, Stockholmeko Programa iraungi zenean, hirugarren herrialdeetako herritarrak EBN integratzeko Europako esparru komuna eguneratzeko ahalegina egin zen. Ildo horretatik, nabarmendu behar da Europako Kontseiluak, EBFTren 68. artikuluari jarraikiz, 2014ko ekaineko ondorioetan zehaztu zituela 2014-2020 aldirako "askatasun, segurtasun eta justizia esparrurako datozen urteetarako lege eta ekintza programazioaren orientazio estrategikoak"²⁶. Kasu honetan, ez da programa bat, lehendik dauden baliabide juridiko eta neurriak transferitzera, aplikatzera eta finkatzera orientatutako jarraibideak baizik.

Jarraian, "2016ko abenduan, Kontseiluak eta estatu kideetako gobernuen ordezkariak zenbait **ondorio atera zituzten, EBN legalki bizi diren hirugarren herrialdeetako nazionalen integrazioari buruz**. Horietan, Estatu kideei honako ekintza hauek gauzatzeko gonbita egiten zaie:

-  Hirugarren herrialdeetako herritarren integrazioaren arloko jardunbide egokiak trukatzea;
-  Hobekuntzak integrazioaren jarraipenean eta ebaluazioan;
-  Hirugarren herrialdeetako nazionalen kualifikazio eta gaitasunak aintzatestea".²⁷

Hirugarren herrialdeetako nazionalen integrazioaren eremuko orientazio estrategiko berriak onestea, Europako Kontseiluaren 2020ko martxoko bilerarako aurreikusita zegoena, atzeratu egin zen koronabirusaren pandemia zela eta.

Bestalde, Asiloari eta Migrazioari buruzko EBko arauen erreforma orokorrako baten esparruan, 2020ko irailaren 23an Europako Batzordeak **Asiloari eta Migrazioari buruzko Europako Itun berria** proposatu zuen. Gainera, urte horretako bertako azaroan, Batzordeak **Integrazioaren eta Inklusioaren alorreko 2021-2027 Ekintza Plana** aurkeztu zuen. Horretan, esparru estrategikoa eta neurri praktikoak ezarri dira estatu kideei Batasunean legalki bizi diren hirugarren herrialdeetako 34 milioi pertsona nazionalen inklusio eta integrazioan laguntzeko, hezkuntzaren, enpleguaren, osasun laguntzaren eta etxebizitzaren arloetan. Hurrengo apartatuan bi baliabide horietan sakonduko dugu.

Orain asiloak eta nazioarteko babesak Europako arauetan duten tratamenduari buruz arituko gara.

²⁶ Europako Kontseiluaren ondorioak, 2014ko ekainaren 26a eta 27a. Brusela, 2014ko ekainaren 27a, (OR. en) EUKO 79/1

²⁷ Europar Batasunaren Kontseilua. 3508. saioa, 2016ko abenduaren 8an eta 9an egin zena. Brusela, 2016ko abenduaren 9a.



Arlo horretan, jada aipatutako Asilorako Europako Sistema Komuna (AESK) sortzeko markatutako helburua, 1999az geroztik, honako elementu hauek barne hartu behar dituen arau sorta batean zehaztu zen²⁸:

-  "Asilo estatutu uniformea;
-  Babes subsidiarioko estatutu uniformea;
-  Aldi baterako sistema komuna;
-  Asilo edo babes subsidiarioko estatutu uniformea emateko edo kentzeko prozedura komunak;
-  Eskabide bat aztertzeko ardura duen Estatu kidea zehazteko irizpide eta mekanismoak;
-  Harrera baldintzei buruzko arauak;
-  Hirugarren herrialdeekin elkarreak sortzea eta lankidetzan aritzea".

Honako hauek dira arauak:

-  "Dublin III: **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 604/2013 (EB) Erregelamendua**, 2013ko ekainaren 26koa, hirugarren herrialde bateko nazional batek edo aberrigabe batek estatu kideetako batean aurkeztutako nazioarteko babes eskabide bat aztertzeko ardura duen estatu kidea zehazteko irizpideak eta mekanismoak ezartzen dituen.
-  **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 603/2013 (EB) Erregelamendua**, 2013ko ekainaren 26koa, Eurodac sortzeari buruzkoa.
-  **Kontseiluaren 2001/55/EK Zuzentaraua**, 2001eko uztailaren 20koa, lekualdatuen etorrera handia dagoenean aldi baterako babesa emateko gutxieneko arauari buruzkoa, eta estatu kideen artean bidezko ahalegina sustatzeko neurriak, pertsona horiek hartzeko eta haien harreraren ondorioak beren gain hartzeko.
-  **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/95/EB Zuzentaraua**, 2011ko abenduaren 13koa, hirugarren herrialdeetako nazionalak edo aberrigabeak nazioarteko babesa jasotzen duten pertsona gisa onartzeari, errefuxiatuentzako edo babes subsidiarioa izateko eskubidea duten pertsonentzako estatutu uniformeari eta emandako babesaren edukiari buruzko arauak ezartzen dituen.
-  **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/32/EB Zuzentaraua**, 2013ko ekainaren 26koa, nazioarteko babesa emateko edo kentzeko prozedura erkideei buruzkoa.

²⁸ Alarcón, Noemí. Asilorako Europako Sistema Komuna (AESK) eta horrek Espainian duen aplikazioa. NAN, 4. zk.-a, 2017ko ekaina-abendua (ISSN: 2530-8521).



 **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/33/EB Zuzentaraua**, 2013ko ekainaren 26koa, nazioarteko babesa eskatzen dutenen harrerarako arauak onesten dituen.

 **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 439/2010 EE Erregelamendua**, 2010eko maiatzaren 19koa, Asiloari Laguntzeko Europako Bulegoa sortzen duena".

Aipatu behar da AESK laster aldatuko dela, asiloaren eta migrazioaren kudeaketaren ikuspegi globalari lagunduko dion esparru komuna ezartzeko; sistema migrazio presioarekin eraginkorragoa eta erresistenteagoa izateko; erakartze faktoreak eta bigarren mailako mugimenduak ezabatzeko; abusuen aurka borrokatzeko; eta estatu kide kaltetuenei laguntza handiagoa emateko.

41

Azken batean, Asilorako Europako Sistema Komunean aldaketak egonen dira eta horiek, ziurrenik, inpaktua izanen dute errefuxiatuen harreran ere; aldaketa horiek esku hartzen duten Administrazioek ezarri beharko dituzte. Aipagarria da, halaber, Migrazioaren eta Asiloaren Europako Itun berriak jasotzen dituen erreforma proposamen batzuek, eztabaida fasean egon arren, elementu kezagarriak dituztela Europaren kanpo mugetara iristen diren eta nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera baldintza duinen, asiloa eskatzeko prozedurara sartzeko bermeen eta abarren harira. Espero izatekoa da alderdi horiek zuzentzea azkenean onetsiko den itunaren bertsioan. Hori da giza eskubideekin konprometitutako Europa batekin bateragarria den aukera bakarra.

1.3.2.3. Migratzaileen harreran aintzat hartu beharreko Estatuak eta autonomia erkidegoko araudia.

Apartatu honi hasiera emateko, gogora ekarri nahi dugu Espainiako atzerritarren araubide juridikoa, beren eskubideak eta betebeharrak erabiltzeko oinarrizko baldintzak barne, Estatuak immigrazioaren eta atzerritartasunaren arloan duen eskumenaren arabera onetsitako atzerritartasunari buruzko legedian jasota dagoela. Legedia hori, nagusiki, atzerritartasun legeak eta horren Garapen Erregelamenduak, **apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak**²⁹,osatzen dute.

Edozelan ere, nabarmendu behar da legedia horrek ez duela jasotzen atzerritarren araubide juridikoaren gure ordenamenduko araudi osoa. Europar Batasuneko herritarrei eta horien senideei, edo nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunei, aplikatzen ahal zaien araudiaren kasua da hori.

Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako herritarren eta haien senideen kasuan, Europar Batasuneko araubidea aplikatzeko zaienean, Plan honen xede diren harrera jarduketan hartzaileak,

²⁹ Apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, 4/2000 Lege Organikoa onartzen duena, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa, 2/2009 Lege Organiko bidez erreformatu eta gero. 2011ko apirilaren 30eko 103. EAOn argitaratua.



jakina, beren beharren arabera, erreferentziazko araudia **otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretua**³⁰ da.

Gogoan izan behar dugu Europar Batasuneko araubidea aplikatzen zaien pertsonen, atzerritartasunaren araubide orokorra aplikatzen zaien pertsonen ez bezala, eskubidea dutela Espainiako lurraldean sartu, hortik atera, zirkulatu eta bertan askatasunez bizitzeko, aurreikusitako formalitateak bete ondoren. Gainera, edozein jarduera egiteko eskubidea dute, bai besteren kontura, bai beren kontura, baita zerbitzuak eman edo ikasketak egiteko eskubidea ere, nazionalitate espainiarreko pertsonen baldintza beretan (21 urtetik gorakoak eta beren kargura dauden aurrekoak izan ezik).

42

Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunei dagokienez, erreferentziazko araudia lehen aipatu dugun **urriaren 30eko 12/2009 Legea** da, asilo eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen. Araugintza garapenik ez duenez, indarrean dagoen erregelamendua aurreko legearena da: **Otsailaren 10eko 203/1995 Errege Dekretua**, asilo eskubidea eta errefuxiatu izaera arautzen dituen **martxoaren 26ko 5/1984 Legea** aplikatzeko Erregelamendua onartzen duena, **maiatzaren 19ko 9/1994 Legeak** aldatua.

Lege horren II. tituluan, II. kapituluan, 30.-33. artikulua nazioarteko babesaren eskatzaileen harrera baldintzei buruzkoak dira. Zehazki, adierazten da beharrezko gizarte eta harrera zerbitzuak emanen zaizkiela, baldin eta baliabide ekonomikorik ez badute, oinarritzko beharrak duintasun baldintzetan betetzen dituztela ziurtatzeko.

Harrera zerbitzuak, haien definizioa, erabilgarritasuna, programak eta zerbitzuak, bereziki nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzat, pertsona horien oinarritzko beharrei erantzuteko eskumena duen ministerioak zehaztuko ditu erregelamendu bidez. Harreran, nagusiki, Ministerio eskudunaren berezko zentroen eta gobernuz kanpoko erakundeen diruz lagundutako zentroen bitartez egiten da.

Bestalde, nabarmentzekoa da, legea onetsi eta hamarkada baino gehiago igarota, araugintza garapenik ez duenez, Kudeaketa Eskuliburu baten bidez ezartzen dela Nazioarteko Babeserako Harrera Sistemaren kudeaketa. Harrera Plan hau prestatzen zen datan indarrean zegoena 5.0 bertsioa zen, 2021eko ekainaren 1ean indarrean jarri zena. Bai Kudeaketa Eskuliburua eta bai horren aldaketak, Migrazioen Estatuko Idazkaritzaren edo arloari dagokion Zuzendaritza Nagusiaren Jarraibideen bitartez onesten dira.

Gainera, adierazi bezala, arlo honetan bereziki izan behar dira kontuan *Asiloko Europako Sistema Komuna (AESK)* osatzen duten Erregelamendu eta Zuzentarauak.

Halaber, azpimarratu behar da nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen harreraren arloko eskumena, gaur egun Estatuarena dena, autonomia erkidegoei eskualdatzea iragarri dela eta horrek,

³⁰240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko herritarrek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioari lotutako beste estatu batzuetako herritarrek Espainian sartu eta bizitzeari eta horien joan-etorri askeari buruzkoa. BOE, 51 zenbakia, 2007/02/28koa.



azkenean, esparru horretan aldaketa sakonak eraginen dituela; izan ere, ondorioz, Foru Komunitatea izanen da haien harreraren arduradun nagusia.

Bestalde, eta atzerriartasunari buruzko legera itzuliz, Espainiako atzerriarren araubide juridikoaren esparru orokorra den aldetik, bereziki garrantzitsuak dira ALO legearen 2 bis artikuluko 2. apartatuan zerrendatutako printzipioak, harrera plan horretatik eratortzen diren jarduketak gauzatu behar dituzten administrazioek kontuan har ditzaten; printzipio horietan oinarritu beharko dituzte administrazio publiko guztiek immigrazioari loturiko eskumenen jarduna. Honako hauek nabarmentzen ditugu:

-  "Europar Batasunak zehaztutako politikekin koordinatzea
-  Migratzaileen gizarteratzea, herritar guztiei zuzendutako zeharkako politiken bidez
-  Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra
-  Bereizkeriarik ezaren printzipioaren eraginkortasuna eta, ondorioz, Espainian legalki bizi edo lan egiten dutenentzat eskubide eta betebeharrak aitortzea, Legean aurreikusitako moduan
-  Konstituzioak, nazioarteko itunek eta legeek pertsona guztiei aitortzen dizkieten eskubideak erabiltzea bermatzea
-  Pertsonen legez kanpoko trafikoa jazartzea
-  Gizakien salerosketa jazartzea
-  Tratu berdintasuna laneko eta Gizarte Segurantzako baldintzetan"

Harrera Plan honetarako, aipatutako ALOren 2 ter artikulua –migratzaileen integrazioari buruzkoa– ere bereziki garrantzitsua da.

Aipatutakoaz gainera, artikulua horrek hau adierazten du: "administrazio publikoek migratzaileak eta gizarte hartzailea integratzeko helburua beren gain hartuko dute, politika eta zerbitzu publiko guztietan zeharka jasoz, eta migratzaileen parte-hartze ekonomiko, sozial, kultural eta politikoa sustatuko dute, Konstituzioan, Autonomia Estatutuetan eta gainerako legeetan ezarritako moduan, tratu berdintasuneko baldintzetan".

Zehazki, artikulua honela jarraitzen du: "prestakuntza ekintzen bidez, Espainiako Konstituzio eta Estatutu balioak, Europar Batasunaren balioak, giza eskubideak, askatasun publikoak, demokrazia, tolerantzia eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezagutarazten eta errespetarazten saiatuko dira, eta neurri espezifikoak garatuko dituzte hezkuntza sisteman barneratu daitezen, betiere derrigorrezko adinetan eskolatzea, hezkuntza ofizial guztiak ikastea eta enplegua eskuratzea bermatuz, kontuan izanik horiek guztiak integrazioarako funtsezko faktoreak direla".



Bestalde, Atzeritartasunari buruzko Araudiaren erreformari buruzko diagnostikoan³¹ adierazi zen hori, baita 2020. urtetik hona Migrazioen Zuzendaritza Nagusiak eman dituen jarraibideen zerrendan ere; horien bidez arautu eta aldatu dira atzeritartasuneko izapide batzuetarako irizpideak.

Erregelamenduaren Erreformari dagokionez, gogoratu behar da Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioak 2020an iragarritako promesetako bat dela, eta gaur egun martxan dagoela. Aldatu beharreko alderdien artean, eta espero izatekoa da migratzaileek eskubideak eskuratzeko eta bizimodu duina izateko duten inpaktu positiboagatik gauzatuko direla, egoitza edo lan baimenak lortzeko gaur egun eskatzen diren ekonomia eta lan irizpideak malgutzea adierazi da. Ildo horretan, aipatzekoa da zenbait urrats egin direla tutoretzapean dauden adin txikiko migratzaileei buruzko Erregelamenduaren erreforman, eta Espainiara familia erreferenterik gabe iristen diren adin txikiko migratzaileei buruzkoan. Azkenik onetsiko den testua kontuan hartu beharko da Plan hau aplikatzeari begira, ziurrenik inpaktua izanen baitu migratzaile gazteen harrerarekin erlazionatutako arloetan.

Estatutako araudia jorratzen amaitzeko, Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko araugintza esparrua aipatzea komeni da. Ildo horretan, azpimarratzekoa da, lehendabizi, **3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa**, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriako. Adibidez, Hiri politikei, lurralde antolamenduari eta etxebizitzari buruzko 31. artikuluan, honako hau ezartzen du: "Administrazio publikoek etxebizitza eskuratzearen arloan dituzten politika eta planek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa gauzatzeko neurriak jasoko dituzte".

Artikulu horrek, 3. apartatuan, honako hau ere adierazten du: "Administrazio publikoek, hiria diseinatzean, hirigintzako politiketan eta hirigintza plangintza zehaztu nahiz betetzean, kontuan hartuko dute genero ikuspegia; horretarako, bereziki, herritarren partaidetza eta gardentasuna suspertu eta ahalbidetzeko mekanismoak eta baliabideak erabiliko dituzte".

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriari buruzkoa, aipatzeaz gainera, ezinbestekoa da 1/2204 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzkoa, ere aintzat hartzea.

Autonomia erkidegoaren mailan, hasteko, adierazi behar da Nafarroak ez duela eman migratzaileak hartu edo integratzeko berariazko legerik (Kataluniak edo Valentziako Erkidegoak egin duten bezala); baina, jakina, foru araudia dago, Harrera Plan honekin duen loturagatik kontuan hartu behar dena eta ondoren aipatuko duguna.

Lehenik eta behin, esanguratsua da **15/2016 Foru Legea, azaroaren 11koa**, gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituenak. Lege honek bi eskubide sozial arautzen ditu: gizarteratze prozesurako eskubidea, administrazioak hura gauzatzeko ardura bere gain hartzea dakarrena; eta errenta bermatua jasotzeko eskubidea, oinarritzko beharrei aurre egiteko gaitasun ekonomikorik ez dutenentzako prestazio ekonomiko gisa, behar horiei erantzuteko".

³¹ [Nafarroan Harrera Inklusiboa sustatzen. Egoerari, erronkei eta aukerei buruzko parte-hartze diagnostikoa.](#)



Gizarteratzeko eskubidea, legearen 1.2 artikuluan zehazten den moduan, hau da: "erabateko eta egiazko gizarteratzera bideratutako laguntza eta lagun-egite pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, alderdi guztietan, halako moduan non pertsona guztiek izanen baitituzte aukerak eta behar diren bitartekoak bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean bete-betean parte hartzeko, eta Nafarroako gizarte osorako egokia den bizi eta ongizate mailaz gozatuko baitute".

Nafarroako administrazio publikoen erantzukizuna da eskubide hori bermatzea, arreta pertsonalizatua, iraunkorra eta integrala emanez, pertsonen beharren arabera eta haien egoeraz denen artean egindako diagnostiko objektibo eta integralean oinarrituta; baita eskubide horretaz baliatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatzea ere. "Eskubide honen titularrak", 2. artikuluari jarraikiz, "Nafarroan bizilekua izan eta gizarte bazterketako egoeran dauden pertsona guztiak izanen dira".

Nafarroan Errenta Bermatua jasotzeko eskubideari dagokionez, esan bezala, horren "izaera unibertsala" nabarmentzen da, izan ere, "hori eskuratzeko aukera ez zaio inori mugatzen bere egoera juridiko-administratiboa dela eta" (Hitzaurrea). Inguruabar hori nabarmentzekoa da, Nafarroa delako hala aurreikusten duen autonomia erkidego bakarra. Edonola ere, 5. artikuluan³² zehaztutako gutxieneko baldintza objektibo eta egiaztagarriak betetzearen baldintzapeko prestazioa da: adina, egiazki Nafarroako Foru Komunitatean bizitzea eta oinarritzko beharrei aurre egiteko gaitasun ekonomikorik ez izatea. Ildo horretan, eta aipatu bezala, Nafarroan gutxienez bi urte lehenagotik bizitzeko eskakizunak zailtasunak eragiten ahal ditu egoera irregularrean dauden pertsonen eskuratzeko orduan, pertsona horiek batzuetan oztopoak izaten baitituzte erroldatzeko (eta, hala, egoitza egiazki justifikatzeko), hain zuzen ere, erroldatzeko eskubidea eta betebeharra izan arren.

Bestalde, **15/2006 Foru Legea dugu, abenduaren 14koa, gizarte zerbitzuei buruzkoa**. 15/2006 Foru Legearen 4. artikuluan zehazten da, hain zuzen, atzerritarrak zein egoeratan izanen diren lege honetan ezarritako gizarte zerbitzuen sisteman sartzeko eskubidearen titular. Honako hauek dira:

-  "Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak, Nafarroako edozein udalerritan erroldatuta daudenak, eta bertan bizi diren atzerritarrak.
-  Nafarroan egonik, erbestera, errefuxiatuak edo aberrigabeak diren atzerritarrak, indarrean dagoen legediak eta nazioarteko itun eta hitzarmenek ezartzen dutenaren arabera, eta, halakorik ezean, elkarrekikotasun printzipioaren arabera.
-  Edozelan ere, Nafarroan larrialdi pertsonal eta pobrezia egoeran, zein larrialdi familiar edo sozialeko egoeran dauden pertsonen aukera izanen dute gizarte zerbitzuen sistemaren prestazioak eskuratzeko, egoera horri aurre egiteko. Egoera hori gizarte zerbitzuetako

³² 5. artikulua. Eskubidearen titularrak. Pertsonen Errenta Bermatua jasotzeko eskubidea erabiltzeko bete behar dituzten baldintzak ezartzen ditu.



profesionalek baloratuko dute, larritasunaren, prekarietatearen eta presazkotasunaren arabera".

Hau da, Gizarte Zerbitzuetako teknikariek balorazio sozialaren txostena egin ondoren, egoera irregularrean dauden eta Sistema honetako gizarte prestazioak eskatzen dituzten pertsonen prestazio horiek jasotzeko eskubidea erabiltzen ahalko dute, kasu bakoitzean laguntza emateko eskatzen diren baldintzen arabera.

Gainera, puntu honetan, ALOko 14.3 artikulua honela dio: "Atzeritarrek, beren administrazio egoera edozein dela ere, oinarritzko gizarte zerbitzu eta prestazioak jasotzeko eskubidea dute".

46

Oinarritzko prestazio horiek zein diren **Gizarte Zerbitzuen Erreferentziazko Katalogoan**³³ aurkituko dugu. Horretan, adierazten da autonomia erkidegoek, gutxienez, honako prestazio hauek eskaini behar dituztela beren gizarte zerbitzuen esparruan: "informazioa, orientazioa, aholkularitza, diagnostikoa eta balorazioa; autonomia pertsonala, etxeko laguntza eta familia atsedena; familiako esku-hartzea eta laguntza; adingabeekiko esku-hartzea eta babesak; bizileku arreta; gizarte prebentzioa eta gizarteratzea; eta babes juridikoa". Oinarritzotzat ezartzen diren prestazio ekonomikoen artean, honako hauek daude: "gizarteratzeko gutxienezko errenta; genero indarkeriaren biktimetazko laguntza; mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako prestazio ekonomikoak; eta beste prestazio ekonomiko batzuk".

Desgaitasunak dituzten pertsonen irisgarritasunari dagokionez, aukera berdintasuna bermatzeko, autonomia pertsonala hobetzeko, erabat gizarteratzeko eta herritar guztiek, batez ere desgaitasunak dituzten pertsonen, bizimodu independentea izateko, **Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea** jotzen dugu.³⁴

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa³⁵ onartzeak ikuspegia aldatzea ekarri zuen, errealitate hori kontzeptualizatzeko eta bideratzeko moduari dagokionez. Eta hori islatu egin da desgaitasuna giza eskubideetan oinarritutako arretarantz bideratutako laguntza eredu batetik jorratzeko moduan.

12/2018 Foru Legeak kontuan hartzen du desgaitasuna duten pertsonen eskubideak erabiltzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa, baita egungo arau xedapenak eta estrategiak ere, "pertsonen autonomia bermatuko duen, bereizkeria saihestuko duen eta pertsona guztien aukera berdintasuna bultzatuko duen gizarte inklusibo eta irisgarria lortzen..." aurrera egiteko. 12/2018 Legearen hitzaurreak berariaz aipatzen du irisgarritasuna ulertu egin behar dela, desgaitasuna duten pertsonenentzat ez ezik, bizitzako etapa jakin batzuetan zehar irisgarritasunaren onura hartzen duten edonorentzat ere bai. Irizpide honek Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Planean jaso

³³ Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa (2013).

³⁴ 2018ko ekainaren 22ko 120. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

³⁵ Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2006ko abenduaren 13an onetsi zuen eta Espainiako Estatuak 2007ko abenduaren 3an berretsi zuen. 2008ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean.



behar diren neurri asko jasotzen eta zeharkatzen ditu. Are gehiago, foru lege honen 4. artikuluan³⁶, Nafarroako gizarteak migratzaileei egiten dien harreraren eredia antolatzeke funtsezko faktoreak biltzen dituenean, ezarritako aplikazio eremua kontuan hartuta.

Aipatutako hiru foru legeekin batera, etxebizitza eskuratzea harrera egokia osatzen duten elementuetako bat dela jotzen denez, egokia da aipatzea, etxebizitza arloan, autonomia erkidegoko erreferentziazko araudia **10/2010 Foru Legea dela, maiatzaren 10ekoa, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa, baita 22/2016 Foru Legea ere, abenduaren 21ekoa, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean**. 17.7 artikuluan etxebizitza babestuen eskuratzeko baldintza orokorrak ezartzen dira, hala nola hau: "etxebizitzaren erosleak, esleipendunak, erabilera propiorako sustatzaileak, errentariak edo onuradunak legeko gaitasuna izan behar du bere burua behartzeko, eta Nafarroako udalerriren batean erroldatuta egon behar du".

Horri buruz, aipatzekoa da, Plan hau prestatu aurreko diagnostiko prozesuan egiaztatu zen moduan, etxebizitza babestua eta antzeko figurak izan arren, etxebizitza eskuratzea egiturazko arazoa dela, eta are nabarmenagoa dela hori migratzaileen kasuan. Eta hori, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean eskubide gisa onartuta egon arren.

Harreraren funtsezkoa den beste alderdi bat **Nafarroan osasun laguntza eskuratzea** da. Horren arloko araugintza esparruari dagokionez, diagnostikoan gai horren inguruan egindako analisia aipatzen dugu. Hala ere, laburpen gisa, azpimarratu behar da Foru Komunitateak, bere garaian, egoera irregularrean zeuden pertsonen osasun laguntza emateko neurriak antolatu zituela, eta neurri horiek, hain zuzen ere, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzko **apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-Dekretutik** kanpo geratu zirela.

Nafarroan osasun laguntza unibertsala bermatzeko onartutako neurriak ondoren ezeztatu egin zituen Konstituzio Auzitegiak, jotzen zuelako Estatuak arlo horretan duen eskumena urratzen zutela³⁷.

Ondoren, Estatu mailan **7/2018 Errege Dekretua, uztailaren 27koa**, Osasun Sistema Nazionalerako sarbide unibertsalari buruzkoa, onestearekin, osasun laguntza egoitzaren bidez jasotzeko eskubiderik ez dutenek osasun prestazioa eskuratzen ahalko dute hitzarmen berezi bat formalizatuz, dagokion kuota ordainduta. Laguntza hau erkidegoetako administrazioen funts publikoen kargukoa izanen da. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Estatuak osasun prestazio publikoa jaso ahal izateko ezartzen dituen hitzarmen berezietako prezio publikoen salbuespen bat ezartzea, honako

³⁶ Aplikazio eremuak, Nafarroaren eskumen esparruari jarraikiz, honako eremu hauek hartzen ditu: a) gune publiko urbanizatuak, azpiegiturak eta eraikuntza; b) garraioak; c) komunitateak eta informazioaren gizarteak; d) jendearen eskura dauden produktuak eta zerbitzuak; e) Administrazio Publikoekiko harremanak; f) Justizia Administrazioa; g) Kultura Ondarea; h) kultura jarduerak, kirol jarduerak eta aisialdi sistema; i) enplegua; j) hezkuntza sistema.

³⁷ 17/2018 KAE, 2018ko otsailaren 22koa.



hauek betez gero: OSNra beste bide batetik sartu ezin izatea, Nafarroan bizitzea eta 18.000 eurotik beherako errenta izatea.

Zehaztu behar da, atzerritarrak egoiliartzat hartu ahal izateko eta, hortaz, OSNera sarbidea izateko, 90 egunetik gorako egoitza ziurtatu behar duela, nazioarteko babesaren eskatzaileen kasuan izan ezik, horiei osasun laguntza izaera hori ziurtatzen duten unetik bertatik ematen baitzaie, 90 eguneko eskakizuna gabe. Edozelan ere, aurreikuspen horrek egoera irregularrean dauden pertsonak babesgabe ez uzteko, osasun laguntza publikoa jaso ahal izatea aurreikusten da, lehen mailako osasun zentroetako gizarte langileen aldeko txostenarekin, zaurgarritasun egoera eta baliabide eza arrazoituta.

48

Plan hau egin aurreko diagnostikoan egiaztatu zen bezala, Nafarroako osasun laguntza unibertsala inklusio dinamika suposatzen duen elementuetako bat da, eta elementu arau-emaileen eta politikoen konbinazioari esker lortu da, baita elkarte sarearen jarduerari esker ere.

Migratzaileen harreran, batez ere haur eta gazteen kasuan, funtsezkoa den **hezkuntza eskubideari** dagokionez, gogoan izan behar dugu pertsonen oinarritzko eskubide bat dela, Konstituzioaren 27. artikuluari jarraikiz. Izan ere, horretan ezartzen da "Guztiekin dutela hezkuntzarako eskubidea" eta "Hezkuntzaren helburua giza nortasunaren garapen osoa dela, bizikidetzako printzipio demokratikoak ez ezik, oinarritzko eskubide eta askatasunak ere errespetatuz betiere".

Bestalde, indarreko Atzerritartasun Legeak (9. artikulua) aitortzen du 18 urtera arteko atzeritarrek hezkuntzarako eskubidea dutela, kontuan izan gabe administrazio egoera erregularrean ala irregularrean ote dauden, eta eskubide hori ikasturtea amaitu arte mantentzea ahalbidetzen du, adin nagusitasunera ikasturtean zehar iritsiz gero.

Egoitza baimenik ez duten 18 urtetik gorako pertsonen kasuan, Atzerritartasun Legeak hezkuntza arloko legedira igortzen gaitu (**2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa**, Hezkuntzari buruzkoa) eta horrek, halaber, atzerritartasunari buruzko araudira.

Igorpen bikoitz horrek lege hutsune bat sortzen du Espainian egoera irregularrean dauden 18 urtetik gorako atzeritarrentzako hezkuntzarako eskubideari dagokionez. Hutsune horren aurrean, gai honi buruz emandako jurisprudentziara jotzen ahal da, horretan eskubide hori bermatzen baita. Ildo horretatik, funtsezkoak dira Konstituzio Auzitegiaren 236/2007 epaia, azaroaren 7koa, eta 155/2015 epaia, uztailaren 9koa³⁸.

Hezkuntzarako eskubidea aitortu eta bermatu arren, praktikan, atzeritarrek bidegabeko oztopoak izaten dituzte hezkuntza eta hezkuntza baliabide guztiak eskuratzeko orduan. Eskola bereizketarekin eta integrazioarekin ere arazoa dago, parte-hartze diagnostikoan hauteman bezala. Horri dagokionez, nabarmena da zailtasun eta oztopo horiek ezin dutela eragotzi erabat bermatutako eskubide hori

³⁸ Espainian atzeritarrek hezkuntzarako duten eskubidearen azterketa xehatu eta osoa egiteko, honako hau kontsultatzen ahal da: [16 urtetik gorako atzeritarren hezkuntzarako eskubideari buruzko gida](#). Andalucía Acoge.



erabiltzea. Harrera Planean hezkuntzaren harira aurreikusitako ekintzek oztopo eta zailtasun horiek konpontzeko xedea dute.

Nafarroan migratzaile eta errefuxiatuak hartzeko kontuan hartu beharreko erkidegoko araudia jorratzen amaitzeko, Berdintasunaren eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Foru Legeak aipatzen ahal ditugu.

Ildo horretan, lehenik eta behin, aipatzekoa da **17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa**. Jarraian, Harrera Plan honekin duten loturarengatik, Migrazioekin eta inplikaturako administrazioek eremu horretan egin beharreko lanarekin zerikusi zuzena duten artikulua aipatuko ditugu.

49

Hala, Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legearen III. tituluak, 13. eta 22. artikulua bitartean, Berdintasunerako eskubidea bermatzeko zenbait mekanismo jasotzen ditu. Zehazki, 13. artikulua, berdintasunerako eskubidearen zeharkakotasunari eta ekintza positiboari buruzkoak, honako hau ezartzen du: "Nafarroako Administrazio Publikoek modu aktiboan integratu beharko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea beren politika publiko guztietan eta administrazio jardura guztietan".

Artikulu horretan, eranstean da Nafarroako Administrazio Publikoek sistematikoki eta genero ikuspegitik aintzatetsiko dituztela emakume eta gizonen egoera, baldintza eta behar desberdinak, eta helburu eta neurri espezifikoak jasoko dituztela genero arrakalak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko politika eta ekintza guztietan, plangintza, diseinu, exekuzio, jarraipen eta ebaluazio faseetan. Bereziki, kontuan hartuko dira emakumeen zenbait sektoreri eragiten dioten bereizkeria anizkoitzeko egoerak". Harrera Plan honetan jasotzen den moduan, emakume migratzaileak eta errefuxiatuak dira sektore horietako bat; horregatik, artikulua horretan jasotako adierazpenak bereziki hartu dira kontuan Planean jasotzen diren helburu eta neurriak diseinatzean.

Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legearen II. tituluan jasotzen den berdintasunerako eskubidea bermatzeko mekanismoekin jarraituz, aipatzekoa da 15. artikulua, Administrazio Publikoen arteko lankidetzaren eta koordinazioari buruzkoa (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako Berdintasunerako Institutua eta Nafarroako Tokiko Erakundeak), gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko ekintza guztietan, baliabideen eraginkortasuna, efikazia eta kalitatea lortzeko, baliabideen arrazoizko erabilerekin bateragarria dena.

Bestalde, 16. artikulua emakume eta gizonen ordezkariak orekatuari buruzkoa da eta, besteak beste, adierazten du Nafarroako Gobernuak printzipio hori bermatu behar duela Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta, oro har, sektore publikoa osatzen duten erakundeen (horiek izendatzea berari dagokionean) zuzendaritza organoen titularrak izendatzean. Era berean, ordezkariak orekatuaren printzipioa bermatu behar da kide anitzeko organoetako izendapenetan eta izendatzeetan, baita sariak, aintzatespenak eta bekak emateko epaimahaietan ere, behar bezala arrazoitutako arrazoi funtsatu eta objektiboetan izan ezik.



Bestalde, 18. artikulua, laguntza publikoei buruzkoak, honako hau adierazten du: "Nafarroako Administrazio Publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko erakunde eta entitateek deitzen dituzten dirulaguntzak, bekak eta bestelako laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan, berdintasun klausulak jasoko dira erakunde eskatzaileek genero berdintasuna lortzera bideratutako jarduketak baloratzeko edo, hala badagokio, nahitaez betearazteko, laguntzaren izaeragatik halakorik jasotzea beharrezkoa ez denean izan ezik".

17/2019 Foru Legean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko aurreikusitako beste mekanismoetako bat, Plan hau prestatzean, aurretiazko diagnostikoarekin batera, bereziki kontuan hartu dena, Estatistika eta azterketei buruzkoa da, 19. artikulua, alegia. Zehazki, artikulua horrek ezartzen du Nafarroako Administrazio Publikoek, horien ohiko jardueran genero ikuspegia eraginkortasunez jasotzen dutela bermatzeko, honako hauek egin behar dituztela:

a) Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu bilketa guztietan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea, kategoria desberdinak jasoz.

b) Genero adierazle berriak ezartzea, emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharrezan dauden aldeak, horien guztien adierazpena eta aztertuko den errealitatearekin duten elkarrekin hobeki ezagutzea ahalbidetzen dutenak, eta estatistika eragiketetan jasotzea.

c) Beste aldagai batzuen eragina ezagutzea ahalbidetzeko beharrezkoak diren adierazle estatistikoak sartzea eta mekanismoak diseinatzea, aldagai horiek agertzeak diskriminazio anizkoitzeko egoerak sorrarazten baditu esku-hartze eremuetan.

d) Behar bezain lagin zabalak izatea, sartutako aldagaiak sexuaren arabera aztertu ahal izateko, eta eskura dauden datuak tratatzea, jarduera eremu bakoitzean emakumeek eta gizonak dituzten egoera eta beharrak ezagutu ahal izateko.

e) Etxeko lanen eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko lanen funtzio sozial eta ekonomikoaren aintzatespena sustatzea, baita ordainsaririk eta aintzatespen profesionalik izan gabe gehienbat emakumeen egiten dituzten jarduerena ere.

Gainera, 20. artikuluan Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen emakume eta gizonen berdintasunaren arloko gaikuntza jasotzen da. Hori behar diren neurriak hartuz eta edukietan eta prestakuntzan genero ikuspegia txertatuz ziurtatu behar da, Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legearen xedapenak betetzeko eta administrazio jardueran genero ikuspegia eraginkortasunez txertatzeko behar den ezagutza praktikoa bermatzeko.

Azkenik, nabarmentzekoa den azken mekanismoa 21. artikuluan jasotakoa da, komunikazio inklusibo eta ez-sexista, Harrera Plan honetan ere bereziki kontuan hartu dena.

Harrera Planerako bereziki garrantzitsutzat jotzen dugun Berdintasunari buruzko **17/2019 Foru Legean**, aipatzekoa da 27. artikulua, Herritartasun aktiboari, ahalduntzeari eta parte-hartzeari buruzko kapituluan ("Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziala") jasota dagoena.



Besteak beste, artikulua horrek ezartzen du botere publikoek ekintza zehatzak egin behar dituztela emakumeen elkarteak eta talde feministak sustatu eta babesteko, "zenbait faktore kontuan hartuta, hala nola adina, landa eremua, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, sexu orientazioa, sexu edo genero identitatea, emakume migratzaileen kasuan, baita bizilekuaren egoera administratiboa, edo emakume batzuek beren eskubideak erabiltzean zaurgarritasun handiagoko jarrerak dituzten beste inguruabar batzuk ere".

Gainera, 27. artikulua horrek, 5. apartatuan, eranstu du "Administrazio Publikoek zenbait diziplinatan erreferente diren emakumeak balioetsiko dituztela, genero estereotipoak haustea sustatzeko eta emakumeen kultura eta gizarte aniztasuna islatzen duten ereduaren sorrera zabaltzeko".

Aurrekoari jarraikiz, nabarmentzekoa da 47. artikulua, zaintzaileen rolari buruzkoa, eta Bizitzaren jasagarritasuna: ekoizpen eta ugalketa lana deritzon kapituluaren barruan. Zehazki, artikulua horrek adierazten du Nafarroako Gobernuak honako hauek egiten dituela:

1. Zaintzaile ez-profesionalek zaintza lanak egiten dituzten baldintzak errazteko eta duintzeko balio duten ekintzak sustatzea. Halaber, zaintza profesionalen sektorean lan baldintza duinak lortzea sustatuko da.
2. Bereizkeria anizkoitza jasaten duten zaintzaileen rola kontuan hartzen duten jardura espezifikoak sustatzea, bereziki emakume migratzaileen eta desgaitasunen bat dutenen rola. Horretarako, etxeko sektorean lan harremanak sortzen eta baldintzak hobetzen lagunduko da, etxeko enplegatzaileen eta enplegatuen arteko bitartekaritzaren bidez.
3. Eskubide sozialetan eta osasunean eskumenak dituzten departamentuen bitartez, genero ikuspegia aintzat hartzea arreta soziosanitarioa diseinatzeko orduan, emakumeak zaintza lanetan betikitzen dituzten rol eta estereotipoak ez finkatzeko.

Bestalde, nabarmentzekoa da, Harrera Plan honen xedearekin lotura berezia izateagatik, Berdintasunari buruzko **17/2019 Foru Legeak** 5. atalean, Inklusio sozialari eta Esku-hartze komunitarioari buruzkoan, ezarritakoa.

Hala, 52. artikulua, inklusio sozialaren eta esku-hartze komunitarioaren arloko jarduketak ezartzen ditu eta, horien artean, honako hauek jasotzen ditugu, hitzez hitz:

1. Nafarroako Gobernuak zeharkako neurriak eta ekintza positibokoak hartzea bultzatuko du, pobrezia, bazterketak eta gizarte zaurgarritasunak gehienbat emakumeak eraginpean hartze horri aurre egiteko, eta horretarako, emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta hori bermatuko duten neurri ekonomikoak, sozialak eta hezkuntza alorrekoak hartzeko.
2. Administrazio publikoek eta, bereziki, herritarrengandik hurbil egoteagatik, tokiko administrazioek, giza eskubideetan oinarritutako genero ikuspegi integratuko prebentzio eta esku-hartze komunitarioko jarduketa espezifikoak sustatuko dituzte, kultura aniztasuna eta dagokion lurralde eremuaren berariazko ezaugarriak kontuan hartzen dituen ikuspegitik.



3. Eskubide sozialetan eskumenak dituen departamentuak neurriak jarriko ditu, bereziki ikuspegi intersektionala izan den plangintzan eta diagnostikoan, aintzat har daitezzen gizarte inklusiorako diskriminazio faktore erantsiak, hala nola adina, egoera sozioekonomikoa, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, sexu orientazioa, sexu edo genero identitatea, egoitza egoera administratiboa edo emakume sektore jakin batzuk beren oinarritzko eskubideetan jarduteko orduan posizio desabantailatsuagoan ekartzen dituzten bestelako inguruabarrak.

4. Nafarroako Gobernuak Gizarte Zerbitzuetako profesionalen berdintasunaren arloko prestakuntza bermatuko du, kulturartekotasunaren ikuspegiarekin eta landa eremua aintzat hartuta.

5. Etxebizitza arloan eskumenak dituen departamentuak etxebizitza titulartasunari buruzko datuak sexuaren arabera berezita biltzen direla bermatuko du, alokairuan eta jabetzan den etxebizitza babestuen egoera aztertu ahal izateko, eta gizarte egoera zaurgarrian dauden emakumeek etxebizitza eskuratzeko aukera izatea bermatuko duten ekintza espezifikoak diseinatzeko.

6. Nafarroako Gobernuak familia ereduen aniztasuna aintzatesten dela bermatuko du, eta ereduen aniztasuna ikusgai jartzen eta balioesten laguntzen duten sentsibilizazio jarduketak sustatuko ditu.

7. Administrazio Publikoek beharrezko ekintzak egingen dituzte prostituzioan diharduten eta salerosketaren eta sexu esplotazioaren biktima diren emakumeen gizarte arretarako.

8. Administrazio Publikoek migrazio politiketan genero politikak integratzen direla bermatuko dute."

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko **17/2019 Foru Legearekin** batera, erkidego mailako araugintza esparru honetan derrigor aipatu beharreko beste legeetako bat **14/2015 Foru Legea da, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa.**

Bereziki, oso kontuan izan behar ditugu V. tituluaren, arreta eta berreskuratze sareko baliabide eta zerbitzuen katalogoari buruzkoaren, 33. artikulutik 47. artikulura bitartekoak, baita VI. tituluaren, Laneratzea eta autonomia ekonomikoa sustatzea eta etxebizitza eskuratzeko izenekoaren, 48. artikulutik 56.era bitarteko artikulua ere.

Azkenik, aipatzekoa da **8/2017 Foru Legea, ekainaren 19koa, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzkoa.** Zehazki, aipatzekoa da 14. artikuluan kolektibo zaurgarriei laguntzera eta hori babestera bideratuta dauden gizarte eremuko neurrien katalogo bat dagoela.



1.4. HARRERA PLANAREN ESPARRU POLITIKO ETA ESTRATEGIKOA

53

Migratzaileei harrera egiteko Nafarroako Plana migrazioen kudeaketarekin lotutako politika nagusiekin lerrokatuta dago, modu orokorrean, eta, bereziki, nazioarteko, Europako eta estatuko migratzaile eta errefuxiatuen harrerarekin. Ildo horretan, gogoan izan behar da, Diagnostikoan adierazi zen bezala, Harrera prozesuetako Estatuko eta nazioarteko testuinguruan jorratutako zenbait plan eta estrategia ere agertuko direla esparru politiko honetan, egokitzen jotzen den kasuetan.

Aipatutako lurralde eremuez gainera, autonomia erkidegokoa ere aipatuko dugu, Harrera Planak beste foru plan eta estrategia batzuekin duen lotura jorratzeko; izan ere, horren gaia ezinbestean izan behar da aintzat Planak jardunen duen esparru politikoa zehazteko orduan.

1.4.1. Nazioartean

Nazioartean, aipatzekoa da, lehendabizi, **2030 Agenda**, 2015eko irailaren 25eko Nazio Batuen Biltzar Orokorrean 70/1 Ebazpen bidez onetsi zena, baita horrek **Garapen Jasangarrirako Helburuak** ere. Eta hori, Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Plana (2021-2026) legegintzaldi honetako ekintza politikoaren bi ardatzetan oinarritzen baita: 1) pertsonengan oinarritutako politikak lehenestea; eta 2) Agenda 2030 eta haren Garapen Jasangarrirako Helburuak erabat eta zeharka bultzatzea.

Esparru horretan, nabarmentzekoa da Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren 29. artikulua berariaz aitortzen duela "migratzaileek hazkunde inklusiborako eta garapen jasangarrirako egindako ekarpen positiboa", eta printzipio hori Harrera Planaren eta Nafarroako migrazio arloko jarduketaren oinarrian dagoela.

Bestalde, Plan honen Diagnostikoan azaldu bezala, migratzaileei egiten zaien harrera elementu garrantzitsua da GJHetan eta, zehazki, Agenda 2030ean aurrera egiteko, eta lotura estua du 3., 8., 10., 11., 16. eta 17. helburuekin.



Zehazki, 10. GJHak, *Herrialdeetan eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea*, 10.7 jomugan, honako honen garrantzia ezartzen du: "pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatua, segurua, arautua eta arduratsua ahalbidetzea, baita migrazio politika planifikatuak eta ongi kudeatuak aplikatuta ere". Halaber, 10.2 jomugak, horizontea 2030. urtean jarrita, honako erronka hau ezartzen du: "pertsona guztien gizarte, ekonomia eta politika inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edonolakoa izanda ere". Harrera Plan honek helburu hori lortzen aurrera egitea ahalbidetuko duen baliabide izateko asmoa du.

Aipatutako 10. Helburuaz gainera, beste GJH batzuetan ere jomuga zehatzak jasotzen dira migratzaileen harrerarako garrantzitsuak diren zenbait alderdiren harira. Hori gertatzen da 3. helburuko, *Bizitza osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea*, 3.8 jomugarekin: "osasun estaldura unibertsala lortzea". Gauza bera gertatzen da 8. helburuaren, *Guztientzako hazkunde ekonomiko inklusibo eta jasangarria, enplegua eta taxuzko lana sustatzea*, 8.8. jomugarekin ere: "lan eskubideak babestea eta lan ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, migratzaileen kasuan barne, bereziki emakume migratzaileen eta lan prekarioak dituzten pertsonen kasuan. "Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarritzko zerbitzu egoki, seguru eta eskuragarrietarako sarbidea dutela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea" (11. Helburuko, *Hiriak inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak izan daitezen lortzea*, 11.1 jomuga). Baita 16. helburuaren, *Gizarte bidezko, baketsu eta inklusiboak sustatzea*, hurrengo jomugak ere: "erabaki inklusibo, partaidetzako eta adierazgarriak hartzen direla bermatzea", 16.7 jomuga; "guztientzako nortasun juridikorako sarbidea eskaintzea", 16.9 jomuga; eta "garapen jasangarriaren aldeko lege eta politika ez-diskriminatzaileak sustatu eta aplikatzea", 16.b jomuga.

2030 Agendarekin batera, nahitaez aipatzekoak dira **Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Ituna**³⁹ eta **Errefuxiatuei buruzko Munduko Ituna**⁴⁰. Bi baliabideak 2018. urtekoak dira eta "Errefuxiatu eta Migratzaileen New Yorkeko Adierazpenaren" eremuan hartutako konpromisotik sortzen dira. Adierazpen horren bidez, NBEko Estatu kideak bi prozesu horiek bereizita jorratzeko konpromisoa hartu zuten.

Espainiako Estatuak 2018ko abenduan sinatu zuen Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Itunari dagokionez, nabarmentzekoa da, juridikoki loteslea ez den arren, giza eskubideen nazioarteko tratatuetan oinarritzen dela eta horiek Estatuak pertsona guztien eskubide guztiak errespetatu, babestu eta bermatzera behartzen dituztela, inolako diskriminaziorik gabe, baita migratzaileentzako bide seguruak erraztera ere.

³⁹ Nazio Batuen Batzar Nagusia. Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Ituna onesteko Gobernu arteko Konferentzia. Marrakech (Maroko), 2018ko abenduaren 10a eta 11. Behin-behineko programaren 10. gaia. Konferentziaren azken agiria.

⁴⁰ Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpena, 2018ko abenduaren 17koa, Errefuxiatuei buruzko Munduko Ituna onetsi zuena.



Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoaren arabera, Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Ituna "migratzaileak eta haien giza eskubideak arazoaren erdigunean jartzen dituen migrazioaren gobernantza hobetzeko lan esparru garrantzitsua da, eta migratzaile guztien giza eskubideen babesa indartzeko aukera esanguratsua ematen du, edozein dela ere migratzailearen egoera".

Besteak beste, eta Harrera Plan honetarako interes handia duenez, nabarmendu behar da itun honek migrazioa giza esperientziaren eta mundu globalizatuaren ezaugarri bereizgarritzat hartzen duela, oparotasun, berrikuntza eta garapen jasangarriaren iturritzat hartuz. Gainera, koordinatuta lan egitea komeni dela jotzen da, pertsonen eta komunitateen beren herrialdeetan segurtasunez eta duintasunez bizitzea ahalbidetzeko, eta migratzaileak gizarteko eskubide osoko zati bihurtzeko gaitzea, haien ekarpen positiboak azpimarratuz eta inklusio eta kohesio soziala sustatuz.

Ituna printzipio gidari multzo batean oinarritzen da (giza alderdia, nazioarteko lankidetzak, subiranotasun nazionala, garapen jasangarria, giza eskubideak, genero ikuspegia eta abar). 23 helburuk osatzen dute, eta horietako bakoitzak konpromiso eta ekintza batzuk jasotzen ditu, migrazio segurua, ordenatua eta erregularra lortzeko bideratuta daudenak.

Hitzarmen hau eraginkortasunez aplikatzeko, beharrezkoa da mundu, Estatu, eskualde eta toki mailako ahaleginak egotea, alde biko, eskualdeko eta alde anitzeko lankidetzak handiagoaren bidez. Ildo horretan, nabarmentzekoa da *Migratzaileei harrera egiteko Nafarroako Plana* ahalegin horietako bat dela erkidego eta toki mailan, bereziki, Munduko Ituneko 15. helburuari ("Migratzaileei oinarritzko zerbitzuak eskuragarri jartzea") eta 16. helburuari ("Migratzaileak eta gizarteak ahaldundetzea, erabateko inklusioa eta gizarte kohesioa lortzeko") dagokionez, migratzaileen harrerarekin lotura estua izateagatik.

Bestalde, *Errefuxiatuei buruzko Munduko Ituna* 2018ko abenduaren 17an onetsi zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak, bi urtez ACNURek zuzenduta eragile garrantzitsuekin kontsulta luzeak egin ondoren, hala nola NBEko estatu kideekin, nazioarteko erakundeekin, errefuxiatuekin, gizarte zibilarekin eta abarrekin.⁴¹

Itun horrek karga eta arduraren bidezko banaketa aurreikusgarria egiteko esparrua eskaintzen du, aitortuz errefuxiatuen egoera ez dela modu jasangarrian ebazten ahalko nazioarteko lankidetzarik gabe.

Munduak errefuxiatuen egoerari erantzuten dion modua eraldatzeko aukera da, horiei zein jasotzen dituzten komunitateen onurak ekarriz. Hala ere, gaur egun Itun honek oso garapen txikia du, juridikoki loteslea ere ez denez.

Itun honek lau zati ditu eta honako hauek nabarmentzen dira: Errefuxiatuentzako Erantzun Integralerako Esparrua (CRRF), akordioaren helburuak betetzen laguntzeko neurri zehatzak jasotzen

⁴¹ ACNURek egindako Errefuxiatuei buruzko Munduko Itunaren laburpena.



dituen Ekintza Programa eta, azkenik, jarraipena eta berrikuspenez egiteko mekanismoak. Azken horiek, batez ere, Errefuxiatuei buruzko Munduko Foroaren bidez eginen dira lau urtean behin, goi mailako funtzionarioen urteko bilera baten bidez, eta, azkenik, Goi Mandatariak Batzar Nagusiari urtero eginen dion txostenaren bidez.

Nabarmentzekoa da Errefuxiatuei buruzko lehen Munduko Foroa 2019an egin zela, eta Goi mailako Funtzionarioen lehen bilera 2021eko abenduaren 15erako dagoela aurreikusita Genevan (Suitza).

Itunean bertan adierazten den moduan, bilera horiek estatuek eta beste eragile batzuek errefuxiatuen egoeretan parte hartzen dutela bermatzeko esparru bat eratzeke prozesuaren zati dira. Alde horretatik, ACNURen arabera, bilerak aukera ematen du maila handiagoko gobernu funtzionarioek eta interesa duten bestelako taldeek "aurrerapenak ebaluatu ditzaten eta inertzia galdu ez dezaten Errefuxiatuen Munduko Ituneko helburuak lortzeko bidean". Horren harira, nabarmentzen du "laguntza, autosufizientzia eta errefuxiatuei soluzioetarako sarbidea eskaintzeko parte-hartze handiagoa behar duten aurrerapenak, erronkak eta egoerak identifikatuko dituztela parte hartzen duten pertsonen, pandemiak planteatu dituen erronkak kontuan hartuta".

1.4.2. Europako eremua

Esparru juridikoari buruzko apartatuan migratzaileen integrazio eta harrerari loturiko Europako baliabide politiko batzuei buruz jada azaldutakoa osatzeko, aipatzekoa da 2020ko irailaren 23an, Europako Batzordeak **Asiloari eta Migrazioari buruzko Europako Itunaren (aurrerantzean, "Europako Ituna" edo "AMI")** zirriborroa aurkeztu zuela, oraindik behin betikoz onesteke dagoena eta EBn "immigrazioaren eta asiloaren arloko lan agenda berritzat" hartzen dena. Europako Itunak ikuspegi globala eskaintzen du eta barne hartzen ditu migrazioaren, asiloaren eta integrazioaren arloko politikak. Halaber, Batzordeak mugen kontrolerako eta migratzaile eta errefuxiatuak EBra iristea kudeatzeko ezarri nahi duen erreferentziazko esparrua adierazten du.

AMIk hasiera berri bat eskaini nahi du migrazioen arloan dauden urritasun guztiak jorratzeko, estatu kideen politiken eta erabakien arteko mendeotasuna kudeatzeko European esparru berri eta iraunkor bat izateko beharretik abiatuta. Era berean, aukera eta erronkei erantzun koordinatua eskaini nahi die garai arruntetan, presioko egoeretan eta krisi egoeretan, eta, gutxienez, adierazpen gisa, migrazioa modu eraginkor eta gizatiarrean kudeatzen dela bermatu nahi du, Europako balioei jarraikiz betiere.

Illo horretan jada adierazitakoaren harira, nabarmentzekoa da egungo testuak kritika handiak jaso dituela inplikazio negatiboak dituelako migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideen errespetuaren eta bermearen arloan; kritika horiek gizarte erakundeen aldetik etorri dira, baita Europar Batasuneko zenbait gobernuen aldetik (Espainiakoa, besteak beste) zein **Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialaren** (aurrerantzean, "EBES") aldetik ere. Izan ere, AMIk, bere egungo bertsioan, kanpo mugak eta itzulera kudeatzean zentratutako zenbait gomendio eta lege proposamen jasotzen ditu,



immigrazioarako eta asilorako bide seguruen kalterako direnak, baita hirugarren herrialdeetako herritarren EBko inklusio eta integrazioari buruzko zenbait ere.

Azken horri dagokionez, itunean argi geratu da beharrezkoa dela migratzaileak integratzen laguntzea, gizarte inklusiboagoak izanen baditugu. Hala eta guztiz ere, arlo horretan ez da ia sakontzen eta oraindik argitaratu ez den etorkizuneko testu bat aipatzen da.

Adierazten da migrazioa kudeatzeko sistema osasungarri eta bidezko baterako, bermatu behar dela migratzaileak Europako gizarteetako ongizate, oparotasun eta kohesioaren onuradun direla, eta balio horiek lortzen lagundu behar dutela. Edozelan ere, aipamen hori soilik EBn egoera erregularrean dauden atzerriarrei dagokie.

Edozelan ere, azkenean onesten den *Asiloari eta Migrazioari buruzko Europako Ituna* Migratzaileei harrera egiteko Nafarroako Plana ezartzeko orduan kontuan hartu beharreko erreferentziazko esparru garrantzitsua izanen da.

Orain Europako Batzordeak migratzaileen eta beren familien integrazioaren arloan prestatutako azken Planari buruz arituko gara. EBk inklusio soziala sustatzeko agendan gaketzat jotzen den elementua da. **Integrazio eta Inklusio arloko 2021-2027 Ekintza Plana** da (aurrerantzean, "Ekintza Plana" edo "Integrazio eta Inklusio Plana"), Batzordeak 2020ko azaroan aurkeztu zuena.

Diagnostikoan jasota geratu zen bezala, Ekintza Planak migratzaile guztien inklusioa sustatzen du, haien ekarpen garrantzitsua aintzatetsiz eta Europako gizartean parte hartu eta gizarteratzea zailtzen ahal duten oztopoak jorratuz. Printzipio honetan oinarritzen da: "integrazio inklusiorako, beharrezkoak dira pertsonaren eta harrera komunitatearen ahaleginak, eta Batzordearen aurreko 2016ko ekintza planaren lorpenetan oinarritutako ekintza berriak ezartzen ditu".⁴²

Garrantzitsua da nabarmentzea tituluan inklusioaren kontzeptua jasotzen dela, aurreko planetan nagusi zen integrazioaren kontzeptu tradizionaletik haratago urrats bat emanez. Inklusioaren ideian sakontzeko beharra planaren hasierako garapenean azaltzen da, onartzen denean aurreko ekimen askok porrot egin dutela Europar Batasunera iritsitako migratzaileek integrazio prozesu bat gauzatzea lortzeko orduan. Horregatik, onartzen da inklusio estrategiak jorratu behar direla, ez soilik migratzaileentzako, baizik eta baita Europar Batasuneko herritarrak diren baina migrazioari loturiko jatorri pertsonala duten pertsonentzako ere. Plan honetan jasotzen den moduan, politikak berrikusi behar izatea aintzatesteak esan nahi du ikaskuntza garrantzitsuak egin direla arrakastarik izan ez duten harrera eta integrazio politiken inguruan, eta horiek kontuan hartu behar direla Nafarroako Harrera Plana diseinatzean eta ezartzean.

Ildo horretan, azpimarratu behar da Batzordearen Integrazio eta Inklusio Plan berriak ezinbestekotzat jotzen duela hezkuntzaren, etxebizitzaren, enpleguaren eta osasunaren eremuan inklusioa bermatuko

⁴²Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordea. SOC/668. Integrazio eta Inklusiorako 2021-2027 Ekintza Plana. Brusela, 2021eko otsailaren 10a. *Batzordearen komunikazioa, Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeen Batzordeari igorritakoa: Integrazio eta Inklusiorako 2021-2027 Ekintza Plana.*



duten politikak garatzea. Azpimarratu behar da zerbitzuak eskuratzeko prozesua funtsezkoa dela lurraldean migratzaileen presentzia dagoen unetik, integrazio prozesuek huts egitea saihesteko.

Ekintza Planak berariazko eta egokitutako laguntza proposatzen du, migratzaileentzako erronka espezifikoak izaten ahal diren banakako ezaugarriak kontuan hartuko dituen, hala nola generoa edo jatorri erlijiosoa. Integrazioaren eta inklusioaren arrakasta goiz jardutearen arabera eta epe luzeko konpromisoaren arabera da.

Integrazio eta Inklusio Plana gauzatzeko EBren funtsak erabiliko dira eta eragile parte-hartzaileekin batera jardunen da: migratzaileekin, harrera komunitateekin, eragile sozial eta ekonomikoekin, gizarte zibilarekin, tokiko eta eskualdeko erakundeekin, eta sektore pribatuarekin. Harrera komunitateak trebatuko ditu, eta integrazio neurriak eta programak diseinatzeko eta aplikatzeko lagunduko die. Era berean, arreta berezia jarriko du hala dagokien pertsonen harrera gizartean parte hartzeko duten erantzukizunean.

EBren integrazioari eta inklusioari buruzko ekintza planean jasotako oinarriko printzipio eta balioen artean, nabarmentzekoak dira: "Guztientzako inklusioa"; "Laguntza espezifikoak, beharrezkoak den guztietan"; "Generoaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren arloetako lehentasunak jasotzea"; eta "Integrazio etapa guztietan laguntzea".

Ekintza planak neurriak zehazten ditu aipatutako sektore eremuetan (**Hezkuntza eta prestakuntza, Enplegua eta gaitasunak, Osasuna eta Etxebizitza**), eta horietako batzuk zerrendatuko ditugu jarraian, Nafarroako Harrera Planerako erreferentzia garrantzitsuak iruditzen zaizkigulako:

- "Hezkuntza eta prestakuntza inklusiboa sustatzea haurtzaro goiztiarretik hasi eta goi mailako hezkuntzaraino.
- Enplegurako aukerak eta kualifikazioen aintzatespena hobetzea, migrazio komunitateen eta, bereziki, emakumeen ekarpena erabat baloratzeko, baita potentzial guztia zabaltzeko laguntza jasotzen dutela bermatzeko ere.
- Osasun zerbitzu orokorretarako sarbidea sustatzea, osasun mentalerako laguntza barne.
- Etxebizitza egokiak arrazoizko prezioan eskuratu ahal izatea sustatzea".

Halaber, aipatzekoa da Integrazio eta Inklusio Plana eskubide sozialen Europako oinarria praktikan jartzera bideratutako ekintza planarekiko lotura estuan aplikatuko dela. Azken hori laster aurkeztuko da, baita EBren Arrazismoaren aurkako Ekintza Plana ere.

Ekintza Planari dagokionez, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EBES), 2021eko apirilera irizpenaren ondorio eta gomendioetan gogorarazten du integrazio eta inklusio baliabideak batez ere estatuko, eskualdeko eta tokiko agintarien esku daudela. Hau da, EB mailako ekintzak osagarriak dira eta lankidetzara sustatu, erraztu eta koordinatzeko diseinatu daude. Ondorioz, Ekintza Planean ez dago estatu kideentzako helburu globalik edo zehatzik, gomendioak baizik. EBESek ohartarazten du,



egungo egoeraren aurrean eta pandemiaren inpaktua aintzat hartuta, integrazio arazo horiek horren lehentasunezkatzat ez jotzeko arriskua dagoela. Halaber, gogorarazten du benetako erronkak politikak gauzatzean sortzen direla eta genero aldagaia nabarmendu egin behar dela Ekintza Planean, bai integrazioa modu orokorrean jorratzen denean eta bai sektore eremuei dagozkien apartatuetan.

EBESek gizarte zibilaren garrantzia nabarmentzen du, oro har, tokiko bizimoduan integratzeko, baita sindikatuen eta enpresaburuen elkarteen funtzio espezifikoak ere.

Migrazio eta Asiloari buruzko Europako Itunaz eta Integrazio eta Inklusioko Itunaz gainera, laburki aipatuko dugu Europako Kontseiluaren "Europako migrazioaren eta asiloaren ingurunean zaurgarriak diren pertsonak babesteko ekintza plana" (2021-2025)⁴³. Plan horren esparruan, "beren egoeraren banakako ebaluazioaren ondoren premia bereziak dituztenak dira pertsona zaurgarriak, eta horiek estatuek babes eta laguntza bereziak emateko duten betebeharrakz baliatzeko eskubidea dute".

Ekintza planaren helburua haurtzarora ardatz zuen eta 2019an amaitu zen aurreko Ekintza Planean identifikatutako erronka eta aukera nagusiei ekitea da. Horrez gain, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, zuzendaritza batzordeak eta Europako Kontseiluko ikuskapen organoek asiloaren eta migrazioaren testuinguruan pertsona zaurgarriak eman beharreko babes bereziaren inguruan egindako deialdiei erantzun nahi die.

Ekintza Planak laguntza pakete espezifiko bat proposatzen du, Europako Kontseiluko Estatu kideek beren gaitasuna hobe dezaten babes baldintza egokiek, informazioa eskuratzearekin, laguntza juridikoarekin eta justiziarekin lotutako asilo eta migrazio prozeduretan zaurgarritasunak identifikatu eta horiei aurre egiteko orduan. Halaber, haur errefuxiatuen babesa sustatzen du hezkuntza eskuratzeari dagokionez, baita gazte errefuxiatuen babesa ere, adin nagusitasunerako trantsizioan.

Azkenik, nabarmentzekoa da Ekintza Planak lau oinarri dituela: "babesa bermatzea eta zaintzak sustatzea; legerako eta justiziarako sarbidea bermatzea; parte-hartze demokratikoa sustatzea eta gizarteratzea bultzatzea; eta lankidetzak hobetzea Europako Kontseiluko kide diren estatuetako migrazio eta asilo arloko agintarien artean".

1.4.3. Estatu esparrua

Estatu mailan, eremu honi dagokionean, nabarmentzekoa da, Inklusio, Gizarte Segurantzak eta Migrazioen Ministerioaren webgune ofizialean adierazitakoaren arabera, **Herriarrei eta Integrazioari buruzko Plan Estrategiko** (aurrerantzean, "HIPE") berri bat prestatzeko lanak egiten ari direla, gizarte kohesioa sendotzeko helburu nagusiarekin.

⁴³ "Action Plan on Protecting Vulnerable Persons in the Context of Migration and Asylum in Europe (2021-2025)".



HIPE berria migratzaileen eta nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen integrazioa sustatzeko programa esparru bat izanen da; horregatik, aintzat hartu beharko da Harrera Plan hau ezartzean.

Edozelan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu harreraren honako definizio hau hartzea, azken HIPE 2011-2014an jasota zegoena eta honela deskribatzen duena:

"integrazio prozesuaren lehen etapa migrazio ibilbideetan berealdiko garrantzitsua duen fasea da (...) ... harrerak arreta integrala eskatzen du, oinarritzko bizi baldintzak lortu ahal izateko, eta Espainiako gizartean sartu berri diren herritarren onarpena eta parte-hartze soziala, kulturala eta politikoa bultzatzeko; halaber, migratzaileak hartzen dituen gizartearen gaitasuna indartzea, aniztasunera egokitze".⁴⁴

60

Gainera, aipatzekoa da **Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Borrokari eta Prebentzioari buruzko Espainiako Estrategia 2019-2023**, migratzaile eta errefuxiatuen harrerekin duen loturarengatik. Ministro Kontseiluaren akordio bidez onartu zen 2019ko martxoaren 22an eta honela definitzen da: "estrategia integrala, pertsona guztiei zuzendua eta eragile guztien parte-hartzea duena, bere ekintzaren erdigunea zerbitzu publikoan jartzen duena eta gizarte zerbitzu publikoen funtsezko funtzioa aintzatesten duena".

Agenda 2030en Espainiako Ekintza Plana gauzatzearekin lotuta dago, "Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Borroka eta Prebentzioa" lehenetsuneko arloaren aldeko politika bultzatzaile gisa, eta funtsezko bi gai lantzen ditu zeharka: haurrak eta familiak babestea, bereziki egoera zaurgarrienean dauden edo behar gehien dituzten familiei dagokienean.

Estrategia hau ezartzeko, beharrezkoa da Estatu, erkidego edo toki mailako plan operatiboak prestatzea, jarduera ildoetako dagozkien neurri eta jarduketak zehaztuko dituztenak, baita gauzatze aldia, organo arduraduna eta elkartutako aurrekontua ere.

Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Borrokari eta Prebentzioari buruzko Espainiako Estrategiak jarduera ildo orokorrak zehaztu nahi ditu eta garapen plan operatiboak egitea jasotzen du. Horiek (legegintzaldi honetan) Eskubide Sozialetako Ministerioak eta Agenda 2030ak zuzenduko dituzte, Eskubide Sozialetako Estatu Idazkaritzaren bitartez, eta gauzatu beharreko neurri zehatzak zehaztuko dituzte, helburu estrategiko bakoitza lortzen aurrera egiteko, helburuak eta jarduera ildoak zehaztuz, baita eremuak, organismo arduradunak edo gauzatzen esku hartzen dutenak, esleitutako aurrekontua eta adierazleen eguneratzea ere.

Nabarmentzekoa da, Espainiako pobreziaren profilak jorratzean, Estrategiak nazionalitateak eta jaiotza herrialdeak duten inpaktuan sakontzen duela. Bestalde, gurasoen jatorria aintzat hartzen da haurren pobrezia aztertzean. Gainera, bereziki zaurgarriak diren kolektibo espezifikoaren artean,

⁴⁴ Herritartasun eta Integrazio Plan Estrategikoa 2011-2014. Migratzaileen Integrazioarako Idazkaritza Nagusia. Lan eta Immigrazio Ministerioa.



tutoretzapeko haurrak eta tutoretzan egondako gazteak agertzen dira, horien migrazio prozesutik eratorritako behar espezifikoak, hizkuntza ez ezagutzea, dokumentazioari loturiko arazoak eta abar aipatuz.

1.4.4. Autonomia erkidegoen esparrua

Apartatu hau hasteko, adieraziko dugu bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako Nafarroako Foru Komunitatearen 2019-2023 aldirako programa akordioak berariaz jasotzen duela desberdintasunaren aurka egiteko eta Nafarroako gizarte anitzaren esparruan bizikidetzazko sustatzeko konpromisoa. Horretarako, beste hainbat neurriren artean, *Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako lehen Plana (2021-2026)* sustatu da.

Gogorarazten dizuegu parte-hartze prozesu hau, hasieratik, beste bi jarduketa paralelo sortzeari lotuta dagoela: **Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategia** prestatzeari eta **Nafarroako Foru Komunitateko Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako lehen Plana (2021-2026)** diseinatzeari. Horren guztiaren ondorioz, jarduera esparru eraginkorra eratzen ahalko da, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak bultzatuta, zehazki, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak bultzatuta. Zuzendaritza horrek bere gain hartuko ditu migrazioaren arloko eskumenak, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen **266/2019 Foru Dekretuari** jarraikiz.

Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Plana (2021-2026) prestatzeko parte-hartze prozesu horrek, esan bezala, legegintzaldi honetako ekintza politikoaren bi ardatzi erantzuten die: 1) pertsonengan zentratutako politikak lehenestea; eta 2) aipatu Agenda 2030 eta horren Garapen Jasangarriko Helburuak modu oso eta zeharkakoan sustatzea.

Lehenengo ardatzean, pertsonengan zentratutako erkidego mailako politiken ardatzean, aipatu ditugunez gain (Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategia eta Nafarroako Foru Komunitateko Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako plan berria, 2021-2026), funtsezkoa da Harrera Plan hau erkidego mailako beste plan eta estrategia batzuekin lotzea. Horregatik, aurrekaritzat hartzen ahal ditugun eta indarra galdu duten aurrekariak zein indarrean daudenak aipatuko ditugu.

Aurrekariaren artean, aipatzekoa da **Migratzaileen Gizarte Integrazioarako Plana**, Nafarroako Gobernuak 2001eko ekainean eta Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietarako Batzordeak 2002ko urrian onetsi zutena; horren indarraldia 2006ra arte luzatu zen. Plan horretan migratzaileak Foru Komunitateko gizartean integratzeko estrategia globala ezarri zen.

Erkidego mailako beste aurrekari bat, arlo honetan, 2015eko **Bizikidetzarako Nafarroako Estrategian** aurkitzen dugu. Horretan asmoa zehazten zen arren, ez zen ezartzera iritsi.



Bizikidetzarako Estrategiak, Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Plan honek bezala, herritarrei toki nabarmena ematen die edozein pertsonaren integrazio prozesuaren barruan. Horretarako, T. H. Marshall⁴⁵ "herritartasun" ideia horretarako adierazten zituen hiru alderdiak aipatzen ditu, baita horiek nola aurkezten ahal diren ere zehazten denean: alderdi zibila (eskubide zibilak), alderdi politikoa (eskubide politikoak) eta, azkenik, alderdi soziala (eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak).

2019 amaieran, [Nafarroako Bizikidetzarako I Plan Estrategikoa](#) diseinatzeko hasi zen, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak sustatuta (Herritarrekiko Harremanetako Departamentua). Plan hori aniztasunak (kultura aniztasuna, erlijio aniztasuna eta aniztasun soziopolitikoak) ikuspegi zabal batetik jorratzen dituen bizikidetzaren kontzeptualizazio batean oinarritzen da, Nafarroako bizikidetzari eragin dioten gertakizunen arrazoietan eta esanahian sakonduz, baita gertakizun horiek kontzientzia eta praxi kolektiboan eragin dituzten aldaketetan ere. Planaren oinarrietan kulturarteko eta erlijio arteko bizikidetzaren ikuspegi integrala izateko beharra nabarmentzen da, baita migratzaileen kolektiboen eskubide sozialak artatzea ere.

Gogoan izan behar dugun erkidego mailako erreferentziazko beste baliabideetako bat 2018ko **Nafarroan errefuxiatuei harrera egiteko protokolo integrala** da. Errepikatu behar da Protokolo hori Harrerarako Espainiako Sistemari, eta Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen Ministerioaren ondorengo jarraibideetan aldaketak egiten diren heinean eguneratzen ahalko dela.

Gaur egun protokoloa eguneratzen ari dela aldera batera utzi gabe, azpimarratu behar da nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen Harrera eta Integrazioarako Espainiako Sistema Estatuaren eskumena den arren, Nafarroako Protokoloaren arabera, errefuxiatuen harreraren parte hartzen duten eragileek artean Nafarroako Harrera Sarea deritzona dagoela. Hori Nafarroako Gobernuak, Nafarroan programa kudeatzen duten erakunde ziurtatuak eta harrera eta integrazio prozesuetan laguntzen duten beste eragile batzuek (udalerrriak, mankomunitateak, gizarte erakundeak, gizarte zibila eta errefuxiatuak) osatzen dute.

Bai protokoloak berak eta bai horren arabera erkidegoko administrazioak, tokiko administrazioak eta esku hartzen duten gainerako eragileek beren gain hartzen dituzten funtzioek Nafarroan errefuxiatuak hartzeko konpromisoa eta prestutasuna uzten dituzte agerian.

Hori dela eta, Estatuako Harrera Sistema osatzen duten fase guztietan, programa kudeatzen duten erakundeek, Nafarroako Gobernuaren eta harrera udalerrien arteko koordinazioaren beharra nabarmentzen du Protokoloak. Hori guztia, pertsona horien harrera hobetzeko ekintzen bidez, hala nola: jarraipen bilerak eta harrera programa hobetzeko lan saioak, kasuak maila teknikoan kudeatzeko bilerak eta abar.

⁴⁵ T. H. Marshall⁴⁵ herritarrei buruzko saiakera bat idatzi zuen, *Herritartasuna eta klase soziala* izenburuarekin, eta 1950ean argitaratu zen.



Bestalde, Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Plan honekiko lotura duten eta indarrean dauden Nafarroako Gobernuaren planen artean, **Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa (2018-2021)**⁴⁶ dago.

Plan honetan jasotzen diren gizarteratze arloko jarduketa proposamenak sei helburu estrategiko gaketan oinarritzen dira. Horietako bosgarrenean, "Zaugarritasun egoera handiagoan dauden gutxiengoengan ekintza positiboko jarduketak aktibatzea" aipatzen da. Helburu hori lortzeko, migratzaile eta errefuxiatuen harrerari loturiko jarduketa ildoen artean jasotzen dira honako hauek:

-  "Migratzaileen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea, Europar Batasuneko egitura eta baliabideetarako sarbidea erraztuz eta atzerriartasunaren arloko informazio eta aholkularitza behar espezifikoek estaldura emanez.
-  Talde eragile bat finkatzea errefuxiatuen harrera prozesuak hobetzeko; Nafarroan errefuxiatuen harrerarako protokoloa onetsi eta ezartzea".

Plan honen azken helburu estrategikoa, harrerarekin ere lotura berezia duena, honako hau da: (...) "kulturen artean esku hartzeko eredu bat finkatzea, aniztasun kulturalaren kudeaketan erreferentziatzeko izanen dena. Eredu horrek gaztaka sozialeko egoerei aurrea hartzeko eta egoera horiek iraultzeko balioko du, kulturarteko bizikidetzaren mesedetan, eta, hala, laguntza emanen du populazio osoaren bizi baldintzak hobetzeko prozesuetan".

Helburu hori lortzeko, honako jarduera ildo hauek jasotzen dira:

-  "Kulturarteko bitartekaritza zerbitzua finkatzea gatazken prebentzio eta ebazpenerako, lurralde desberdinetako esku-hartze komunitarioak lehenetsiz".
-  "Salaketa, arreta eta sentsibilizaziorako bulegoa sendotzea" (...), jatorriaren ondoriozko diskriminazio egoeren, arrazakeria edo xenofobiaren inguruan".

Aurrekoaz gain, Gizarteratze Planak migratzaileen osasun laguntza eta hezkuntza jasotzeari buruzko helburu eta neurri zehatzak jasotzen ditu, pertsona horiek gizarteratzeko funtsezko elementuak izateagatik, Harrera Plan honek horri buruz planteatzen duenaren antzeko ildo batean. Adibidez, nabarmentzen da "osasun sisteman sartzea sustatzeko, atzerriarrei eta/edo gutxiengo etnikoei zuzendutako informazioa emateko kanpainak egokiak diren jakin behar dela, zerbitzuen erabilera tasen bidez (jatorriaren eta hizkuntzaren arabera)".

Planean, hezkuntza eta haurren arreta bizikidetzarako eta aniztasunaren aintzatespen positiborako gune gisa zehazten dira, nabarmenduz "hezkuntza sistema, batzuetan, gure gizarterako sarbidea dela atzerriko jatorria duten adin txikiko eta familientzat".

⁴⁶ Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa (2018-2021). (2017 abendua). Eskubide Sozialetako Departamentua. Nafarroako Gobernua.



Azkenik, nabarmendu behar da Gizarteratze Plana uste sendo batetik abiatzen dela, hain zuzen ere, administrazioek hartutako neurrien emaitza Nafarroako gizartearen integratzeko gaitasunaren mende dagoelako ustetik. Hori honela zehazten da: "Horregatik, gizarteratze plan honen eraginkortasuna indar sozial, enpresarial eta politiko guztiek Nafarroako gizarte kohesioaren inguruan gizarte itun bat ezartzeko duten gaitasunean datza".

Bestalde, Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Planaren eta **Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren (2019-2023)**⁴⁷ arteko sinergiak aipatuko ditugu.

Nafarroako Foru Komunitateak, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoan jasotzen den moduan, bi erronkari egin behar die aurre: batetik, "pertsonen eta haien oinarritzko sareen gaitasunak" sustatzeari eta, bestetik, "pertsonen, familiek, komunitateek eta lurraldeek dituzten baliabide eta laguntza naturalekiko sinergiak" lortzeari. Gainera, nabarmentzekoa da esku-hartzeari esker laguntza sareak eta pertsonen arteko harremanak indartzeko beharrak are garrantzi handiagoa duela migratzaileen kasuan. Izan ere, batetik, egindako diagnostiko prozesuaren ondoren egiaztatutako moduan, hurbiltasun sareek errazten dituzte, hain zuzen ere, harrera prozesuak; eta, bestetik, hurbiltasun sare horiek maiz ahulak izaten dira.

Bestalde, Plan Estrategiko hau lehen mailako arreta eratzen zentratzen da, herritarrengandik hurbil geratzen diren zerbitzuen bidez arreta emateko. Elementu hori ezinbestekoa da migratzaileak gizarteratzeko, tokiko inguruneak harrera prozesuetan duen pisu handia dela eta, baita kidetasunaren eta parte-hartze komunitarioaren alderdiari erantzuteko ere, horiek harrera prozesuetako funtsezko elementuak izaki.

"Gizarte zerbitzuen arreta eskaintzeko, pertsonak beren inguruneetatik eta harreman eta eguneroko testuinguruetatik aldentzen direnean, pertsonen bizitzetan gertatzen den autonomia, autodeterminazio, orientazio, kokapen, lotura, harreman, identitate eta zentzu galera prebenitu eta saihestu nahi da".

Ildo horretan bertan, Plan Estrategiko honetan Gizarte Zerbitzuen eredurako ezartzen diren balioen artean, nabarmentzekoa da "kalitatezko gizarte esku-hartzearen unibertsaltasuna, pertsonen eta ikuspegi komunitarioan oinarritzen dena". Horrek behar bezalako esparrua ezartzea ahalbidetuko du "(...) hauskortasun edo zaugarritasun egoerak modu prebentibo eta proaktiboan jorratzeko, bazterkeria, mendekotasun edo babesgabetasun kasu bihurtu aurretik".

Hauskortasun edo zaugarritasun egoerak modu prebentibo eta proaktiboan jorratzea ezinbesteko elementua da Nafarroako Foru Komunitatera iritsi berri diren migratzaileei buruz ari garenean.

Apartatu honen garapenarekin jarraituz, eta desgaitasunaren eta irisgarritasunaren eremuari dagokionez, Migrazioetarako Nazioarteko Erakundetik (MNE)⁴⁸ berriki sustatutako azterketek

⁴⁷ Gizarte Zerbitzuen Nafarroako Plan Estrategikoa (2019-2023) 2019ko maiatzaren 22ko Gobernu Bilkuran onetsi zen.

⁴⁸ MNE Nazio Batuen Sistemaren parte den gobernu arteko erakundea da, joan den mendearen erdialdetik pertsona guztien onerako izanen den giza migrazio ordenatua sustatzeko konpromisoa duena.



adierazten dute "desgaitasunarekin bizi diren pertsonen oztopo ugari egin behar diotela aurre eta zaurgarritasun handiagoa jasaten dutela, sarritan ez dutelako aukerarik edo beren premien arreta egokirik izaten".

Nafarroan 2019-2023⁴⁹ legegintzaldirako koalizio gobernua eratzeko programa akordioaren edukietan, "Nafarroako Desgaitasun Plana erabat garatzea"⁵⁰ aipatzen da. Hori egituratzen duten helburu orokorren artean, 7. helburuak irmotasunez adierazten du "Foru Administrazioaren politika, zerbitzu eta jarduera guztietan desgaitasuna zeharka txertatzeko" asmoa, "desgaitasunak jarduera esparru gisa duen zeharkakotasuna" aipatuz.

Horrenbestez, programako aurreikuspen horiekin eta migrazioari eta desgaitasunari buruz dugun ezagutzarekin, Harrera Planak kontuan hartu behar ditu desgaitasunaren ondoriozko desberdintasunak murriztea berariaz sustatzen duten neurriak, baita desgaitasunen bat duten migratzaileek harrera gizartearen ondasun eta zerbitzuak eskuratzea eta eskubideak oso-osorik erabiltzea galarazten duten oztopoak kentzea ere.

Amaitzeko, Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Planaren eta **Gazteriari buruzko III. Foru Planaren (2021-2023)**⁵¹ arteko sinergiak aipatuko ditugu.

Nabarmentzekoa da *Gazteriari buruzko 2021-2023 Foru Planaren* "Auzolan" izeneko egitura ardatzaren barruan "Gizarteratzea, Bizikidetzatza eta Generoa" izeneko lan arloa dagoela. Horretan, aintzatesten da gazteen artean orotariko aniztasunak daudela eta azpimarratzen da Nafarroan gazte atzeritarrak daudela, batez ere Nafarroan familia babesik ez duten gazteak aipatuz:

"Politika publikoetarako sarbideari eta gizarteratzeko programen azterketa eta koordinazioari dagokienez, (zaurgarritasunaren-bazterketaren aurrean), funtsezkoa da gizartearen aniztasuna aitortzea, generoa, hizkuntza eta kultura aniztasuna edo gizarte jatorria aintzat hartuta, besteak beste. Ildo horretan, garrantzi berezia du atzerriko gazteen presentziak eragindako aniztasunari arreta eskaintzea, izan ere, gazte horiek, kasu batzuetan, ez dute ondoan jatorrizko familiarik, eta arazoak dituzte, esaterako, harrera gizarteko hizkuntza, kultura eta erakundeak ez ezagutzeagatik."

"Gizarteratzea, Bizikidetzatza eta Generoa" izeneko lan arlo horrek honako hau planteatzen du helburu nagusitzat: "Nafarroako gazteak gizarte, politika, ekonomia, eta kulturaren eremuetan txertatzeko neurriak sustatu, garatu eta ezartzea, haien gizarte, kultura, hizkuntza, sexu eta genero aniztasuna aintzat hartuta".

Gazteen inguruko kulturarteko harrerari loturik Planean jasota dauden ekintza espezifikoaren artean, "KIDEAK" programa eta Kulturarteko Bitartekaritza Zerbitzua daude, biak Migrazio Politiken

⁴⁹ Nafarroako Parlamentuan 2019ko uztailaren 26an izenpetutako akordioa.

Nafarroako Desgaitasun Plana 2019-2025, 2019ko maiatzaren 22ko Gobernu Bilkuran onetsi zena. ⁵⁰

⁵¹ Gazteriari buruzko III. Foru Plana 2021-2023 Nafarroako Gobernuaren Gazteriaren Departamentuarterko Batzordeak onetsi zuen 2021eko martxoaren 23an.



Zuzendaritza Nagusiak sustatuta. Plan hau idazten zen unean, ez da ezagutzen nola egituratzen diren programa eta zerbitzu horiek Departamentu artean.



1.5. PLAN HONEK AGENDA 2030AREN AURREAN DUEN ERANTZUN MAILA.

67



Lehen adierazi dugun bezala, *Migratzaileei harrera egiteko Nafarroako Plana* oso lerrokatuta dago [Agenda 2030ekin eta horren Garapen Jasangarrirako Helburuekin](#), baita [Nafarroako Garapen Jasangarrirako Agenda 2030](#)⁵² zehaztearekin ere. Plan hau, zehazki, **10.7 jomugan** dago inspiratuta. Horretan, honako hau proposatzen da: “pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatua, segurua, arautua eta arduratsua ahalbidetzea, baita migrazio politika planifikatuak eta ongi kudeatuak aplikatuta ere”. 10. GJH hori, *desberdintasunak murriztea*, Planaren lehentasunezko bi ildotan ere agertzen da, **10.2 jomugaren** eta **10.3 jomugaren** bitartez.

Xede horiek funtsezkoak dira lortu nahi den harrera eredua eratzeko, giza eskubideen ikuspegia erabiliz; izan ere, alde batetik, “persona guztien inklusio soziala, ekonomikoa eta politikoa bultzatu

⁵² 2016an, Nafarroako Parlamentuak, osoko bilkuran, Ebazpen bat onetsi zuen, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernuari eskatu baitzitzaion ikerketa bat egiteko eta zehazteko zein politika, programa eta jarduketa ari den aplikatzen 2030 Agendaren erronkei aurre egiteko.



eta sustatu nahi da, haien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza kontuan hartu gabe" (10.2). Eta, bestetik, "aukera berdintasuna bermatu eta emaitzen desberdintasuna murriztu nahi dira, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko" (10.3).



Era berean, Plana parte-hartze prozesu zabal baten bidez formulatu da, eta, hala, **16.7 jomugari** lagundu zaio: "beharrei erantzuten dieten eta inklusioan, parte-hartzean eta ordezkagarritasunean oinarrituriko erabakiak maila guztietan hartzea bermatzea". Horren proposamenak **17.17 jomugaren** filosofiaren bidez lortu nahi dira; hain zuzen ere, interesdun askoren artean aliantzak ezartzearen alde egiten du, eta, hala, "eremu publikoan, publiko-privatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sortzea sustatu eta bultzatzea, aliantzatarako baliabideak lortzeko esperientzia eta estrategiak aprobetxatuz".



Planaren helburu orokorra, gainera, bat dator: "hiriak [lurraldeak] inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak izan daitezen lortzea" aspirazioarekin, 11. GJHak zeharka zehazten duen moduan. Hori, halaber, bi aldiz dago adierazita lehentasunezko ildoetan, **11.1 jomugaren** bitartez. Horrek iradokitzen du, hemendik 2030era bitartean, "pertsona guztiek etxebizitza eta oinarritzko zerbitzu egokiak, seguruak eta eskuragarriak izan ditzaten ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea" bermatu behar dela. Sarbide hori, kasu askotan, erlazionatuta dago "informaziorako sarbide publikoa bermatzearekin eta oinarritzko askatasunak babestearekin, lege nazionalen eta nazioarteko akordioei jarraikiz", **16.10 jomugak** proposatzen duenari jarraikiz.



Halaber, lehentasunezko ildo desberdinek helburu sektorialagoak lotzen dituzte. Hala, 3. ildoak osasunaren arloarekin erlazionatuta dago (*osasuna eta ongizatea*); 4. ildoak hezkuntzari buruzkoa da (*kalitatezko hezkuntza*); 8. ildoak lan eta enplegu arloari dagokio (*taxuzko lana eta hazkunde ekonomikoa*). Azken kasu honetan, nabarmentzekoa da **8.5 jomuga**, "enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzeko xedea duena, emakume eta gizon guztientzat, [gazteak] eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea".



Planak bereziki lantzen du haurtzaroaren eta familiaren eremua eta, apartatu honetan, aipatzekoa da **16.2 jomuga**. Horren xedea "tratu txarrak, esplotazioa, salerosketa eta haurren aurkako indarkeria eta tortura modu guztiak desagerraraztea" da, eta horrek 5. GJHak (*genero berdintasuna*) aipatzen duen genero ikuspegiaren garrantzia azpimarratzen du. Hori, nagusiki, **5.5 jomugaren** bitartez adierazten da. Horren bidez, "emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatu nahi da, baita lidergoko aukera berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan".



Azkenik, "Estatuko politika, estrategia eta planetan klima aldaketari buruzko neurriak txertatzeko" borondate generikoa adierazten ahal da, **13.2 jomugak** eskatzen duen moduan, *klimaren aldeko ekintzari* buruzko 13. GJHaren oinarrizko esparruan. Eta neurri horien bidez, *pobreziari amaiera* eman nahi zaio, 1. GJHak adierazten duen bezala, bereziki, **1.5. neurrian**: "pertsona pobreen eta egoera zaurgarrian dauden pertsonen erresilientzia sustatzea eta lortzea ez daitezela egon hain hein handian klimarekin lotutako muturreko fenomenoek eta ekonomia, gizarte eta ingurumen hondamenen eraginpean, eta halakoak jazoz gero ez daitezela izan hain zaurgarriak".

Hurrengo orrian taula bat ikusten ahal da, *Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Planaren* lehentasunezko ildoek eta erantzun nahi zaien jomuga eta helburu nagusien arteko elkarguneekin.



GJH	GJH JOMUGA		PLANEKO LEHENTASUNEZKO ILDOA
11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	Jomuga 11.1	"Hemendik 2030era, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarritzko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea"	1. LI. Informazio, orientazio eta hizkuntzak ikasteko zerbitzuak, eta zerbitzu orokorretarako sarbidea hobetu eta garatzea.
17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA	Jomuga 17.17	"Esfera publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezela sustatzea, aliantzen bidez baliabideak lortzeko esperientzia eta estrategiez baliatuz"	2. LI. Ekintza komunitarioa, aliantza estrategikoak eta maila anitzekoak migrazio prozesuak eta horien tokiko inpaktua modu globalean kudeatzeko.
16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	Jomuga 16.10	"Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarritzko askatasunak babestea, lege nazionalekin eta nazioarteko hitzarmenekin bat etorritik"	3. LI. Esparru juridiko, administratibo eta kontzeptual argi eta operatiboa, eskubideen ikuspegi batetik.
4 KALITATEZKO HEZKUNTZA	Jomuga 4.3	"Hemendik 2030era, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitateko irakaskuntza barne"	4. LI. Migratzaileei harrera egiteko gaitasun kulturalak eta kulturartekoak garatzeko prestakuntza, gaikuntza eta sentsibilizazio sistema egonkorra sortzea.
10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	Jomuga 10.3	"Aukera berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko"	5. LI. Prozesu integral eta jarraituak sortzea familia unitateen inguruan, haurtzaro, nerabezaro eta gaztarotik.
10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	Jomuga 10.2	"Hemendik 2030era, pertsona guztien gizarte, ekonomia eta politika inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edonolakoa izanda ere"	6. LI. Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen harrera eta inklusio sistema modu koordinatuan ezartzen aurrera egitea.
11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	Jomuga 11.1	"Hemendik 2030era, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarritzko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea"	7. LI. Ostatu arloko beharrei behar bezala erantzuteko neurriak sustatzea.
3 OSASUNA ETA ONGIZATEA	Jomuga 3.8	"Osasun estaldura unibertsala lortzea, finantza arriskuen aurkako babesak barne, kalitatezko funtsezko osasun zerbitzuetarako sarbidea barne, eta kaltegarriak ez diren eta guztiontzako eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak diren sendagai eta txertoak eskuratzeko aukera barne"	8. LI. Osasunaren ikuspegi prebentibo eta integrala jorratzea ahalbidetzen duten prozesu eta ekintzak garatzea.
8 LANBIDEA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	Jomuga 8.5	"Hemendik 2030era, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea"	9. LI. Laneratzeko prozesuak indartzea.
5 GENERO-BERDINTASUNA	Jomuga 5.1	"Mundu guztian emakume eta neskatoen aurkako diskriminazio modu guztiekin amaitzea".	Genero ikuspegia zeharka ageri da lehentasunezko 9 ildoetan



II. MULTZOA



2.1. PLAN OSOAREN PRINTZIOPIO ZUZENTZAILEAK

72

Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako 2021-2026 Planaren eta Nafarroako Kulturen arteko Bizikidetzaren 2021-2026 Estrategiaren oinarrian honako printzipio hauek daude:

BERDINTASUNAREN ETA DISKRIMINAZIO EZAREN PRINTZIOPIOA

Horrek esan nahi du emakumeak eta gizonak berdinak izan behar dutela duintasunean, errespetuz eta begirunez tratatu behar direla, eta oinarri berdinetan parte hartu behar dutela bizitza ekonomiko, sozial, politiko, kultural edo zibileko edozein arlotan.

HERRITARTASUNAREN PRINTZIOPIOA

Horrek esan nahi du pertsona guztiek dutela eskubide hori, haien administrazio egoera edozein izanik ere.

INKLUSIOAREN PRINTZIOPIOA

Horrek esan nahi du migratzaileek beren eskubide guztiak erabiltzen ahal dituztela, gizarteko gainerako kideen baldintza beretan eta diskriminaziorik pairatu gabe.

KULTURARTEKOTASUNAREN PRINTZIOPIOA

Jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen arteko elkarreraginerako mekanismoa da, kultura aniztasuna baloratu eta errespetatzeko.



2.2. BEHARREZKO ALDAKETEN DIMENTSIOAK

Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako 2021-2026 Plana parte-hartze prozesu zabal batetik abiatuta garatu da, eta haren ezaugarrietako bat gune birtualen eta aurrez aurreko guneen konbinazioa izan da. Horietan, administrazio publikoetako edo erakundeetako profesionalek, ekimen pribatuko erakundeek eta herritar antolatuek edo norbanakoek ekarpen ugari egin dituzte.

Migratzaileei Nafarroan egiten zaien harrera indartzeko **hobetu**, **aldatu** eta **berritu** behar diren elementu eta ekintzei buruzko baterako hausnarketa partekatu da egindako parte-hartze prozesuan. Aldi berean, lurraldean **kulturarteko bizikidetza** hobetzeko erronkak non dauden adierazi da. Jasotako eta sistematizatutako ekarpen guztiek planteatzen dute ahalegin guztiak “*beharrezko aldaketen alderdi*” deritzenetara bideratu beharra.

Alderdi horiek *Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Plana* osatzen duten helburuak, ardatzak, lehentasuneko ildoak eta neurriak ezartzeko balio izan dute, eta proposamen sistemiko baten aldeko apustua egin dute. Proposamen horretan, ekintza bakoitzak helburu komun batera bideratutako prozesu bat berrelikatzen du: Nafarroa kulturartekoa izan dadin lortzea. Horrek ondare berria ekarriko du, gizarte konplexu eta global baten erronkei indar handiagoz aurre egiteko abiapuntu izanen dena.

Beharrezko aldaketen bost alderdiak hauek dira:

-  **Integralitate, eraginkortasun eta efizientzia** administrazio publikoetatik, erakunde eta ekimen pribatuetatik eta herritarren sare eta ekintzetatik.
-  **Erakundea indartzea** eta tokiko komunitateetan parte hartzea, horren gizarte eta lurralde berezitasunak aintzat hartuta eta aniztasuna abiapuntu hartuta, elementu positibo gisa.
-  Instituzioak, arauak eta administrazioa **moldatzea**, dagoen kultura aniztasunaren aurrean.
-  **Gizarte harremanak sustatzea** maila guztietan, interes komunekeko elementuak azpimarratuz, kidesun partekatuaren sentimendua indartzeko.
-  Gizarte gatazken **kudeaketa erregulatu eta positiboa**.



Dimentsio horiek guztiak garatzeko, genero ikuspegia egonen da abiapuntuan, interseksionalitatearen ikuspegitik jorratuz; aintzat hartuko dira aniztasun guztiak, ez soilik Nafarroako lurralde eta gizartean dauden aniztasun etniko, kultural, hizkuntzazko, sexu-generiko, erlijioso edo jatorrizkoak.



**PLAN NAVARRO
DE ACOGIDA**
A PERSONAS MIGRANTES

**PERTSONA MIGRATZAILEEI
HARRERA EGITEKO
NAFARROAKO PLANA**

HELBURU OROKOR 1

6 ARDATZ
ESTRATEGIKO

9 ILDO
ESTRATEGIKO

19 HELBURU ESPEZIFIKO

54 NEURRI ESPEZIFIKO



2.3. HELBURU NAGUSIA

Plan hau prestatzeko egin den parte-hartze prozesuan **Harrerari** buruz egindako definizioa abiapuntu hartuta: "53Eskualde batera iristen diren pertsonen beharrak estaltzeko54 eta horien aspirazioak aintzat hartzeko beharrezko elementuak eskaintzen dituen prozesua. Diziiplina anitzeko esku-hartze sozial eta psikosoziala garatzea dakar55, harrera egiten zaion eta kulturartekotasunaren ikuspegian oinarrituta diseinatutako baliabide eta baliabide espezifikoak behar dituen pertsona erabat gizarteratzera bideratuta, genero ikuspegia duen metodologia aplikatuz eta jada lurraldeko biztanle guztientzako dauden zerbitzuak egokitzea barne hartuz". Honako helburu orokor hau planteatzen da:

Migratzaileei (horien profil eta egoera anitzetatik) harrera egiteari dagokionez zehaztutako **esparru metodologiko eta operatiboa** garatzea Nafarroako Foru Komunitatean, **eskubideen ikuspegia, genero ikuspegia eta interseksionalitatea** abiapuntu hartuta elementu egituratzaile gisa. Horiei esker, posible izanen da **ekintza integral, eraginkor eta efizientea** eskaintzea, **inklusioari bide emanez, gizarte hartzailean gizarte kohesioa sustatzen duen prozesu batetik**.

Horretarako, beharrezkoa da gobernantza partekatua, lankidetzakoa eta koordinatua sustatzea migratzaileei beren aniztasunean harrera egiteko prozesuetan zuzeneko zein zeharkako eragina dutenen artean, ikuspegi komunitarioa barneratuz eta komunikazioa, gaitasun kultural eta kulturartekoen garapena eta jarraipena, ebaluazioa eta sistematizazioa bultzatuz, nahi diren aldaketak eta inaktuak lortzeko ezinbesteko baliabide gisa.

⁵³ Beharrak, Maslow erreferentziatzen hartuta (1943).

⁵⁵ Inklusioa, Europar Batasunak emandako definizioa onartzen da.



2.4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK.

77

Ardatz estrategikoak Harrera Planeko osagai nagusiak dira, zeharkakoak dira eta horien gainean zehazten dira Lehenetsuneko lldoak, Helburu Espezifikokoak eta Neurriak. Horien funtzioa plan osoari antolamendu egitura ematea da, azken helburua (Nafarroan migratzaileei harrera egiteko gune eta prozesu eraginkorrak garatzea) lortzeko funtsezkotzat jotzen diren elementuetan zuzeneko eragina izateko.

Helburu orokorren arabera, honako **6 ardatz** hauek zehazten dira:

1. ARDATZA	2. ARDATZA	3. ARDATZA
Jatorrian prestatzea eta helduek arreta ematea	Esku-hartze espezializatua profil zehatzetan	Instituzioak dagoen kultura aniztasunera moldatzea
4. ARDATZA	5. ARDATZA	6. ARDATZA
Komunikazioa sustatzea eta aliantza eraginkorrak garatzea	Indartze komunitarioa eta kulturarteko parte-hartzea	Genero berdintasuna sustatzea.



1. A. Jatorrian prestatzea eta heldzean arreta espezifikoak ematea.

Ardatz honen barruan sartzen da esku-hartze soziala garatzea, Estatuez haratagoko ikuspegi batetik, migratzaileen jatorrian hasten ahal dena, eta behar den guztia egiten jarraitzen duena hasierako beharrei behar bezala erantzuteko: orientazioa, aholkularitza juridikoa, ostatua, hizkuntzak ikastea, lehen harreman sozialak, kode kulturalak interpretatzea, osasuna zaintzea, kulturarako sarbidea eta abar.

Hori guztia, migrazioaren esperientziak gizonei eta emakumeei desberdin eragiten diela aintzat hartuta. Generoak eragina du migratzeko arrazoietan, nork migratuko duen erabakian, migratzeko erabiltzen diren sare sozialetan, migrazio esperientzietan, helmugako herrialdean integratzeko eta laneratzeko prozesuetan, eta jatorrizko herrialdearekiko harremanetan.

78

2. A. Esku-hartze espezializatua profil zehatzetan.

Ardatz honetan, migrazio prozesu baten konplexutasunaren barruan zailtasun edo zaurgarritasun egoera gehigarriak dituzten pertsonen egoera espezifikoak behar bezala kudeatu behar direla adierazten da, besteak beste, honako pertsona hauek aipatuz: nazioarteko babesaren eskatzaileak, aberrigabeak, salerosketaren biktimak, Nafarroan familia sarerik ez duten adingabeak, igarotze egoeran dauden pertsonak, egoera administratibo irregularrean daudenak, presoak, desgaitasuna duten pertsonak eta abar; baita 14/2015 Foru Legeak jasotzen dituen emakumeen aurkako indarkeria adierazpenak ere, hala nola emakumeek migrazio prozesuan jasaten ahal duten indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo, emakumeen mutilazio genitala. Horretarako guztirako, profesionalak gaitu egin behar dira berdintasunean eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, emakume eta neskentzako egiazko ahalduntze prozesu izanen den esku-hartzea bermatzeko, genero ikuspegiarekin.

3. A. Instituzioak dagoen kultura aniztasunera moldatzea.

Ardatz horrek administrazio publikoen beharrei erantzuten die, hain zuzen ere, zerbitzuen, baliabideen, ekipamenduen, proiektuen eta programen eskaintza kulturalki askotarikoa den Nafarroako gizarte baten osaerara egokitzeko behar diren prestakuntza, gaikuntza eta egokitzapenak eskuratzeari, gizarte kohesiorako eta kulturarteko bizikidetzarako esparru komunitarioa partekatzeo nahiarekin. Genero ikuspegia txertatuz zerbitzuetan, baliabideetan eta prestakuntza proposamenetan.



4. A. Komunikazioa sustatzea eta aliantza eraginkorrak garatzea.

Ardatz honek maila eta eremu desberdinetan komunikazio prozesuak zaintzeko beharrari erantzuten dio. Aintzat hartu behar da zer, nola, nori eta zertarako komunikatzen den. Diskurtso inklusiboen bidez eta informazio egoki eta egiazkoa eskuragarri jarritz, eragile desberdinen arteko aliantzak garatzea sustatuko da, sektore arteko eta genero begirada batekin, harrera prozesuetan ekarpen positiboa eginez.

5. A. Indartze komunitarioa eta kulturarteko parte-hartzea.

79

Ardatz horrek parte-hartzea sustatzen du, kultura aniztasuna elementu positibotzat hartuta, auzo, kontzeju, udalerri edo eskualde batean ondasun komunaren alde bizi diren herritar guztiek elkarrekin lan egiteko, lurraldea indartzeko eta pertsona guztien arteko harreman asertibo eta positiboak eratzeke.

6. A Genero berdintasuna sustatzea.

Ardatz estrategiko horren asmoa, genero eta sektore arteko ikuspegi batetik, generoarekin erlazionatutako alderdiak jorratzea da, kategoria analitiko nagusitzat hartuta, baita generoak harrera prozesuetan izaten diren egoera espezifikoetan duen eragina ere. Horretarako, Harrera Planak, oro har, eta, batez ere, helburu espezifiko bakoitzerako zehazten diren neurriek, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkor baterantz aurrera egiten lagundu behar dute, horren barruan kulturartekotasunaren ikuspegia txertatuz eta estrategia duala aplikatuz⁵⁶.

⁵⁶ Ikuspegi dualak genero ikuspegia zeharka txertatzea aipatzen du, baita ekintza positiboak martxan jartzea ere, emakumeen behar espezifikoak eta horien interes estrategikoei erantzunak emateko.



2.5. LEHENTASUNEZKO JARDUKETA ILDOAK, HELBURU ESPEZIFIKOAK, NEURRIAK ETA ADIERAZLEAK

80

Lehentasunezko ildoetan, abiapuntuko egoera hobetzeko eta lortu nahi diren aldaketak lortzeko landu behar diren elementu gakoak nabarmentzen dituzten bideak ezartzen dira. Horiek ardatzei zeharka erantzuteko moduan formulatu dira. Ardatzetako batzuk globalagoak dira, eta beste batzuk, berriz, argi eta garbi, kolektibo edo esparru jakin bati zuzentzen zaizkio. Nolanahi ere, **eskubideen ikuspegitik** eta **interseksionalitatetik** jorratzekoak dira guztiak ere.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ILDOAK

1	2	3
Informazio, orientazio eta hizkuntzak ikasteko zerbitzuak, eta zerbitzu orokorretarako sarbidea hobetu eta garatzea.	Ekintza komunitarioa, aliantza estrategikoak eta maila anitzekoak migrazio prozesuak eta horien tokiko inpaktua modu globalean kudeatzeko.	Esparru juridiko, administratibo eta kontzeptual argia eta operatiboa sustatzea, eskubideen ikuspegi batetik.
4	5	6
Migratzaileei harrera egiteko gaitasun kulturalak eta kulturartekoak garatzeko prestakuntza, gaikuntza eta sentsibilizazio sistema egonkorra sortzea.	Prozesu integral eta jarraituak sortzea familia unitateen inguruan, haurtzaro, nerabezaro eta gaztarotik.	Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen harrera eta inklusio sistema modu koordinatuan ezartzen aurrera egitea.
7	8	9
Ostatu arloko beharrei behar bezala erantzuteko neurriak sustatzea.	Osasunaren ikuspegi prebentibo eta integrala jorratzea ahalbidetzen duten prozesu eta ekintzak garatzea.	Laneratzeko prozesuak indartzea.



LEHENTASUNEZKO ILDOA		HELBURU ESPEZIFIKOA
1	Informazio, orientazio eta hizkuntzak ikasteko zerbitzuak, eta zerbitzu orokorretarako sarbidea hobetu eta garatzea.	Migratzaileen hasierako harrerako oinarrizko zerbitzuen antolaketa eta eskaintza beren beharretara egokitzea, genero ikuspegi kontuan hartuta eta ezarritako esparru kontzeptualari jarraikiz. Nafarroako hizkuntza ofizialen ikaskuntza beharrak jorratzea ahalbidetzen duen sistema integratu bat sortzea, eta itzulpen eta interpretazioa erraztea harrera prozesuetan.
2	Ekintza komunitarioa, aliantza estrategikoak eta maila anitzekoak migrazio prozesuak eta horien tokiko inpaktua modu globalean kudeatzeko.	Nafarroako migratzaileen harrera prozesuen kudeaketa eraginkor, efiziente eta jasangarriaren aldeko lankidetzak eta baliabide ekonomikoak erraztea. Erakundeak egokitzea eta elkarlana oinarri hartuta, migratzaileei harrera egitea erraztuko duen gizarte ekintza garatzen laguntzea, emaitza onen ebidentzietan oinarritutako elementu eta baliabide tekniko eta metodologikoak eskainiz.
3	Esparru juridiko, administratibo eta kontzeptual argia eta operatiboa sustatzea, eskubideen ikuspegi batetik.	Migratzaileek baliabide normalizatuak eskura ditzaten sustatzea eta bultzatzea haien harrera prozesuan. Kulturarteko harrera sustatzea, migrazioen inpaktua aztertuz, eskubideen ikuspegian oinarrituta dagoen eta genero ikuspegia jasotzen duen esparru juridiko bat sustatuz.
4	Migratzaileei harrera egiteko gaitasun kulturalak eta kulturartekoak garatzeko prestakuntza, gaikuntza eta sentsibilizazio sistema egonkorra sortzea.	Gaitasun kulturalen eta kulturartekoaren inguruko etengabeko prestakuntza eta zeharkako prestakuntza sustatzea, genero ikuspegiarekin, administrazioetan, erakundeetan eta herritarren artean. Komunikazio eta sentsibilizazio prozesuak harrera eta bizikidetzak eskubideen eta generoaren ikuspegitik sustatzen dituen esparru kontzeptual batekin lerrokatzea.
5	Prozesu integral eta jarraituak sortzea familia unitateen inguruan, haurtzaro, nerabezaro eta gaztarotik.	Familien, eta familia babesik ez duten adingabe eta gazte migratzaileen beharrak berrikusi eta horiei erantzutea harrera prozesuan, ikuspegi integral batetik. Haur eta gazteei zuzendutako baliabideak harreraren beharretara egokitzen eta ezagutzen laguntzea, hezkuntza formalean eta eskolatik kanpo kulturartekotasunaren ikuspegia aintzat hartuta.
6	Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen harrera eta inklusio sistema modu koordinatuan ezartzen aurrera egitea.	Nazioarteko babesa eskatzen edo jasotzen duten pertsonen harreraren Nafarroako Gobernuaren erantzuna hobetzea. Nazioarteko babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonentzat pertsonen beharrei erantzuteko Harrera eta Integrazio Sistema Nazionaletik ateratzen diren berariazko neurriak garatu eta sortzea.
7	Ostatu arloko beharrei behar bezala erantzuteko neurriak sustatzea.	Ostatu arloko beharrei erantzuteko lan esparru komun bat sortzea, migratzaileek etxebizitza eskuratu dezaten mugatzen duten baztertzeko faktoreen analitik abiatuta. Migratzaileei zuzendutako informazio zerbitzuak hobetzea, etxebizitza eskuratzearen arloan.
8	Osasunaren ikuspegi prebentibo eta integrala jorratzea ahalbidetzen duten prozesu eta ekintzak garatzea.	Migratzaileek osasun arloan dituzten behar espezifikoaren sarbidea eta estaldura hobetzea, dauden oztopoak aztertuz eta desagerraraziz. Eremu soziosanitarioa Nafarroako aniztasun soziokulturalera egokitzea sustatzea.
9	Laneratzeko prozesuak indartzea.	Enplegu baliabideetako lehen arreta Nafarroako aniztasun soziokulturalera moldatzea Migratzaileei zuzendutako prestakuntza eta informazio garapenak hobetzea. Enpresa ehunaren parte-hartzea sustatzea Nafarroan migratzaileei harrera egiteko prozesuetan.



1. LI. Informazio, orientazio eta hizkuntzak ikasteko zerbitzuak, eta zerbitzu orokorretarako sarbidea hobetu eta garatzea.

Lehentasunezko lldo honekin, genero ikuspegi eta ikuspegi interseksional batetik, titulartasun publikoko edo pribatuko baliabide, ekipamendu, proiektu edo programen multzoa hobetu nahi da, migratzaileek harrera prozesuaren hasieran arreta egokia jasotzen dutela bermatzeko.

Horretarako, beharrezkoa da eskuragarri jartzea: informazio egokia eta berariazkoa (Nafarroan migratzaileek hitz egiten dituzten hizkuntzak kontuan hartuta); hizkuntza ofizialen (gaztelania eta euskara) komunikazioa eta ikaskuntza; talde lana eta bakarkakoa; protokoloak edo prozedurak, zenbait profil eta egoera kontuan hartuta (migrazio iragaitean dauden pertsonak, egoera juridiko erregularrean edo irregularrean daudenak, nazioarteko babeska eskatzen dutenak, Nafarroan familia sarerik ez duten adingabeak eta abar).





1. LI. Informazio, orientazio eta hizkuntzak ikasteko zerbitzuak, eta zerbitzu orokorretarako sarbidea hobetu eta garatzea.

1. HE.		Adierazleak				
Migratzaileen hasierako harrerako oinarrizko zerbitzuen antolaketa eta eskaintza beren beharretara egokitzea, genero ikuspegia kontuan hartuta eta ezarritako esparru kontzeptualari jarraikiz.			- Migratzaileei harrera egiteko baliabideak hobeki antolatu eta banatzea ahalbidetu duten jarduketak. - Atzerriartasunaren arloko aholkularitza zerbitzuan ezarritako zerbitzuak eta hobekuntzak bateratzea. - Migratzaileei harrera egiteko prozesuan kulturarteko esku-hartze komunitariotik ezarritako prozedura berriak. - Egungo zerbitzuetan emakumeen behar praktiko eta interes estrategikoetara moldatzeko egindako egokitzapenak. - Artatutako pertsona kopurua (datuak sexuaren, adinaren, jaioterriaren eta herritartasunaren arabera xehatuta)			
Neurri espezifikoa			Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
M1	Migrazioen arloko Herritarrentzako Laguntza Zerbitzua sortzea, biztanleria kontzentrazioa kontuan hartuz, bai hiri ingurunean bai landa ingurunean, eta kontuan hartuz komunikazioko sare sozialen garrantzia.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2022	269.000 € (2022) 336.000 € (2023) eta hurrengoak
M2	Atzerriartasunaren arloko Aholkularitza Zerbitzua indartu eta sustatzea, baliabide gehiago behar dituzten arreta puntuak indartuz eta herritarrei laguntza zerbitzu bateratu gisa emateko prozesuak sortuz.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026	225.666 € (2021) 299.266 € (2022) eta hurrengoak
M3	Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioko Zerbitzua indartzea harrera fasean eta ikuspegi komunitarioa indartzea.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026	318.000 € (2021) 329.212 € (2022) 345.487 € (2023) 365.306 € (2024) eta hurrengoak



1. LI. Informazio, orientazio eta hizkuntzak ikasteko zerbitzuak, eta zerbitzu orokorretarako sarbidea hobetu eta garatzea.

2. HE

Nafarroako hizkuntza ofizialen ikaskuntza beharrak jorratzea ahalbidetzen duen sistema integratu bat sortzea, eta itzulpen eta interpretazioa erraztea harrera prozesuetan.

Adierazleak

- Lehendik dauden baliabideen mapatzea egitea eta hizkuntzen ikaskuntzan ezarritako beharren diagnostikoa egitea.
- Nafarroan hizkuntzak ikasteko baliabideak programa global batean biltzeko ezarritako aliantza estrategikoak.
- Hizkuntzak ikasteko zerbitzuak emakumeen behar, praktika eta interes strategikoetara egokitzea.
- Telefono bidezko interpretazioaren baliabidea eskaintzen duten herritarrentzako arreta zerbitzuak areagotzea.

Neurri espezifikoak

Departamentu edo
Erakunde erantzulea

Departamentu edo
Erakunde inplikaturik

Egutegia

Aurrekontu
zenbatetsia

M4

Hizkuntzen ikaskuntza lantzea, lehendik dauden baliabideen mapa bat eta estali gabe dauden beharren diagnostikoa abiapuntu hartuta, eta pedagogia egoki, partekatu eta berritzailearekin lan egitea. Genero ikuspegia, landa eremuetako errealitatea eta kontziliazio beharrak aintzat hartuta.

Hezkuntza
Departamentua
(Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia)
Herritarrekiko
Harremanetako
Departamentua
(Euskarabidea)

Migratzio Politiketako eta
Justiziako Departamentua
(Migratzio Politiketako
Zuzendaritza Nagusia)

2021-2026
(Gaztelania
ikastea)
2023-2026
(Euskara
ikastea)

Berezko
langile
baliabideak
Urterokoan
ezartzeke

M5

Nafarroako Gobernuaren herritarrentzako arreta zerbitzuetan Aldi bereko Telefono bidezko Interpretazioaren baliabidea finkatu eta hedatzea.

Migratzio Politiketako eta
Justiziako
Departamentua
(Migratzio Politiketako
Zuzendaritza Nagusia)

2021-2026

15.000 €
(2021)
25.000 €
(2022)
eta
hurrengoak



2. LI. Ekintza komunitarioa, aliantza estrategikoak eta maila anitzekoak migrazio prozesuak eta horien tokiko inpaktua modu globalean kudeatzeko.

Lehentasunezko ildo hori funtsezko elementua da Nafarroan migratzaileen harrera lantzeko prozesu integralak garatzeko, haien behar ugariak erantzunez eta ikuspegi komunitarioarekin.

Horretarako, parte-hartzean, lankidetzan eta elkarlanean funtsaturiko esparru bat ezarri behar da administrazioetako eremu eta zerbitzu guztien eta horien mailen artean (Estatua, erkidegoa, udalerria), baita Nafarroan dauden eta lan beharrezko eta positiboa egiten duten instituzio, erakunde eta ekimenen ondare zabalarekin ere.





2. LI. Ekintza komunitarioa, aliantza estrategikoak eta maila anitzekoak migrazio prozesuak eta horien tokiko inpaktua modu globalean kudeatzeko

1. HE.	Nafarroako migratzaileen harrera prozesuen kudeaketa eraginkor, efiziente eta jasagarriaren aldeko lankidetzatza lana eta baliabide ekonomikoak erraztea.	Adierazleak	- Nafarroako migratzaileen harrerari buruzko esparru kontzeptualera bideratutako dirulaguntzen deialdian sartu diren aldaketak. - Berdintasun klausulen jarraipena egiteko egiaztatzaileak. - Epe luzeko funtsezko prozesuei egonkortasun handiagoa emateko garatutako azterlanak eta prozedurak. - Nafarroan migratzaileei harrera egiteko baliabideen sistema integratua modu koordinatu eta lankidetzan kudeatzeko ezarritako aliantzak.			
	Neurri espezifikoa		Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
M6	Nafarroako migratzaileen harrerari buruz zehaztutako esparru kontzeptualera bideratutako dirulaguntzen deialdia berrorientatu eta indartzea. Berdintasun klausulak jasoz deialdiaren oinarrietan.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2022-2026	447.700 € (2022) eta hurrengoak	
M7	Migratzaileei harrera egiteko prozesuei epe luzerako egonkortasuna ematea ahalbidetzen duten administrazio prozedurak onartzea.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026	Berezko langile baliabideak	
M8	Nafarroako Gobernuarekiko lankidetzatza eta koordinazio sistema integratu eta iraunkorra ezartzea, baita dauden erakunde, entitate eta herritar antolatuen sareekiko harremana ere.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2022-2026	5.000 € (2022) eta hurrengoak	



2. LI. Ekintza komunitarioa, aliantza estrategikoak eta maila anitzekoak migrazio prozesuak eta horien tokiko inpaktua modu globalean kudeatzeko

2. HE		Adierazleak			
Erakundeak egokitzea eta elkarlana oinarri hartuta, migratzaileei harrera egitea erraztuko duen gizarte ekintza garatzen laguntzea, emaitza onen ebidentzietan oinarritutako elementu eta baliabide tekniko eta metodologikoak eskainiz.			Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia
Neurri espezifikoak					Aurrekontu zenbatetsia
M9	Harrera prozesuak instituzioetan moldatzeko beharrei erantzuten dieten eskuliburu, gida eta prozedurak kulturartekotasunaren ikuspegiarekin eta genero ikuspegiarekin prestatzea.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2024-2026
M10	Sentsibilizazio ekintzak sustatu, garatu eta bultzatzea, ikuspegi komunitarioarekin eta genero ikuspegiarekin, migratzaileen harreran.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2023-2026
M11	Mentore sozialak eta pedagogia berritzaileak sustatu, garatu eta bultzatzea, genero ikuspegiarekin, harrera prozesuetan zeharka esku-hartzeko metodologia gisa.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia) Nafarroako Unibertsitate Publikoa		2021-2026



	Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa		4.000 € (2023) eta hurrengoak
--	--	--	-------------------------------------



3. LI. Esparru juridiko, administratibo eta kontzeptual argi eta operatiboa, eskubideen ikuspegi batetik.

Lehentasun ildo honen xedea egungo esparru juridikoa argitzen laguntzea da, nahasgarria eta, batzuetan, ezagutzen eta ulertzen zaila baita. Migratzaileen kasuan, gainera, are oztopo handiagoei egin behar diete aurre, administrazio kudeaketak egiteari dagokionez.

Ezarritako esparru juridikoa behar bezala gauzatzea eta administrazio prozedurak eraginkortasunez ezagutu eta kudeatzea ahalbidetzen duen lana egin behar da, harrera hobe zina izan dadin, ezinbesteko elementuak baitira.

Hori guztia, giza eskubideetan oinarritzen diren migrazioaren arloko politika publikoen gobernantza hobetzeki jarraikiz.





3. LI. Esparru juridiko, administratibo eta kontzeptual argi eta operatiboa, eskubideen ikuspegi batetik.

1. HE.	Migratzaileek baliabide normalizatuak eskura ditzaten sustatzea eta bultzatzea haien harrera prozesuan.	Adierazleak	• Baliabide normalizatuak eskuratzeko oztopoak desagerrarazteko garatutako prozedura berriak. • Hobekuntzak dokumentazioa aurkezteko eta espedienteak kudeatzeko administrazio prozesuetan. • Nafarroako Gobernuaren eta soziokulturalki askotarikoak diren herritarren arteko komunikazioa hobetzeko garatu diren ekintzak.			
			Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
M12	Aitortutako eskubideak eta baliabideak eskuratzeko oztopoak desagerraraztea ahalbidetzen duten estrategiak aztertu eta prestatzea, arrakala digitala gaitzartzea barne.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Eskubide Sozialetako Departamentua Osasun Departamentua Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa	2021-2026	Berezko langile baliabideak Urterokoan ezartzeke.	
M13	Migratzaileei prestazioak eta baliabideak eskuratzen laguntzeko administrazio prozesuak eta egiaztagiriak berrikusi eta egokitzea, genero ikuspegitik.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Eskubide Sozialetako Departamentua Etxebizitza Departamentua Osasun Departamentua Hezkuntza Departamentua	2024-2026	15.000 € (2024) eta hurrengoak	
M14	Nafarroako Gobernuaren eta soziokulturalki askotarikoak diren herritarren arteko komunikazioa hobetuko duten erlazio eta baliabide gehiago sustatzea.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026	2.000 € (2021) 2.000 € (2022) eta hurrengoak	



3. LI. Esparru juridiko, administratibo eta kontzeptual argi eta operatiboa, eskubideen ikuspegi batetik.

2. HE		Adierazleak				
Kulturarteko harrera sustatzea, migrazioen inpaktua aztertuz, eskubideen ikuspegian oinarrituta dagoen eta genero ikuspegia jasotzen duen esparru juridiko bat sustatuz.			- Migratzaileei harrera egitearen arloan dauden beharrei erantzuten dieten proposamen berritzaileak eta garatutako azterlanak. - Migratzaileei eragiten dien esparru juridiko eta soziala hobetzeko sustatutako ekimenak. - Emakumeen eta nesken behar, praktika eta interes estrategikoak aztertu eta horiei erantzutea ahalbidetu duten ekintza espezifikoak.			
Neurri espezifikoa			Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
M15	Azterlan unitatearekin eta ekimenen laborategiarekin koordinatzea, migrazioen tokiko inpaktuan eta harrera prozesuetan eragiten duten elementu kontzeptualetan eta operatiboetan sakontzeko.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2022-2026	Berezko langile baliabideak
M16	Harreraren arloko esparru juridiko eta soziala hobetzeko ekimenak sustatu eta aldezte, eskubideen ikuspegitik.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026	Berezko langile baliabideak



4. LI. Migratzaileei harrera egiteko gaitasun kulturalak eta kulturartekoak garatzeko prestakuntza, gaikuntza eta sentsibilizazio sistema egonkorra sortzea.

Lehentasunezko ildo honekin, migratzaileen harrera prozesuetan zuzenean edo zeharka esku hartzen duten eragileei beharrezko ezagutza, gaitasun eta baliabideak eskaini nahi zaizkie, harrerak ekartzen dituen erronka ugariari aurre egin ahal izan diezaieten.

Horretarako, genero ikuspegia txertatu behar da kategoría analitiko nagusitzat, eta emakumeei zuzendutako ahalduntze sozial eta politikoko prozesuak jaso behar dira. Hori guztia, zorrotasun metodologikoarekin, dauden baliabideak behar bezala kudeatuz eta etengabe hobetuz, harreman asertibo eta positiboak sortzeari dagokionez.

Kulturartekotasuna garatzeko, ezinbestekoa da askotariko esparru kulturalak dituzten pertsonen arteko elkarreragina behar bezala lantzea, baita zerbitzuak berdintasunez eskuratzeko eskubidea bermatzea ere. Horretarako guztirako, etengabeko prestakuntza eta hausnarketa prozesu bat gauzatu behar da, pertsonen, taldeen eta komunitateen harrera egiteko prozesuetan esku hartzeari dagokionez, eta instituzio eta zerbitzuak kultura anitzeko errealitatera moldatzea ahalbidetzeko moduan.





4. LI. Migratzaileei harrera egiteko gaitasun kulturalak eta kulturartekoak garatzeko prestakuntza, gaikuntza eta sentsibilizazio sistema egonkorra sortzea.

1. HE.	Gaitasun kulturalen eta kulturartekoen inguruko etengabeko prestakuntza eta zeharkako prestakuntza sustatzea, genero ikuspegiarekin, administrazioetan, erakundeetan eta herritarren artean.	Adierazleak	Neurri espezifikoak		
			Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia
		- Migratzaileei harrera egiteko prestakuntza edukiak sortu eta garatzea, kulturartekotasunaren eta generoaren ikuspegiarekin. - Kulturarteko harrera egiteko prozesuetan prestakuntza sustatzeko departamentuekin, erakundeekin eta zerbitzuekin ezarritako aliantzak/akordioak. - Migratzaileen harreraren kulturarteko kudeaketa egokia egiteko garatutako prestakuntza edo ikastaroak, emakumeek eta gizonek bizi dituzten errealitate desberdinak aintzat hartuta. - Parte-hartzaileen kopurua (datuak sexuaren, adinaren, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera xehatuta).			
M17	Migratzaileei harrera egiteko prestakuntza edukiak kulturartekotasunaren eta generoaren ikuspegiarekin kudeatzeko behar diren prestakuntza edukien programa orokorra sortu eta ezartzea. Administrazio maila desberdinei eta gizarte eragileei zuzendua.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua	2023-2026
M18	Unibertsitate esparruan kulturartekotasunari buruzko zeharkako prestakuntza programak garatzea.		Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	2022-2026
					Berezko langile baliabideak. Ezarpen kostua, prestakuntza programaren arabera 4.000 € (2022) 4.000 € (2023) eta hurrengoak

4. LI. Migratzaileei harrera egiteko gaitasun kulturalak eta kulturartekoak garatzeko prestakuntza, gaikuntza eta sentsibilizazio sistema egonkorra sortzea.

2. HE	Komunikazio eta sentsibilizazio prozesuak harrera eta bizikidetzaren eskubideen eta generoaren ikuspegitik sustatzen dituen esparru kontzeptual batekin lerrokatzea.	Adierazleak	- Migratzaileei harrera egiteko komunikazioari eta sentsibilizazioari buruzko erreferentzia esparrua diseinatzeko garatutako ekintzak, genero ikuspegitik. - Harreraren esparru kontzeptuala komunikazio eta sentsibilizazio lanetan txertatu duten ekimenak. - Komunikazioko profesionalekin egindako ekintzak (parte-hartzaileen datuak sexuaren, adinaren, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera bereizita).		
			Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Aurrekontu zenbatetsia
M19	Hausnarketa prozesu bat garatzea, erreferentzia esparru bat ezartzea ahalbidetuko duena, harrera prozesuetan komunikaziorako eta sentsibilizaziorako, eskubideen eta generoaren ikuspegitik.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Herritarrekiko Harremanetako Departamentua (Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia)	2024
M20	Komunikaziorako bideak dituen harreman eta prestakuntza gune egonkor bat sortzea, migrazioei eta harrera prozesuei buruzko ezagutza eta sentsibilizazioa bideratzeko.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2024-2026



5. LI. Prozesu integral eta jarraituak sortzea familia unitateen inguruan, haurtzaro, nerabezaro eta gaztarotik.

Lehentasunezko ildo honen bidez, haurren, nerabeen eta gazteen egoera konplexu eta zaila jorratu nahi da familia migrazioen prozesuan, baita familia erreferenterik gabe migratzen dutenen muturreko zaugarritasuna dutenena ere (arreta berezia jarritz neska eta mutil gazteen egoerari).

Harrera prozesu hauetan, are garrantzitsuagoa da arreta puntuala alde batera uztea eta denboran egonkorrak izanen diren prozesuak jorratzea, eragile gakoaren arteko koordinazio eta lankidetzaren etengabe hobetuz (gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, osasun zerbitzuak, emakumeen arretarako zerbitzuak, gizarte erakundeak eta abar).

Familien Estatuez gaindikoa alderdia, zainketa kate globalak eta emakume migratzaileek aldaketaren eragile gisa duten zeregin garrantzitsua jasoko dira analisian.





5. LI. Prozesu integral eta jarraituak sortzea familia unitateen inguruan, haurtzaro, nerabezaro eta gaztarotik.

1. HE.

Familien, eta familia babesik ez duten adingabe eta gazte migratzaileen beharrak berrikusi eta horiei erantzutea harrera prozesuan, ikuspegi integral batetik.

Adierazleak

- Familiak birtaldekatzeko prozesuan egindako hobekuntzak.
- Familia sarerik ez duten haur eta gazteen harrera hobetu duten ekintzak.
- Haur eta gazte migratzaileen harrera prozesuak indartzen dituzten hezkuntzaren eta osasunaren esparruan garatutako ekimenak.
- Artatutako pertsonen/parte-hartzaileen kopurua (datuak sexuaren, adinaren, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera xehatuta).

Neurri espezifikoak

Departamentu edo
Erakunde erantzulea

Departamentu edo
Erakunde inplikaturia

Egutegia

Aurrekontu
zenbatetsia

M21	Familiak Birtaldekatzeko Zerbitzua (SERFAM) sortu eta indartzea, hautemandako beharrei erantzunez eta genero ikuspegia barne hartuz.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Eskubide Sozialetako Departamentua (Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetza)	2021-2026	90.000 € (2021) 125.000 € (2022) Eta hurrengoak
M22	Erakunde arteko Lan Taldea berriro aktibatzea, lehen harrerako zerbitzura iritsi berri diren adingabe migratzaile ez-lagunduen kolektiboaren barruan hautemandako beharrak jorratzeko, genero ikuspegia txertatuz.	Eskubide Sozialetako Departamentua (Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetza)	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia) Barne Zuzendaritza Nagusia Gobernuaren Ordezkaritza Tokiko erakundeak	2022-2023	Berezko langile baliabideak
M23	Nafarroako familia laguntzarik gabeko gazte migratzaileentzako KIDEAK Programa sortu eta garatzea, genero ikuspegi batetik.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026	401.500€ (2021) 530.918€ (2022 eta 2023) 599.035€ (2024)



Eta
hurrengoak

Jarraipena: 5. LI / 1. HE

Neurri espezifikoa		Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikatur	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
M24	Kultura aniztasun handiena duten ikastetxeetan baliabide publikoak aztertu eta hobetzea, eta eskola harrera hobetzeko ezarritako irizpideak egokitzea, baita genero ikuspegitik ere (PROA+ Orientazio eta Laguntza Plana).	Hezkuntza Departamentua (Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia)		2021-2023	Berezko langile baliabideak
M25	Familiei eta nerabeei derrigorrezko etaparen ondorengo eskolatzeko orientazioa ematen jarraitzea, genero ikuspegitik.	Hezkuntza Departamentua (Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026	Berezko langile baliabideak
M26	Adingabeko migratzaileentzako arreta integral eta integratua hobetzea, osasunaren esparruan. Genero ikuspegitik.	Osasun Departamentua (Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidea)		2023	Urterokoan ezartzeke
M27	Gizarte eta prestazio arreta emateko zerbitzuak sustatzea, genero ikuspegiarekin, baita bestelako programa batzuk sustatzea ere, migrazio prozesuetatik datozen gazteak unibertsitate eremuan gizarteratzea errazteko.	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	2022-2023	4.000 € (2022) 4.000 € (2023) eta hurrengoak



5. LI. Prozesu integral eta jarraituak sortzea familia unitateen inguruan, haurtzaro, nerabezaro eta gaztarotik.

2. HE

Haur eta gazteei zuzendutako baliabideak harreraren beharretara egokitzen eta ezagutzen laguntzea, hezkuntza formalean eta eskolatik kanpo kulturartekotasunaren ikuspegia aintzat hartuta.

Adierazle
ak

- Haurrek eta gazteek harrera prozesuan parte har dezaten dauden aktiboak identifikatzea.
- Haur eta gazteekin kulturarteko guneak sortzea sustatzen duten garatutako ekimenak.
- Nafarroako Gobernuaren guarda eta/edo tutoretzapean dauden gazte migratzaileek parte hartzen duten prestakuntza ekintzak.
- Artatutako pertsonen/parte-hartzaileen kopurua (datuak sexuaren, adinaren, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera xehatuta).

Neurri espezifikoak

Departamentu edo
Erakunde erantzulea

Departamentu edo
Erakunde inplikaturak

Egutegia

Aurrekontu
zenbatetsia

M28	Aktiboen Mapa bat sortzea eta haur eta gazteentzako eskaintza sendotzea haur eta gazteen harrera prozesuetan. Genero ikuspegia jasoz.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Eskubide Sozialerako Departamentua Kultura eta Kirol Departamentua (Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Kirolaren Institutua). Lehendakarietako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua (Nafarroako Gazteriaren Institutua).	2024	5.000 € MPZN (2024)
M29	Haur eta gazteentzako parte hartzeko eta elkarerraginean jarduteko kulturarteko guneak sustatzea, dauden jarduketak indartuz eta jarduketa berriak sortuz, genero ikuspegiarekin.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Eskubide Sozialerako Departamentua Kultura eta Kirol Departamentua (Nafarroako Kirolaren Institutua) Lehendakarietako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua (Nafarroako Gazteriaren Institutua).	2022-2026	3.400 € NKI (urtekoa) 24.300 € NGI (urtekoa) 5.000 € MPZN (2024)
M30	Nafarroako Gobernuaren guarda eta/edo tutoretzapean dauden adingabe eta gazteak prestakuntza ekintzetan sartzea, genero ikuspegiarekin, bizikidetzat egoki baterako.	Lehendakarietako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua (Barne Zuzendaritza Nagusia)	Eskubide Sozialerako Departamentua (Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeak)	2021-2026	Berezko langile baliabideak



6. LI. Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen harrera eta inklusio sistema modu koordinatuan ezartzen aurrera egitea.

Lehentasunezko ildo honen bidez, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen eragiten dieten egoera espezifikoetan (emakumeen eta nesken egoerari arreta berezia eskainiz), migrazio prozesua eragin duen egoera partikularrean eta jasotzeko eskubidea duten nazioarteko babesean sakondu nahi da.

Harrera prozesuak bizkor eta ongi kudeatzeko beharra dakar honek, ikuspegi integral batekin; halaber, aurre egin behar zaio jaioterrian bizi izandakoaren eta halabeharrez alde egin behar izatearen ondorioz bizi duten egoera emozional konplexuari (hori guztia, genero ikuspegitik eta genero identitatearen, sexu orientazioaren edo sexu ezaugarrien ondorioz ihes egiten dutenen berezitasunak kontuan hartuta).





6. LI. Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen harrera eta inklusio sistema modu koordinatuan ezartzen aurrera egitea.

Neurri espezifikoa		Adierazleak	Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturak	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
1. HE.	Nazioarteko babesaren eskatzaile edo jasotzen duten pertsonen harreraren Nafarroako Gobernuaren erantzuna hobetzea.					
M31	Migrazio prozesuak eta, bereziki, nazioarteko babesaren gertatzen diren Europako eta Estatuko esparruaren etengabeko jarraipena.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026	Berezko langile baliabideak
M32	Nafarroan nazioarteko babesaren eskatzaile edo jasotzen duten pertsonen harrera egiteko eredu bat sortzea, unera arte gauzatutako prozesuak aintzat hartuta.		Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Eskubide Sozialak eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia (Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia) Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa Iruñeko Udala	2021-2026	Berezko langile baliabideak



6. LI. Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen harrera eta inklusio sistema modu koordinatuan ezartzen aurrera egitea.

2. HE		Adierazleak	2. HE			
Neurri espezifikoa			Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
M33	Nazioarteko babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonentzako Harrera eta Integrazio Sistema Nazionaletik ateratzen diren pertsona eta familiei zuzendutako trantsizio gune bat sortu eta garatzea.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026	55.000 € (2021) 155.000 € (2022) Eta hurrengoak	
M34	Babes Komunitarioko Programa sortu eta indartzea, Nafarroako gizartearen inplikazioa sustatuz nazioarteko babesa jasotzen duten pertsonen harreraren.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026	95.000 € (2021) 95.000 € (2022)	



7. LI. Ostatu arloko beharrei behar bezala erantzuteko neurriak sustatzea.

Lehentasunezko ildo honekin, Nafarroara orotariko arrazoiengatik iristen diren pertsonen duten erronka handienetako bati egin nahi zaio aurre, alegia, etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko erronkari, batez ere zaurgarritasun eta diskriminazio egoeran bizi diren pertsonen kasuan.

Ildo horretan, behar bezala erantzun nahi zaie beharrei, eskuragarri dauden baliabideei eta horiek eskuratzeko prozedurei buruzko informazioa eskainiz, eta etxebizitza hein handiagoan eta hobeki eskuratzea ahalbidetzen duten ekimen berritzaileak sustatuz.





7. LI. Ostatu arloko beharrei behar bezala erantzuteko neurriak sustatzea.

1. HE.

Ostatu arloko beharrei erantzuteko lan esparru komun bat sortzea, migratzaileek etxebizitza eskuratu dezaten mugatzen duten baztertze faktoreen analisitik abiatuta.

Adierazleak

- Nafarroan migratzaileek gaur egun dituzten ostatu baliabideen egungo egoerari buruz egindako txosten eta azterlanak.
- Migratzaileen ostatu beharrei erantzuten dieten garatutako eta diseinatutako neurri espezifikoak.
- Maila anitzeko aliantzak eta akordioak (administrazioak, enpresak, jabetza eta abar), migratzaileek etxebizitza eskuratzeko dituzten aukerak hobetzeko.

Neurri espezifikoa

Departamentu edo
Erakunde erantzulea

Departamentu edo
Erakunde inplikaturia

Egutegia

Aurrekontu
zenbatetsia

M35

Administrazioen, erakundeen, etxebizitza elkarten eta abarren arteko hitzarmen global bat prestatzea ahalbidetzen duten ekintzak sustatzea, soluzio operatiboak bilatzeko etxebizitza eskuratzeko zailtasunen eta horiek migratzaileei harrera eta inklusioa eskaintzeko prozesuetan duen inpaktuaren aurrean.

Lurralde
Antolamenduko,
Etxebizitzako, Paisaiako
eta Proiektu
Estrategikoetako
Departamentua
(Etxebizitza Zuzendaritza
Nagusia)

2023

Urterokoan
ezartzeke

M36

“Etxebizitza inklusiboaren mahaia” izeneko departamentu arteko batzordeak neurri espezifikoak aztertu eta aplikatzea, Nafarroara iristean migratzaileek dituzten etxebizitza beharrei erantzuteko.

Eskubide Sozialetako
Departamentua (Babes
Sozialaren eta
Garapenerako
Lankidetzaren
Zuzendaritza Nagusia)
Lurralde
Antolamenduko,
Etxebizitzako, Paisaiako
eta Proiektu
Estrategikoetako

Migrazio Politiketako eta
Justiziako Departamentua
(Migrazio Politiketako
Zuzendaritza Nagusia)

2022-2026

Urterokoan
ezartzeke



Jarraipena: 7. LI / 1. HE

104

		Departamentua (Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia)			
Neurri espezifikoa		Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
M37	Nafarroako ostatu baliabideen egungo eta etorkizunera begirako egoeraren, eta migratzaileek horiek eskuratzeko duten moduaren azterketa, generoaren eta atal arteko ikuspegiaren arabera.	Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua (Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia)	Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua (Nafarroako Berdintasunerako Institutua)	2023	Urterokoan ezartzeke
M38	Nafarroako Gobernuak finantzatzen dituen migratzaileentzako aldi baterako harrera baliabideak aztertu, hausnartu eta egokitzea.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia) Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua (Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia)		2022-2024	Berezko langile baliabideak



7. LI. Ostatu arloko beharrei behar bezala erantzuteko neurriak sustatzea.

2. HE	Migratzaileei zuzendutako informazio zerbitzuak hobetzea, etxebizitza eskuratzearen arloan.	Adierazleak	- Migratzaileek etxebizitza eskuratzeari dagokionez, migratzaileei zuzendutako informazioa hobetzeko garatutako jarduerak. - Migratzaileei etxebizitza eskuratzeari dagokionez, migratzaileei zuzendutako informazioa hobetzeko garatutako jarduerak. - Migratzaileei etxebizitza eskuratzeari dagokionez, migratzaileei zuzendutako informazioa hobetzeko garatutako jarduerak.			
			Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
M39	Gaur egungo informazio sistema eta etxebizitza merkaturako sarbidea berrikustea, Nafarroako aniztasun soziokulturalera egokitze jarduketak bultzatuz.	Neurri espezifikoak	Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua (Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia)	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	2023	Urterokoan ezartzeke



8. LI. Osasunaren ikuspegi prebentibo eta integrala jorratzea ahalbidetzen duten prozesu eta ekintzak garatzea.

Lehentasunezko ildo horren arabera, beharrezkoa da osasun sistemarako sarbidetik haratago joatea; izan ere, osasuna jorratzea ezin da gaixotasunak tratatzera mugatu; hain zuzen ere, ikuspegi integral batetik eta genero ikuspegitik aztertu beharreko kontua da, eta ikuspegi horrek bereziki eragin behar du osasunaren gizarte determinatzaileen gainean.

Hori kontuan hartuta, arreta berezia jarriko da emakumeen eta nesken sexu eta ugalketa osasunean, baita bereizkeriaren, esplotazioaren eta indarkeriaren eraginpean egoteko aukera gehiago izatean ere, bai bidaian eta bai helmugan.

Gainera, migrazio dolua jorratuko da, migrazio prozesuak migratzaileen osasun emozionalean eta mentalean duen inpaktua aintzat hartuta, hain zuzen ere, antsietatea, estresa, depresioa, ziurgabetasuna eta abar jasaten ahal baitituzte.





8. LI. Osasunaren ikuspegi prebentibo eta integrala jorratzea ahalbidetzen duten prozesu eta ekintzak garatzea.

1. HE.

Migratzaileek osasun arloan dituzten behar espezifikoak sarbidea eta estaldura hobetzea, dauden oztopoak aztertuz eta desagerraraziz.

Adierazleak

- Zaurgarritasun egoeran dauden migratzaileen prestazio farmazeutikoak eskuratzea ahalbidetzeko egindako ekintzak.
- Migrazio dolua behar bezala tratatzeko beharrari erantzuteko egindako ekintzak, genero ikuspegiarekin.
- Artatutako pertsonen/parte-hartzaileen kopurua (datuak sexuaren, adinaren, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera xehatuta).

Neurri espezifikoa		Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
M40	Zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen prestazio farmazeutikoak eskuratzeko oztopoak hautematea eta desagerraraztea.	Osasun Departamentua (Osasun Zuzendaritza Nagusia)	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	2022-2026	Berezko langile baliabideak
M41	Migratzaileen osasun mentala artatzeko prozedurak hobetzea, eta kulturartekotasunari eta genero ikuspegiari buruzko prestakuntza espezifikoa eskaintzea osasuneko profesionalei.	Osasun Departamentua (Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidea, Osasun Mentaleko Kudeatzailatza)		2022-2023	Berezko langile baliabideak
M42	Migrazio Dolua genero ikuspegitik jorratzen duten ekintzak sustatzea.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2023-2026	Berezko langile baliabideak
M43	"Lehen mailako Arretako Oinarritzko Osasun Laguntza unibertsalizatzeko" protokoloa berrikusi eta hobetzea	Osasun Departamentua (Osasun Zuzendaritza Nagusia)	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	2023	Berezko langile baliabideak



8. LI. Osasunaren ikuspegi prebentibo eta integrala jorratzea ahalbidetzen duten prozesu eta ekintzak garatzea.

2. HE		Adierazleak			
Eremu soziosanitarioa Nafarroako aniztasun soziokulturalera egokitzea sustatzea.					
Neurri espezifikoa			Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikaturia	Egutegia
					Aurrekontu zenbatetsia
M44	Laguntza sarera zuzendutako prestakuntza eskaintza sortzea, atzerriartasunaren arloko kulturartekotasunari eta legediari buruzkoa, eta horrek osasunerako eskubidearekin duen elkarrekin buruzkoa, genero ikuspegitik.		Osasun Departamentua (Osasun Zuzendaritza Nagusia)	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	2021-2026
M45	Osasuna sustatzeko zerbitzu orokorrak, programak, ikerketak eta ekimenak eskuratzeko informazioa, hizkuntza egokitzapena eta kulturarteko bitartekotza hobetzea.		Osasun Departamentua (Osasun Zuzendaritza Nagusia) Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)		2021-2026
M46	Sexu eta Ugalketa Osasunaren esparruko baliabide eta zerbitzuei buruzko informazio kanalei bide ematea, emakumezko migratzaileek beren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.		Osasun Departamentua (Osasun Zuzendaritza Nagusia)	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	2023



Neurri espezifikoa		Departamentu edo Erakunde erantzulea	Departamentu edo Erakunde inplikatur	Egutegia	Aurrekontu zenbatetsia
M47	Emakume migratzaileei Laguntza eta Errekuperazio Sareko baliabide eta zerbitzuen katalogoko informazioa hobetzea, salerosketaren, emakumeen mutilazio genitalaren, ezkontza behartuen edo emakumeen aurkako indarkeriaren beste agerpen batzuen kasuetan.	Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua (Nafarroako Berdintasunerako Institutua)	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia) Osasun Departamentua (Osasun Zuzendaritza Nagusia)	2023	Urterokoan ezartzeke
M48	Hainbat indarkeria jasaten dituzten emakumeei eta neskei arreta emateko koordinazio guneetako parte-hartzea indartzea, bereziki prostituzioaren eta salerosketaren kasuetan.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua (Nafarroako Berdintasunerako Institutua)	2022-2026	Berezko langile baliabideak



9. LI. Laneratzeko prozesuak indartzea.

Lehentasunezko ildo honen xedea pertsona iritsi berriak laneratzeko prozesuekin erlazionatutako elementu gakoak jorratzea da. Laneratzea da migrazio prozesuak kudeatzeko funtsezko alderdietako bat, izan ere, kasu askotan, administrazio zailtasunak eta bestelako zailtasunak egoten dira, prozesuek arrakasta izatea zailtzen, moteltzen eta eragozten dutenak.

Helburua inguruabarrak eta prozedurak hobetzea da, laneratzeko berdintasunean gerta dadin emakumeen eta gizonen kasuan, zainketa lana eta funtsezko beste lan batzuk balioetsiz. Halaber, prekarietate egoerak saihestu behar dira, eta pertsonen garapenari eta Nafarroako errealitate sozioekonomikoan egiten duten ekarpenari bide ematen dioten baldintzak sustatu behar dira.





9. II. Laneratzeko prozesuak indartzea.

1. HE.

Enplegu baliabideetako lehen arreta Nafarroako aniztasun soziokulturalera moldatzea

Adierazleak

- Migratzaileei lan arloan arreta ematean dauden oztopoak identifikatzeko garatutako ekintzak, genero ikuspegiarekin eta ikuspegi intersektionalarekin.
- 16 urtetik gorako gazte migratzaileen arreta hobetzeko garatutako ekimenak.
- Migratzaileen enplegarritasuna hobetzen laguntzen duten lan prozesu eta metodologiak indartzeko sustatutako ekintzak.

Neurri espezifikoak

Departamentu edo
Erakunde erantzulea

Departamentu edo
Erakunde inplikaturia

Egutegia

Aurrekontu
zenbatetsia

M49	Migratzaileen arreta hobetzeko dauden oztopoak genero ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik aztertzea.	Eskubide Sozietako Departamentua	Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua (Nafarroako Berdintasunerako Institutua) Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentua (Enpresa, Nazioarteko proiektu eta Laneko Zuzendaritza Nagusia)	2022-2026	Berezko langile baliabideak
M50	16 urtetik gorako gazte migratzaileei arreta emateko protokoloak sortzea, enplegu agentzietan aplikatzeko.	Eskubide Sozietako Departamentua (Nafarroako Enplegu Zerbitzua)		2022	Berezko langile baliabideak
M51	Migratzaileengan berriaz eragiten duten arloetan, orientazioaren kalitatea indartzea.	Eskubide Sozietako Departamentua (Nafarroako Enplegu Zerbitzua)		2022-2023	6.000 € (2022)



**PLAN NAVARRO
DE ACOGIDA**
A PERSONAS MIGRANTES

PERTSONA MIGRATZAILEEI
HARRERA EGITEKO
NAFARROAKO PLANA





9. LI. Laneratzeko prozesuak indartzea.

2. HE

Migratzaileei zuzendutako prestakuntza eta informazio garapenak hobetzea.

Adierazleak

- Migratzaileen lan gaitasunak hobetzeko prestakuntza jasotzeko prozedurak eta informazioa hobetzeko garatutako ekimenak.
- Parte-hartzaileen kopurua (datuak sexuaren, adinaren, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera xehatuta).

Neurri espezifikoak

Departamentu edo
Erakunde erantzulea

Departamentu edo
Erakunde inplikaturak

Egutegia

Aurrekontu
zenbatetsia

M52

Prestakuntza programetarako informazio kanalak eta sarbideak hobetzea, migratzaileen gaitasun profesionalak areagotzeko.

Eskubide Sozialetako
Departamentua
(Nafarroako Enplegu
Zerbitzua)

Migrazio Politiketako eta
Justiziako Departamentua
(Migrazio Politiketako
Zuzendaritza Nagusia)

2022-2026

Urterokoan
ezartzeke





9. LI. Laneratzeko prozesuak indartzea.

3. HE

Enpresa ehunaren parte-hartzea sustatzea Nafarroan migratzaileei harrera egiteko prozesuetan.

Adierazleak

- Enpresek migratzaileen harreran parte har dezaten sustatzeko garatutako ekintzak.
- Administrazioen eta enpresa ehunaren arteko lankidetzarako ezarritako aliantzak, migratzaileen ekoizpen ehunerako ekarpen nabarmenaren alde.

Neurri espezifikoa

Departamentu edo
Erakunde erantzulea

Departamentu edo
Erakunde inplikaturia

Egutegia

Aurrekontu
zenbatetsia

M53	Administrazioaren, enpresa ehunaren eta sindikatuen Sektore arteko Mahai bat sortzea, migratzaileen laneratzeko hobetzeko, batez ere, emakumeen kasuan.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua (Enpresa, Nazioarteko Proiektzio eta Laneko Zuzendaritza Nagusia) Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua (Nafarroako Berdintasunerako Institutua)	2025	Berezko langile baliabideak
M54	Lan/enpresa eremuan migratzaileei Harrera egitea jorratzeko programak sustatzea.	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)	Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua (Enpresa, Nazioarteko Proiektzio eta Laneko Zuzendaritza Nagusia)	2025	Urterokoan ezartzeke



2.6. GOBERNANTZA

115

Gaur egun eta etorkizunean, migrazioen tokiko inpaktuak eta horrek eragiten duen dibertsifikazio soziokulturaleko prozesuak ekarriko duen erronkari erantzuteko, politika publikoak garatu behar dira, Eskubideen Ikuspegitik, gizarte kohesioa eratuko bada. Kultura aniztasuna Nafarroako Foru Komunitateko ondare soziala, kulturala, ekonomikoa eta abar aberasteko aukera gisa hartu behar da, eta, hartara, Agenda 2030ean ezarritako helburuetan laguntzen ahal zaie toki eremutik.

Erronka handi hau lortzeko, Nafarroako gizarte osoaren zeharkako ahalegina beharrezkoa da, administrazio publikoetatik beretatik hasita. Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentutik (MPZN) sustatu nahi den gobernantzak Nazio Batuen 17. helburuak proposatutako gomendioekin jarraitzearen aldeko apustua egiten du. Horretan, maila anitzeko aliantzak ezartzearen eta erronkak elkarrekin eta lankidetzan jorratzearen garrantzia nabarmentzen da, gizarte eragile guztiak inplikatur.

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusitik sustatutako ekintzen bitartez, migrazio fenomenoaren kudeaketa egokia eskatzen duten egoeren aniztasuna berariaz jorratu nahi dira, gizartearen dibertsifikazio soziokulturalak eragindako erronka politika publikoak ikuspegi estrategiko argi batekin eratzeko aukera bihurtuz. Horretarako, lan sistemiko eta zeharkakoa egin beharko da, udaletxeak, gizarte zibileko erakundeak, unibertsitateak, enpresak eta zenbait esparrutako profesionalak inplikatur. Koordinazioko barne lana ere egin beharko da foru administrazioa osatzen duten departamentuen artean, hurbiltasuna, efizientzia eta zeharkakotasuna bermatzeko honako hauek lortzeko orduan:

- a) Nafarroako Foru Komunitatera zenbait arrazoiren ondorioz iristen diren pertsona guztiei harrera ona eskaintzea, eskubideen eta generoaren ikuspegitik.
- b) Irmotasunez egitea arrazismo eta xenofobia forma ororen aurka, edo bestelako diskriminazio moduen aurka.
- c) Kulturarteko bizikidetzaren errealak eratzeko erabakia.

Horretarako, *Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako 2021-2026 Plana, Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako 2021-2026 Plana* eta *Kulturen arteko Bizikidetzarako 2021-2026 Estrategia* ekintza prozesu bakarrarekin lerrokatutako hiru baliabide dira, kulturarteko gizarte bateranzko aldaketa eta eraldaketarako ibilbide orria izateko xedearekin.



2021ean zehar egindako lanetan gizarte eragileen parte-hartze handia egon da, eta ezagutza eta adimen kolektiboa partekatu eta sortzeko guneak sortu dira. Horrekin, abiapuntu bat ezarri ahal izan da Harreraren, kulturarteko bizikidetzaren eta arrazismo eta xenofobiaren aurkako borrokaren arloari dagokionez. Une honetan, Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Plan hau esku artean dugu jada, baita Nafarroako Kulturen arteko Bizikidetzaren Estrategia ere. Datozen hilabeteetan, Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Planaren edukiak ere zehaztuko dira.

Planteatzen den gobernantza estrategiak hiru bideak parte-hartze prozesu bakarrean bateratzeko xedea du, lehen ere aipatu den moduan. Horretarako, behin Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Plana amaitu ondotik, gida bat ezarriko da, garatuko diren guneak, harremanak, komunikazioa eta jarraipen eta ebaluazio sistema zehazteko. Ildo horretan, Urteko Exekuzio Plan bat egingen da, hots, eskuragarri dauden antolaketa eta baliabideak kontuan hartuta lehentasunak zehazteko xedea izanen duen baliabidea.

Horren guztiaren helburua 2021-2026 bitartean albait inpaktu sozial handiena lortzea izanen da, aurreko ibilbide guztia aprobetxatuz eta kulturarteko Nafarroa lortzeko bidean aurrera egiteko kondizioak sortuz, horren oinarrian modu eraginkor eta iraunkorrean erantzun ahal izateko gizarte konplexu baten erronkei, hots, oso erritmo azkarrean eta fenomeno globalen eta tokikoen arteko lotura estuan aldatzen den gizarte baten erronkei.



2.7 – JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA.

117

Aurreko apartatuan adierazi den moduan, Plana modu sistematikoan ezarriko da urteko programazio operatiboen bidez. Horietan, aldi horretan gauzatu beharreko ekintza zehatzak jasoko dira eta, honela, Planean adierazten diren helburuak eta neurriak beteko dira pixkanaka.

Plan honen gobernantzan parte hartzen duten eragileek planaren garapenaren gaineko kontrola izaten jarrai dezaten, urteko programazio operatiboetan informazio kuantitatibo zein kualitatiboa jasotzeko baliabideak eta prozesuak jasoko dira. Horrela, konprometitutako ekintzak bete diren jakiten ahalko da eta horien emaitzak ezagutuko dira, eta kohesio handiagoa emanen zaio Planari. Hala, hurrengo urtera begira, beharrezkotzat jotzen diren doikuntzak egiten ahalko dira.

Urteko programazio bakoitzeko ekintzak zabaltzea kulturarteko ikuspegiarekin eta genero ikuspegiarekin aztertuko eta baloratuko da gobernantza osatzen duten eremuetan, eta urteko jarraipen txosten batean irauliko dira. Urteko programazio operatiboetan gauzatze eta emaitza adierazleak jasoko dira eginen den ekintza bakoitzerako. Sexuaren arabera xehatutako adierazleak jasoz, ondoren genero ikuspegiarekin aztertzeke egoki denean.

Jarraipen prozesu honek monitorizazio jarraitua egituratzen du, ebaluazio guneekin osatzen dena.

Ildo horretan, Planaren ebaluazioa ebaluazio jarraitu eta batutzailearen ikuspegiarekin planteatzen da, ebaluaziorako bi une zehatzekin: tarteko ebaluazio bat, Plana aplikatzen hasi eta erdibidean; eta amaierako ebaluazioa, indarraldia amaitutakoan. Biek ere izaera kuantitatiboa izanen dute (gauzatutako ekintzak zehaztuz, hasiera batean planifikatutako ekintzekiko, eta gauzatze maila adieraziz), baita kualitatiboa ere (alderdi kualitatiboak aintzat hartuz, hurrengo planetara begira, esku-hartze eremuak eta hobetzen ahal diren alderdiak identifikatzeko).

Planaren amaierako ebaluazioan, halaber, kulturartekotasunaren eta generoaren ikuspegietatik, Pertsona Migratzaileei Harrera egiteko Nafarroako Plana gauzatzeak epe labur eta ertainean izan duen inpaktu soziala neurtuko da, horren garapenari loturiko Agenda 2030eko GJHak aintzat hartuta.



1. ERANSKINA. GLOSARIOA



EGOKITZAPEN INSTITUZIONALA

Soziokulturalki anitza den Nafarroako gizartearen profilari erantzuteko egokiak diren baldintzak sortzea ahalbidetzeko, prozedura, zerbitzu, ohitura eta abarretan beharrezko aldaketak sortzea aipatzen du testu honetan.

ASILOA

Estatu batek bere lurraldean bermatzen duen babes mota, ez itzultzearen printzipioan oinarritua; horrek errefuxiatuen eskubideak nazioartean edo Estatu mailan aitortzea dakar. Beren herritartasunari eta/edo egoitzari dagokion herrialdean babes hori bermatuta ez duten pertsona guztiei ematen zaie, arraza, erlijio, nazionalitate, talde sozial edo iritzi politiko jakin bateko kide izateagatik jazar ditzaten beldur direlako.

119

GIZARTE KOHESIOA

Gizarte kohesioaren inguruan ikusmolde desberdinak daude, baina gehienetan honako hauek azpimarratzen dira: ongizate komuna, desberdintasunen aurreko ekitatea, gatazkak esparru demokratikoen bidez erregulatzea, herritarren parte-hartzea edo planteamenduetan aniztasun soziokulturala errespetatzea. Tokiko esparru komunitarioak kohesioa sustatzen du, gizarte loturen, komunitateko protagonistek berdintasunean parte hartzearen, gatazkakortasunaren erregulazio positiboaren eta erakundeen zilegitasunaren bidez.⁵⁷

KOMUNITATEA

Termino horrek, batetik, giza taldeek edo kolektibitateek partekatutako ezaugarriak biltzen ditu (balioak, interesak, ohiturak, hizkuntza, kultura eta abar). Bestetik, lurralde esparrua eta esparru juridikoa ere aipatzen ditu, hau da, Nafarroan, komunitatea tokikoa izanen da (auzo bat, eremu bat, herri edo udalerrri bat, hiri bat), eta egiturazko lau elementuk osatuko dute: lurraldea, biztanleria, baliabideak eta biztanleen eskaerak.⁵⁸

⁵⁷ Giménez, C., Álamo, J. eta Pérez, F. (2015). Bizikidetza eta kohesio soziala. Bartzelona: "La Caixa" Gizarte Lana.

⁵⁸ Ibidem



BIZIKIDETZA

Elkarbizitza egoera sozial mota bat da, non pertsonak, horien kidesun sozial edo kulturala edozein delarik ere, elkarrekin komunikatzen eta harremanetan jartzen baitira, elkar errespetatzen baitute, balio eta interes komunak partekatzen baitituzte, positiboki laguntzen eta elkarreragiten baitute, eta gatazkak sormenez prebenitu eta konpontzen baitituzte. Bizikidetzak etengabeko ikaskuntza eskatzen du eta etengabe eratzen ari den prozesu dinamikoa da.⁵⁹

HERRITARREN KULTURARTEKO BIZIKIDETZA

Toki komunitate bereko pertsonen arteko harreman eta elkarreragin positiboak nabarmentzen dituen bizikidetza da, edozein dela ere haien egoera administratiboa edo kidesun sozial edo kulturala, non arau, balio eta interes komunak partekatzen baitira.

GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO TRATU BERDINTASUNAREN PRINTZPIOA

Emakumeen eta gizonen arteko tratu berdintasunaren printzipioak berarekin dakar sexuan oinarritutako bereizkeriarik eza, bereizkeria hori zuzeneko nahiz zeharkakoa izatea gorabehera, eta, bereziki, amatasun egoeraren, familia betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoa.⁶⁰

GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO IKUSPEGIA

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren arabera, eskubideak berdinak, besterenezinak, unibertsalak, zatiezinak eta interdependenteak dira. Eskubide horiek ezartzen dituzte askatasunerako, justiziarako, bakerako eta bizikidetzarako oinarriak komunitatean.

Halaber, botere publikoak dira horiek bermatzearen erantzule eta, hori horrela, eskubide horiek sustatu eta babestu behar dituzte. Halaber, beharrezko baliabideak ezarri behar dituzte horien urraketak desagerrarazteko, egoten ahal diren desberdintasunen eta diskriminazio zein botere desoreka mota desberdinen aurka eginez.

Bestalde, Giza Eskubideetan oinarritutako Eskubideak pertsonak eta horien ahalduntzea jartzen ditu erdigunean. Hain zuzen ere, pertsonak dira beren garapenaren eragile nagusi, estali beharreko

⁵⁹ Giménez, C., Álamo, J. eta Pérez, F. (2015). Bizikidetza eta kohesio soziala. Bartzelona: "La Caixa" Gizarte Lana.

⁶⁰ 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarriari buruzkoa.



IKUSPEGI KOMUNITARIOA

premiak dituzten zerbitzu, prestazio edo neurrien hartzaile pasibotzat hartu ordez.

Prozesu horrek pertsona edo talde jakin batzuen premiei erantzuten ahal dien arren, pertsona edo talde horiek interes orokor bat dutela onartzen du, eta, beraz, komunitate osoa inplikaturako duen ekintza behar dutela, lurralderako garrantzitsuak diren eragile guztien eta bertan bizi diren pertsonen parte-hartzea lortzeko. Prozesu horren helburua bizikidetzeta eta garapen sozioekonomikoa sustatzea da, ingurunea ahalik eta gehien aprobetxatuz baliabide eta zerbitzuei dagokienez.

121

GENERO IKUSPEGIA

Gizartean emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien rol eta eginkizun desberdinak, horiei ematen zaien balioa eta bien artean dauden erlazioak kontuan hartzen dituen errealitatearen analisia; emakumeen kontrako diskriminazioa, desberdintasuna eta bazterketa identifikatu, ezbaian jarri eta baloratzea ahalbidetzen du, baita abian jarri behar diren ekintzak ere, genero faktoreen gainean eragiteko eta genero ekitatea eratzen aurrera egiten lagunduko duten aldaketarako baldintzak sortzeko.⁶¹

ESTATUAZ GAINDIKO FAMILIA

Migrazio prozesu bat bizi izan duten familiak, alde batean eta bestean bizi direnak, jaioterriaren eta jomugaren artean, zatikatuta, alde egiten duten familia kideentzako eta jaioterrian geratzen diren kideentzako abantailak eta desabantailak jasaten dituztenak.⁶²

GENEROA

Gizonezkoak eta emakumezkoak bereizten dituen baldintza kulturala. Sexuaren arabera ezarritako arau, tradizio eta ohitura diferentzialen multzoa da. Itxaropen sozialak, gizonek eta emakumeek izan beharreko sentipen, pentsamolde eta jokaerei buruzkoak.

⁶¹ 17/2019 FORU LEGEA, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa. Nafarroako Foru Komunitatea

⁶² Celia Jaes Falicov (2021). "Migración, pérdida ambigua y rituales"



GOBERNANTZA

Kontzeptu honekin, administrazio publikoen, sektore pribatuaren eta herritarren parte-hartze aktiboaren arteko ekintza koordinatu eta lankidetzazkoa nabarmendu nahi da.

INKLUSIOA (INKLUSIOA ESKUBIDETZAT AITORTZEKO OINARRIA DAGO)

Europar Batasunak honela definitzen du gizarte inklusioa: *"pobrezia eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte hartzeko behar dituzten aukerak eta baliabideak izanen dituztela bermatzen duen prozesua, eta bizi diren gizartean normaltzat jotzen den bizitza eta ongizate maila izanen dutela bermatzen duena."* Pertsonen *"bizitza kide" izan* dezaten eskubidea nabarmentzen du, komunitate bateko kide izanez.

ELKARRERAGIN POSITIBOA

Dokumentu honetan, Nafarroan bizi diren pertsona guztien artean harreman asertibo eta konstruktiboak sustatu beharra planteatzen da, errespetu aktiboa gailenduz eta kultura aniztasuna onartuz, auzoetako, udalerrietako eta abarreko komunitateetara ekarpena egiten duen eta aberasgarria den elementu gisa.

KULTURARTEKOTASU NA

Esparru geografiko, politiko eta sozial berean dauden jatorri eta kultura erreferentzia desberdineko pertsonen eta taldeen arteko komunikazio, truke eta aberasteko harreman konstruktiboa. Horretatik abiatuta, erreferentzia esparru komun berri bat eratzen ahal da, gizarte osoarentzat egiturazko aldaketak ekarriko dituen.

Kulturartekotasunaren printzipioak aitortzen du bizikidetzarako beharrezkoak diren oinarriko zenbait baldintza daudela, herritar guztien eskubide, betebeharrak eta aukerak parekatzean oinarritzen direnak, lurraldeetan dauden desberdintasun eta diskriminazio egoerak gaindituz. Oinarriko substratu horri esker, herritartasun inklusiboko eredu baterantz bideratutako identitate elementu banakako zein kolektiboak eratzen ahal dira.

Kulturartekotasuna ez da ulertu behar errealitatearen egoera zehatz gisa, baizik eta etengabe gizartea eratzerako bideratzen den jarduketaren printzipio gisa, herritar guztien ekarpen positiboa aitortuz, bizimodu, jokabide eta kognizio moduen aniztasunetik.



INTERSEKZIONALITATE

A

Zenbait desberdintasun ardatzen arteko elkarreraginaren ondorioz pertsonen posizio soziala deskribatzen duen ikuspegia; hala, politika publikoari dagokionez, logika monofokala alde batera uztea eta desberdintasunei aurre egiteko modu konplexuagoak bilatzea eskatzen du.

Desberdintasun ardatzen adibideak dira klase soziala, sexu eta genero aniztasuna edo jatorria, besteak beste.⁶³

123

BEHARRAK

Kontzeptu hau definitzeko, Maslowk (1943) deskribatutako beharren tipologia eta mailak hartzen ditugu erreferentziazat. Maslowren Piramideak honako maila hauek ditu osagai:

-  **Behar fisiologikoak.** Gorputzaren eta mantenuaren berezkoak.
